

SOZIALISMO UTOPIKOTIK SOZIALISMO ZIENTIFIKORA

F. Engels



Federiko Engels
Fundazioa

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista

SOZIALISMO UTOPIKOTIK ZIENTIFIKORA
F. Engels
Itzulpena: Federiko Engels Fundazioko Itzulpen Taldea

Lehenengo argitalpena: 2010ko Azaroa

ISBN: 978-84-96276-67-3
Lege-gordailua: M-50861-2010

Argitaratzaile eta banatzaileak:
Federiko Engels Fundazioa • Euskal Herria Sozialista
www.fundacionfedericoengels.org • www.euskalherriasozialista.net

AURKIBIDEA

Hitzaurrea alemanezko lehen argitalpenari	7
Hitzaurrea alemanezko laugarren argitalpenari	10
Hitzaurrean ingelesezko 1892ko argitalpenari	11

SOZIALISMO UTOPIKOTIK SOZIALISMO ZIENTIFIKORA

I	43
II	59
III	68

Engelsen *Sozialismo utopikotik sozialismo zientifikora*
idazlana Anti-Dühringeko hiru kapituluz osaturik dago,
Engelsek berak berrikusiak, langileei marxismoaren azalpen
osatu eta xume bat eskaintzeko helburu bereziarekin.

HITZAURREA ALEMANEZKO LEHEN ARGITALPENARI

Ondoren argitaraturiko idatzia nire lan bateko hiru kapituluz osaturik dago, bera *E. Dühring jaunak eginiko zientziaren subertsioa*, Leipzig, 1878. Nik neuk bildu nituen kapituluak, adiskide dudan Paul Lafarguek frantsesera itzul zitzan, dedukzio osatuago batzuk gehituaz batera. Frantseserako itzulpena, neuk berrikusia, *Revue Socialiste*an argitaratu zen lehendabizi eta argitalpen berezi batetan ondoren, *Socialisme utopique et socialisme scientifique* izenburupean, Paris, 1880. Ginebran polonierazko itzulpen bat agertu berri da, bertsiot frantsesean oinarritua, honako izenburu honekin: *Socyjalizm utopijny a naukowy*. Imprimeire de l'Aurore, Genova, 1882.

Lafargueren itzulpenak frantsesa hitz egiten den herrialdeetan eta batez ere Frantzia bertan lortu zuen arrakasta harri-garriak, ezinbestean bultzatu behar ninduen pentsatzera ez ote zen komenigarria izango hiru atal horien alemanezko aparteko tirada bat ere egitea. Horretan nenbilela, Zuricheko *Sozialdemokrateko* erredakzioak jakinarazi zidan Alemaniako alderdi sozialdemokrataren barrenean propagandarako foiletok berrien eskari orokorra nabari zela, eta galdetu zidan ea ez al nuen nahi aipaturiko hiru kapituluak horretara bideratzea. Noski, ados nengoen eta nire lana beraien eskuetan jarri nuen.

Baina orrialde hauek jatorrian ez ziren idatziak izan, ezta gutxiagorik ere, zuzenean masen arteko propagandarako balio izateko helburuarekin. Nola bideratu xede horretarako, beste ezer baino lehen, zientifiko hutsa zen lan bat? Zein aldaketa sartu behar ziren bertan forman eta funtsean?

Formari dagokionean, bertako hitz atzerritar ugariak barkarik sor zitzaizketen zalantzak. Baina jada Lassallek, bere diskurtsoetan eta propagandako idatzietan, erabiltzen zituen nahiko maiztasunez atzerriko terminoak eta, nik dakidala behintzat, horregatik inor kexatu gabe. Garai haietatik, gure

langileek askoz aldizkari gehiago irakurtzen dituzte eta askoz erregulartasun handiagoarekin, ohituago daudelarik, hori dela eta, hitz atzerritarrekin. Horrenbestez, beharrezkoak ez ziren termino atzerritar guztiak kentzera mugatu naiz. Nahitaezko-ei dagokienean, uko egin diot azalpenezko itzulpenak deritze-nak gehitzeari. Ezinbesteko hitz atzerritarrak, gehienak ter-mino zientifiko tekniko oso hedatuak, ez ziren hain zuzen ere ezinbesteko izango itzulgarriak izango balira. Horien itzulpe-nak, beraz, zentzua faltsutzen du; argitu ordez, desorientatu egiten du. Kasu hauetan, askoz erabilgarriagoak dira hitzezko azalpenak.

Aldiz, edukiari dagokionean, uste dut baieztza dezakedala langile alemaniarrei ez diela zailtasun handirik emango. Ka-pitulu zail bakarra orokorrean hirugarrena da, baina askoz gutxiago langileentzat burges “kultuentzat” baino, beraien bizi baldintza orokorrak laburtzen baitira bertan. Hain zuzen ere, hemen sartu ditudan azalpen gehigarri ugarietan, askoz gutxiago hartu ditut kontuan langileak irakurle “kultuak” bai-no, von Eynern diputatu jauna bezala, Heinrich von Sybel aholkularia eta beste Treitschke batzuk bezala, beren igno-rantzia higuingarria eta, horren ondorioz, sozialismo kontue-tan duten itsukeria erraldoi naturala beste behin ere publiko-ki agertzeko duten bulkada geldiezinak harturik daudela. On Kixotek bere lantza haize erroten kontra haustea azaldu dai-teke, bere ofizioa eta misioa baita; baina Santxo Panzari ezin zaio halako ekintzarik onartu.

Mota honetako irakurleak harritu egingo dira halaber, so-zialismoaren historiaren zirriborro batetan Kant-Laplaceren kosmogoniarekin, zientzia natural modernoekin eta Darwine-kin, filosofia klasiko alemaniarrekin eta Hegelekin topo egi-teaz. Baina sozialismo zientifikoa funtsean alemaniarra den produktua da eta bertako filosofia klasikoak dialektika kon-tzientearen tradizioa bizirik mantendu duen nazio baten arte-an bakarrik jaio zitekeen: Alemanian¹. Historiaren ikusmolde

1. “Alemanian” idatz akats bat da. “Alemaniarren artean” esan behar du. Hain zuzen ere: alde batetik, dialektika alemaniarra sozialismo zienti-fikoaren genesirako ezinbestekoa bazen, ez ziren gutxiago izan, bestal-de, Ingalaterrako eta Frantziako garapen baldintza ekonomiko eta po-

materialista eta proletalgoaren eta burgesiaren klase arteko borroka modernoari eginiko bere aplikazio berezia, soilik dialektikaren bidez izan zen posible. Eta burgesia alemaniarren maisutxoek filosofo alemaniar handien oroimena eta hauek landuriko dialektika eklektizismo astun baten putzuan hondoratu badute, egun errealitatean dialektikaren frogapen lekuko gisa zientzia natural modernoak arrazoitzat aipatzea beharturik gauden punturaino, gu, sozialista alemaniarrok, harro gaudе, Saint Simonen, Fourierren eta Owenen ondorengo izateaz ez ezik, baita Kanten, Fichteren eta Hegelen ondorengo izateaz ere.

F. Engels.
Londres, 1882ko irailaren 21a.

litikoak. Alemaniako garapen ekonomikoaren eta politikoaren mailak, berrogeigarren hamarkada hasieran gaur egun baino atzeratuagoa izanik, gehienez ere, karikatura sozialista bat edo beste erditu zezakeen (ikus *Manifestu Komunista* III. Kap. I. 'Sozialismo alemaniarra edo benetako sozialismoa'). Ingalaterran eta Frantzian sorturiko errealitate ekonomikoa eta politikoa kritika dialektiko alemaniarren menpe ezarri ondoren bakarrik lortu zitekeen emaitza eraginkor bat. Hori dela eta, ikuspuntu honetatik sozialismo zientifikoa ez da ESKLUSIBOKI alemaniarra den produktua, baizik eta gradu berean internazionala den produktua da. (Engelsen oharra)

HITZAURREA ALEMANEZKO LAUGARREN ARGITALPENARI

Suposatzen nuena, foileto honen edukiak gure langile alemaniarrei ez ziela zailtasun handirik emango nionean, bete egin da. Bat batean, 1883ko martxotik, lehen argitalpena agertu zenetik, hiru argitaraldi saldu dira, denera 10.000 aleko tiradarakin, nahiz eta sozialisten aurkako salbuespen legea bizirik zegoen, gaur egun indargabetua dagoena. Hau,aldi berean, adibide berri bat da errepresio politikoak proletalگو garaikidearena bezalako mugimendu baten aurka zer nolako ezintasuna duen frogatzen duena.

Lehen argitalpena agertu zenetik, itzulpen mordoia argitaratu da atzerriko hizkuntzetan: Pascual Martinettiren italierrazko itzulpena: *Il Socialismo utopico ed il Socialismo scientifico*, Benevento, 1883; errusierazkoa: *Razvitie nauchnago Socializma*, Ginebra, 1884; danierazkoa: *Socialismens Udvikling fra Utopi til Videnskab*, *Socialisk Bibliotek*, I Bind, Kjöbenhavn, 1885; espainola: *Socialismo utópico y Socialismo científico*, Madrid 1886; eta holandesa: *De Ontwikkeling van het Socialisme van Utopie tot Wetenschap*, Haya, 1886.

Argitaraldi honek zuzenketa txiki batzuk jasan ditu: soilik bi zatitan agertzen dira azalpen garrantzitsuagoak: lehenengo kapituluari, Saint-Simoni buruzkoa, leku gutxiegia eskaini baitzizaion Fourier eta Owenekin alderatuz, eta hirugarren kapitulu amaieran 'trusten' ingurukoa, joan den denboran berbiziko garrantzia hartu duen ekoizpen modu berria baita.

F. Engels.

Londres, 1891ko maiatzaren 12a.

HITZAURREA INGELERAZKO 1892KO ARGITALPENARI

Irakurleak aurrean duen idazlan txikia, jatorrian, obra handiago baten zatia zen. 1875 aldera, E. Dhüring doktoreak, *pri-bat-docenta* Berlineko Unibertsitatean, bat-batean eta zarata dezente atereaz sozialismora bihurtzen zela iragarri zuen eta publiko alemaniarrari aurkeztu zion, xehetasunez landuriko teoria sozialista bat ez ezik, baita gizartearen berrantolaketa-rako plan praktikoa osatu bat ere. Noski, bere aurrekariaren gainera joan zen, bereziki Marx ohoratuz, honengan isuri zituelarik bere amorruez beteriko kopak.

Hau Alemaniako Alderdi Sozialistako bi sekzioak —eisenaxarrak eta lasalleanarrak²— batu berri ziren garaian gertatu zen, modu horretan, honek indarren handitze izugarri bat ez ezik, oraindik eta garrantzi handiagoa zuen zerbait bereganatu zuelarik: indar hau guztia etsai komunaren gainean zabaltzeko aukera. Alemaniako Alderdi Sozialista potentzia batetan bihurtzen ari zen oso azkar. Baina, potentzia batean bihurtzeko, baldintzarik garrantzitsuena lortu berria zen batasuna arriskuan ez jartzea zen. Eta Dühring doktorea publikoki prest agertzen zen bere pertsonaren iguruan sekta bat eratzeko, etor-

2. *Gothako Kongresuan*, 1875eko maiatzaren 22tik 25 bitartean ospatua, Alemaniako langileen mugimenduko bi korronteak batu ziren: Langileen Alderdi sozialdemokrata (eisenaxarrak) A. Bebelek eta W. Liebknechtek zuzendua eta Langile Alemaniaren Elkarte Orokorra lassallearra. Baturiko alderdiak Langile Alemaniaren Alderdi Sozialista izena hartu zuen (1890az geroztik gaur egungo izena hartu zuen: Alemaniako Alderdi Sozialista, SPD). Horrela lortu zen langile klase alemaniarraren lerroen zatiketa gainditzea. Baturiko alderdiaren programaren proiektua, Gothako kongresuari proposaturikoa, Marxek eta Engelsek eginiko kritika gogorraz gain, Kongresuan onartua izan zen aldaketa oso txikiekin.

kizunean aparteko alderdi baten nukleoa izango zena. Ez zegoen, beraz, jaurtitzen zitzaigun eskuzorroa hartzea eta gudan aurre egitea beste erremediorik, hori oso atsegina izan ez arren.

Gainera, eginkizunak, nahiz eta oso zaila ez izan, begibistan den bezala, izugarri astuna izan behar zuen. Ongi jakina da guk, alemaniarrok, *Gründlichkeit* beldurgarri eta botretsu bat dugula, hausnartze sakon bat edo sakontasun ausnartzailer bat, deitu nahi den bezala. Gutariko batek zerbait doktrina berri bezala aurkezten duen momentuan, lehendabizi egiten duena sistema unibertsal baten forman eratzea da. Frogatu beharra dauka logikaren printzipio lehenak bezala, unibertsoaren funtsezko legeak ere, ez direla existitu betikotasun bate-tatik, azken finean, ez bada aurkitu berria izan den teoria horretara eramateko ez beste xede bategatik, hau existitzen den guztia koroatzera etorri delarik. Horri dagokionean, Dühring doktorea erabat mugaturik zegoen eredu nazionalagatik. *Filosofia-aren sistema osatu bat* alajaina —filosofia intelektuala, morala, naturala nahiz historiarena— *Ekonomia Politikoaren eta Sozialismoaren Sistema* oso bat eta, azkenik, *Ekonomia Politikoaren Historia kritikoa* bat —hiru liburuki mardul oktoboan, astunak kanpotik nahiz barrutik, argumentuz osaturiko armada bateko hiru gorputz, orokorrean aurreko filosofo eta ekonomialari guztien aurka eta bereziki Marxen aurka mobilizatuak—; egia esan, erabateko “zientziaren subertsio” saiakera. Honi guztiari aurre egin behar izan nion; gai posible guztiak jorratu behar izan nituen, denbora eta espazioari buruzko ideietatik bimetalismoraino³, materiaren eta mugimenduaren betierekotasunetik ideia moralen izaera hilkorerraino; Darwinen hautespen naturaletik etorkizuneko gizarte bateko gazterriaren hezkuntzaraino. Egia da nire aurkariaren unibertsaltasun sistematikoak aukera bat ematen zidala bere aurrean, hain aniztasun zabaleko materien inguruan Marxek eta nik mantendu genituen ideiak ordura arte egin zena baino modu koherentego batean garatzeko. Eta hori izan zen eginkizun hau egitera bultzatu ninduen arrazoi nagusia, bestalde hain eskergabea zena.

3. Bimetalismoa: sistema monetarioa, non diruaren funtzioa aldi berean bi metal monetariok betetzen baituten: urreak eta zilarrak.

Nire erantzunak, Alderdi Sozialistaren organo nagusia den Leipzigekeko *Vorwärtsean*⁴ argitaraturiko artikulu sorta batean ikusi zuen argia lehendabizi, eta liburu moduan ondoren, *Herrn Eugen Dührings Umwälzung der Wissenschaft [E. Dühring jaunak eginiko zientziaren subertsioa]* izenburupean. 1886an idazlan honen bigarren argitalpen bat argitaratu zen Zurichen.

Adiskide dudan Paul Lafarguek eskatuta, egun Lilleko Frantziako diputatuen kamaran ordezkaria dena, liburu honetako hiru kapitulu egokitu nituen foileto batetarako, berak itzuli eta argitaratu zituenak 1880an *Socialisme utopique et socialisme scientifique* izenburuarekin. Testu frantses honetatik polonierazko bertsio bat eta beste espainiar bat egin ziren. 1883an gure Alemaniako lagunek bere jatorrizko hizkuntzan argitaratu zuten foiletoa. Orduz geroztik, alemanezko testuan oinarrituz, itzulpenak argitaratu dira italierera, errusiarrera, daniarrera, nederlandera eta errumanierera. Hau da, oraingo argitalpen ingelesa kontuan harturik, foileto hau hamar hizkuntzatan zabaldu dago. Ez dut ezagutzen beste argitalpen sozialistarik, gure 1848ko *Manifestu Komunista* eta Marxen *Kapitala* barne, hainbeste alditan itzulia izan denik. Alemanian lau argitaraldi egin dira, guztira hogeit hamar mila ale.

*Marka*⁵ eranskina, Alemaniako Alderdi Sozialistaren artean Alemanian nekazal jabegoak izan zuen historiaren eta garapenaren inguruko oinarritzko nozio batzuk zabaltzeko asmoarekin izan zen idatzia. Are beharrezkoagoa egiten zen garai hartan, alderdira langile hiritarren batzea bukatzeko bidean zegoenean eta nekazal langileen eta nekazarien masez arduratzeko eginkizuna planteatzen zenean. Eranskin hau argitalpenean sartu zen kontutan hartuz, lur jabetzaren modu primitiboak, tribu teutoniko guztietan komunak, hala nola horien gainbeheraren historia, are ezezagunagoak direla Ingalaterran Alemanian baino. Testua bere jatorrizko forman utzi dut, Maxin Kovalevskinek azaldu berri duen hipotesia aipatu gabe,

4. *Vorwärts* ("Aurrera"): Alemaniako Langile Alderdi Sozialista organo nagusia, Leipzigen argitaratu zen 1876/1/1etik 1878/7/7 bitarte. Engelsen *Anti Dühring* idatzia egunkari horretan argitaratu zen 1877/1/3etik 1878/7/7 bitarte.

5. Argitalpen honetan ez da txertatzen F. Engelsen Marka lana.

zeinaren arabera Markako kideen artean laborantzarako eta artzantzarako lurren banaketaren aurretik, lur hauen laborantza komuna egon baitzen, familia komunitate patriarkal handi baten eskutik burutua, honek hainbat belaunaldi hartu zituelarik (adibide bezala balio dezake oraindik gaur egun ere existitzen den hegoeslaviarren *zadruga*). Gero, komunitatea hazi eta ekonomia komunean administratu ahal izateko handiegia egin zenean, lur banaketa jazo zen⁶. Litekeena da Kovalevskik arrazoi izatea, baina auzia oraindik *sub iudice* dago.

Lan honetan erabiliriko ekonomiako terminoak bat datoz, berriak diren heinean, Marxen *Kapitaleko* ingelerazko argitalpenekoekin. “Merkataritza-ekoizpen” bezala izendatzen dugu objektuak ez direnean ekoizleen erabilerarako bakarrik ekoizten, baidiz eta baita trukearen xedeetarako ere, hau da, *merkantzia gisa*, eta ez erabilera balio gisa. Fase hori trukera bideraturiko ekoizpenaren hastapenetatik egungo tipoetaraino doa; baina bere erabateko garapena ekoizpen kapitalistan bakarrik lortzen du, hau da, kapitalistak, ekoizpen baliabideen jabe izanik, soldata baten truke enplegatzen dituenean langileak, beren lan indarra salbu ekoizpen baliabide oroz gabeturiko gizakiak, eta produktuen ekoizpen kostuaren gainetik salmenta prezioaren soberakina poltsikoratzen duenean. Erdi Aroaz geroztiko ekoizpen industriaren historia hiru alditan banatzen dugu: 1) industria artisaua, artisau maisu txikiez osatua zenbait ofizialekin eta ikaslerekin, non langile bakoitzak artikulu osoa eratzen baituen; 2) manufaktura, establezimentu zabal batean langile kopuru handiago bat biltzen denean, artikulu guztia lan banaketaren printzipioaren arabera landuaz, non langile bakoitzak operazio partzial bat bakarrik burutzen baituen, honela produktua ondoz ondo denen eskuetatik igarotzen denean bakarrik egoten delarik amaituta; 3) industria modernoa, produktua indar eragileaz mugituriko makinaren bidez fabrikatzen denean eta langilearen lana mekanismoaren eginkizunak ikuskatzera eta zuzentzera mugatzen dena.

6. Engels M. Kovaleskiren lanei buruz ari da, *Tableau des origines et de l'évolution de la famille et de la propriété (Familiaren eta jabetzaren jatorri eta eboluzioari buruzko entsegu)* 1890an argitaratua Estokolmon eta *Pervobytnoye pravo (Zuzenbide primitiboa)* 1.go faszikulu, *Gensa*, Mosku, 1886.

Badakit oso ondo liburu honen edukiak publiko britainiarren zati handi bat suminduko duela. Baina guk, kontinentalok, ardurarik txikiena agertu izan bagenie britainiarren “errespetagarritasunezko” aurreiritziei, hau da, filisteismo britainiarrari, atera garena baino askoz okerrago aterako ginatkeen. Idazlan honek guk “materialismo historiko” deitzen duguna defendatzen du, eta irakurle britainiarren gehiengo handi baten belarrietan materialismo hitza oso hitz itsusia da. Agian “agnostizismoa” esan liteke, baina materialismoa alde guztietatik onartezina da. Eta hala ere, materialismo moderno ororen jaioterri primitiboa, XVII. mendetik aurrera, Ingalaterra da.

“Materialismoa Britainia Handiko sorterriko semea da. Jada Duns Eskotokoa eskolastiko britainiarrak materiak ez ote zezakeen pentsatu galdetzen zion bere buruari.

“Mirari hau gauzatua izan zedin, ahalguztidun jainkotiarrean babestera jotzen zuen, hau da, teologia bera behartzen zuen materialismoa predikatzerara. Duns Eskotokoa, gainera, nominalista zen. Nominalismoa⁷ oinarrizko elementu bezala ageri da materialista ingelesetan, eta orokorki, materialismoaren lehen adierazpidea da.

“Materialismo ingelesaren benetako aita Bacon da. Bera-
rentzat, zientzia naturalak dira benetako zientzia, eta fisika
esperimentalak, zientzia naturalen zatirik garrantzitsuena.
Anaxagoras bere homeomeriekin⁸ eta Demokrito bere atomoe-
kin dira maiztasunez aipatzen dituen autoritateak. Bere teo-

7. Nominalistak: Erdi Aroko filosofiaren tendentzia baten ordezkariak, zeinak kontzeptu generiko orokorrak izentzat hartzen baitzituen, gizakien pentsamenduak eta hizkuntzak sortuak eta errealitatean existitzen ziren objektu solteak izendatzeko baino balio ez zutenak. Erdi Aroko erre-
realisten aurka, nominalistek ukatu egiten zuten kontzeptuen existentzia
prototipo gisa eta gauzen iturri sortzaile gisa. Modu horretan, erre-
realitatearen lehen mailako izaera eta kontzeptuaren bigarren mailakoa ai-
tortzen zuten. Zentzu honetan, nominalismoa Erdi Aroan materialismo-
aren lehen adierazpidea izan zen.

8. Homeomeriak: partikula ñimiñoak kualitatiboki determinatuak eta in-
finituki zatigarriak. Anaxagorasek pentsatzen zuen, homeomeriek osa-
tzen zutela existitzen den guztiaren hasierako oinarria eta hauen kon-
binazioek ematen ziotela jatorria gauzen aniztasunari. Aristotelese-
k sorturiko hitza, Anaxagorasek “haziez” (spermata) hitz egiten baitzuen.
Gauza guztien osagaiak dira, proportzio ezberdinetan.

riaren arabera, zentzumenak hutsezinak dira eta ezagutza guztien iturria osatzen dute. Zientzia guztia esperientzian oinarritzen da eta zentzumenek emandakoari ikerketa metodo arrazional bat aplikatzean datza. Indukzioa, analisisa, konparaketa, behaketa eta esperimendazioa dira metodo arrazional honen funtsezko baldintzak. Materiaren berezko propietateen artean, lehenengoa eta garrantzitsuena mugimendua da, ez mugimendu mekaniko eta matematiko gisa bakarrik ulertuta, baizik eta gehiago bulkada moduan, bizi izpiritu moduan, tentsio moduan, materiaren Qual* moduan —Jakob Böhmeren esamoldea erabiltzearen—.

“Azken horren forma primitiboak indar sustantzial biziak dira, indibidualizatzaileak, berari atxikirikoak, ezberdintasun espeziifikoak sortzen dituzten indarrak.

“Baconen, lehen sortzaile den heinean, materialismoak oraindik, modu inozente batean, garapen aldeanizdunaren haziak gordetzen ditu. Materiak irribarre egiten dio dizdira poetikoki sensorial batekin gizateri guztiari. Aldiz, dokrina aforistikoa izatez oraindik inkontsekuentzia teologiko mordoan lapiko bat da.

Ondorengo garapenean, materialismoa aldebakarrekua bihurtzen da. Hobbeseke Baconen materialismoa sistematzatzen du. Sensorialtasunak bere dizdira galtzen du eta geometraren sensorialtasun abstraktuan bihurtzen da. Mugimendu fisikoa mugimendu mekanikoaren edo matematikoaren baitan sakrifikatzen da, geometria funtsezko zientzia bezala aldarrikatzen da. Materialismoa misantropo bihurtzen da. Bere eremu propioan izpiritu misantropiko gordinaren aurka borrokatu ahal izateko, materialismoa beharturik dago bere mamia gaitzestera eta aszeta bihurtzera. Entitate intelektual bezala aurkezten da, baina gogamenaren logika gupidagabea ere garatzen du.

* *Qual* hitz joko filosofiko bat da. *Qualek*, literalki, tortura esan nahi du, edozein ekintza burutzera bultzatzen duen oinazea. Aldi berean, Böhme mistikoak, alemanezko hitzari *qualitas* (kalitatea) termino latinoaren zerbait transferitzen dio. Bere *Quala*, kanpotik eragindako oinazearen oposizioz, printzipio aktibo bat zen, bere eraginaren mende ezarritako gauzaren, erlazioaren edo pertsonalitatearen berezko garapenetik jaioa eta, aldi berean, garapen hau eragiten zuena. (Engelsen oharra argitalpen ingeleserako)

“Zentzumenek ematen badizkiote gizonari ezagutza guztiak —argumentatzen du Hobbesek Baconetik abiatuz— kontzeptuak, ideiak, irudikapen mentalak, etab., ez dira gutxi gora behera bere forma sentsorialetik gabeturik dauden mudu fisikoko izpirituak baino. Zientziak ezin du egin izpiritu hauei izena eman ez besterik. Izen bera, izpiritu askori jar daiteke. Izenen izenak ere egon litezke. Baina kontraesana litzateke, alde batetik, ideia guztien jatorria zentzumenen munduan bilatu nahi izatea, eta, bestetik, hitz bat hitz bat baino gehiago dela baieztatzea, irudikatzen ditugun izaki beti indibidualez gain, izaki unibertsalak existitzen direla baieztatzea. Sustantzia gorputzgabe bat gorputzik gabeko gorputz baten zentzugabekeria bera da. Gorputz, izate eta sustantzia, ideia erreal bat eta bera da. *Ezin da bereizi pentsamendua pentsatzen duen materialtik*. Bera da aldaketa guztien subjektua. “Infinitu” hitzak ez du zentzurik, ez bada gure izpirituak amaierarik gabe gehitzeko duen gaitasunaren adierazpen bezala. Materiala dena bakarrik denez hautemangarria, jakin daitekeena, Jainkoaren existentziaz ez dakigu ezer. Nire existentzia bakarrik da ziurra. Pasio gizatiar oro mugimendu mekaniko bat da, hasi eta bukatu egiten dena. Bulkadaren objektuak dira ongia. Gizona naturaren lege berdinaren menpe agertzen da. Boterea eta askatasuna berdin-berdinak dira.

“Hobbesek Bacon sistematizatu zuen, baina froga berririk gehitu gabe bere funtsezko printzipioari, hots, ezagutzek eta ideiek beren jatorria zentzumenen munduan dutela.

“Lockek, bere *Essay on the Human understanding* [Giza addimenari buruzko entsegua] idazlanean, Baconen eta Hobbesen printzipioa funtsetan du.

“Hobbesek materialismo baconiarraren aurreiritzi jainkotiarrak suntsitu zituen bezala, Collinsek, Dodwellek, Cowardek, Hartleyk, Priestleyk, etab.ek, Lockeren sentsualismoaren azken hesi teologikoa eraitsi zuten. Deismoa⁹, materialistentzat

9. Deismoa: doktrina filosofiko-erlijiosoa non Jainkoa munduaren lehen kausa arrazional gisa aitortzen den. Baina ukatu egiten du bere eskuhartzeari naturaren eta gizartearen bizitzan. Batez ere Ingalaterran garatu zen XVIII. mendean, batik bat lehen empirista guztiei esker (Collins, Toland, Locke eta Hume).

behintzat, erlijioaz libratzeko erabiltzen den modu eroso eta erraz bat besterik ez da”^{*}.

Honela mintzatzen zen Karl Marx materialismo modernoren jatorri britainiarren inguruan hitz egitean. Eta gaur egungo ingelesei ez badie grazia askorik egiten Marxek beren aintzindariari egiten dien omenaldi honek, asko sentitzen dugu. Baina ukaezina da, hala eta guztiz ere, Bacon, Hobbes eta Locke izan zirela Frantziako materialisten eskola bikain haren aitak, alemaniarrek eta ingelesek Frantziari itsasoz eta lurrez jasanarazi zizkioten porrot guztiez gain, XVIII. mendea nagusiki mende frantsesa egin zutela; eta hori, mende bukaera koroatu zuen Frantziako iraultza hura baino askoz ere lehenago, oraindik ere bere emaitzak Ingalaterran eta Alemanian egokitzen saiatzen ari garela. Ezin uka daiteke. Mendearren erdialdera atzerritar kulturadun bat Ingalaterran jartzen bazen bizitzen, gehien harritzen zuena erdi mailako klase ingeles “errespetagarriaren” santukeria eta inozotasun erlijiosoan zen —horrela ulertu behar zuen berak—. Garai haietan, gu guztiok materialistak ginen, edo, gutxienez, libre-pentsalari oso aurreratuak, eta pentsaezina iruditzen zitzaigun Ingalaterrako ia gizon jakitun guztiek ezinezko mirari sorta batean sinestea, eta Buckland eta Mantell bezalako geologo batzuk ere, Genesiko mitoei bete-betean ez ematearren, beren zientziatarako gertakari batzuk desitxuratzea; pentsaezina zen, materia erlijiosoetako bere ulermena erabiltzera ausartuko zen jendea bilatzeko, sektore ez ilustratueta jo beharko zenik, garai haietan deitzen zitzaien moduan, “garbitzen ez direnen tropeletara”, langileetara eta bereziki sozialista owendarretara jo beharko zenik.

Baina geroztik hona, Ingalaterra “zibilizatu” egin da. 1851ko Erakusketa¹⁰ irlako eskusibismo ingelesaren herio kolpea izan zen. Ingalaterra, piskanaka, internazionalizatzen joan zen edariari eta janariari dagokionean, ideiei eta ohiturei dagokionean, halako punturaino ezen, nahiago nukeela nik, Ingala-

* K. Marx und F. Engels, “Die heilige Familie”, Frankfurt am M., 1845, S. 201-204. (Engelsen oharra)

10. Munduko lehenengo erakusketa komertzial eta industrialari buruz ari da, 1851eko maiatzetik urrira arte Londresen ospatu zena.

terran kontinenteko ohitura batzuk aurkitu duten bezainbeste harrera orokorra aurkitzea kontinentean ingelesen ohitura batzuk. Ziurtatu daitekeena da, ensaladarentzako olioaren zabalkuntza (1851 aurretik aristokraziak bakarrik ezagutzen zuena), materia erlijiosoan eszeptizismo kontinentalaren zoritxarreko zabaltze batekin lagundua izan zela, honela agnostizismoa, errespetagarritasunari dagokionean, nahiz eta oraindik ez den Eliza aglikanar ofiziala bezain elegantetzat hartzen, ia sekta baptista eta okuparen pare egotearen muturreraino iritsi delarik, nola ez, Salbazioko Ejertzitza¹¹ baino maila bat gorago. Ezin diot pentsatzeari utzi, fedegabetasunaren aurrerapen hauek beren arima guztiaz deitoratzen eta madarikatzen dituzten horietako askorentzat, kontsolagarria izango dela jakitea ideia berri hauek ez dutela jatorri atzerritarra, ez dutela zirkulatzen *Made in Germany* markarekin, Alemanian egina, egunero behar diren beste hainbat artikulu bezala, baidetik eta, aldiz, jatorri zahar eta ohoragarri ingelesa dute eta orain dela berrehun urteko beraien egile britaniarrak dezente haratago joaten ziren euren egungo oinordeko direnak baino.

Hain zuzen ere, zer da bada agnostizismoa materialismo lotsati bat baino? Naturaren kontzepzio agnostikoa erabat materialista da. Mundu natural guztia legez gobernatua dago eta erabat bazterten du kanpoko influentzia oro. Baina gu, gehitzen du tentuz agnostikoak, ez gaude ezagutu dezakegun mundutik kanpoko izaki goren baten existentzia frogatu edo errefusatu ahal izateko moduan. Erreparo horrek izateko arrazoia Laplaceren garaian izan dezake, Napoleonek astronomo handiaren *Mécanique Céleste*¹² ea zergaitik ez zen munduaren sortzailea aipatu ere egiten galdetu zionean, hitz harro hauekin erantzun baitzion: “*Je n’avais pas besoin de cette hypothèse*” [ez nuen hipotesi honetara jotzeko beharrik]. Bai-

11. Salbazioko Ejertzitza: erakunde erlijioso-filantropikoa, 1865ean Ingalaterran sortua eta 1880ean eredu militar batean berrantolatua (hortik bere izena). Burgesiak babestua neurri handi batean, erakunde honek herrialde askotan benefizentziako instituzioen sare bat sortu zuen, langile masak beren esplotatzaileen aurkako borrokatik apartatzeko helburuarekin.

12. P. Laplace, *Traité de mécanique céleste* (Mekanika zerutiarrari buruzko tratatua), I—V Bol., Paris, 1799-1825.

na gaur egun, bere kaxa garapenean dagoen unibertsoaz dugun ideiak, ez dio lekurik uzten unibertsoaren ez sortzaile bati ezta gobernatzaile bati ere; eta existitzen den guztitik aparte kokaturiko izaki goren baten existentzia onartu nahiko bage-nu, logikaren kontraesan batetan eroriko ginatke, eta gaine-ra, iruditzen zait, merezi ez duten iraina egingo geniekela jen-de fededunaren sentimenduei.

Gure agnostikoak onartzen du baita ere gure ezagutza guz-tiak zentzumenen bidez jasotzen ditugun komunikazioetan oi-narritzen direla. Baina, nola dakigu —gehitzen du— gure zentzumenek benetan beraien bidez jasotako objektuen irudi zehatz bat transmititzen digutela? Eta ondoren esaten digu, gau-zez eta hauen propietateez hitz egiten duenean, egia esan, ez dela gauza hauei buruz ari ezta beraien propietateei ere, ezin baitezake hauen inguruan ezer ziurrik jakin, baizik eta bere zentzumenetan uzten dituzten inpresioei buruz bakarrik ari dela. Hau, egia esan, argudiatze simple baten bidetik erantzuteko zaila ematen duen ikusmolde bat da. Baina gizakiek, arra-zoitu aurretik, ekintzara jo zuten. *Im Anfang war die That*¹³. Eta zailtasuna giza hausnarketek asmatu zutena baino askoz lehenago ebatzi zuen gizakien ekintzak. *The proof of the pud-ding is in the eating*¹⁴. Gauza hauek, beraietan hautematen ditugun ezaugarrien arabera, geure erabileran aplikatzen ditu-gun unetik, geure zentzumenen hautemateak froga hutsezin batenpean ezartzen ditugu beraien zehaztasunari edo faltsu-tasunari dagokionean. Hautemate hauek faltsuak balira, da-gokien gauza hori erabiltzeko aukerari buruz dugun judizioa ere faltsua litzateke, eta hori erabiltzeko gure saiakerak nahi-taez porrot egin beharko luke. Baina nahi izan dugun xedea lortzen badugu, gauzak beragandik eratzen dugun ideiarekin bat egiten duela ikusten badugu, erabiltzean ematen diguna uste genuena bada, *muga hauen barnean*, gauza horren eta bere ezaugarrien inguruan ditugun pertzepzioak gugandik kanpo existitzen den errealitatearekin bat egiten duten froga positiboa edukiko dugu. Aldiz, akats bat egin dugula ohartzen

13. “Hasieran ekintza zen”. Goethe, *Fausto*, I. zatia, III. eszena.

14. “Budina janez dastatzen da”.

bagara, orokorrean ez dugu denbora asko pasatzen gure hutsegitaren kausak aurkitzeko; gure ekintza oinarritzen zen pertzepzioa osagabea eta azalekoa zenaren ondoriora heltzen gara, edo gauzen errealtateak justifikatzen ez zuen modu batean zegoela beste pertzepzio batzuen emaitzekin loturik; hau da, arrazonamendu akastuna deitzen duguna egingo genukeen. Gure zentzumenak trebatu eta ondo erabiltzen ditugun bitartean eta gure jarduteko modua ongi eginiko eta ongi erabilitako behaketek ezartzen dituzten mugetara egokitzen dugun bitartean, ikusiko dugu gure ekintzen emaitzek ematen dutela geure pertzepzioek hautemandako gauzen izaera objektiboarekin duten bat etortzearen froga. Ezta kasu batean ere, gaur egun arte dugun esperientziaren arabera, ez gara beharturik egon ondorioztatzeraz zientifikoki kontrolaturiko hautemate sensorialek gure garunean izatez errealtateetik ezberdinak diren kanpoko munduko ideiak sortzen dituztela, edo kanpoko munduaren eta honen inguruan gure zentzumenek transmititzen dizkiguten hautemateen artean jaiotzetiko bateraezintasun bat dagoela tarteko.

Baina, hona iristean, agnostiko neokantiarra aurkezten da eta honela esaten digu: Bai, agian gauza baten ezaugarriak zehazki jaso ahal izango ditugu, baina ezingo dugu inoiz bere baitako gauza geureganatu inolako prozesu sensorialen edo diskurtsiboren bidez. “Bere baitako gauza” hori gure ezagupe-
nen aukeretatik haratago dago. Denbora asko da horri Hegelek erantzun ziola: gauza baten propietate guztiak ezagutzen ditugun momentutik, gauza bera ere ezagutzen dugu; gauza hori gugandik kanpo existitzen dela bakarrik geratzen da zutik, eta gure zentzumenek hori eman izan zigutenean, “bere baitako gauzaren” azken ondarrak ere geureganatu ditugu, Kanten *Ding an sich* famatu eta ezagutezin hura. Gaur egun, honi soilik gehitu diezaiokegu, Kanten garaian, gauza naturalei buruz zegoen ezagutza bazela hauetariko bakoitzaren atzean “bere baitako gauza” misterioitsu bat susmatzeko bezain partziala. Baina, orduetik hona, bereganaezinak ziren gauza hauek bereganatuak izan dira, aztertuak eta, are gehiago, zientziaren aurrerapen erraldoiek bata bestearen ondoren erreproduzituak. Eta, gauza bat *ekoitzi* dezakegun unetik, ez dago inolako arrazoirik ezagutezin moduan hartzeko. Gure

mendearen lehen erdialdeko kimikarentzat, substantzia organikoak gauza misterioitsuak ziren. Gaur egun, bata bestearen atzetik fabrikatzen ikasi ditugu jada, elementu kimikoen bidez eta prozesu organikoen laguntzarik gabe. Kimika modernoak diosku, edozein gorputzen osaera kimikoa ezagutzen den bezain laster, gorputz hau osatu daitekeela bere elementuetatik abiatuz. Gaur egun, urrun gaude oraindik goi mailako substantzia organikoen, gorputz albuminoideen, eraketa zehazki ezagutzetik, baina ez dago inolako arrazoirik, mende batzuk barru bada ere, ezagutza hau ez lortzeko eta horren laguntzaz albumina artifiziala fabrikatu ahal izateko. Eta lortzen dugunerrako, bizitza organikoa ekoiztea ere lortua izango dugu, zeren eta bizitza, bere forma baxuenetik altueneraino, ez da gorputz albuminoideen existentziako modalitate normal bat baino.

Baina, erreparatu formal hauek egin ondoren, agnostikoak, sakonean den materialista sutsuak bezala hitz egin eta jarduten du. Esan lezake: *guk* dakigunaren arabera, materia eta mugimendua edo, orain esaten den bezala, energia, ezin daiteke ez sortu ezta deuseztatu ere, baina ez daukagu frogarik biak garai urrun eta ezezagun batean sortuak izan diren egiaztatzeko. Eta, kasu jakin batean, aitorten hori bere aurka itzultzen saiatzen bazarete, ahalik eta azkarren ordena mantentzeko ohartaraziko zaitu eta isiltzeko aginduko dizu. *In abstracto* izpiritualismoaren aukera aitortzen badu ere, *in concreto* ez du horretaz ezertxo ere jakin nahi. Esango dizue: dakigunagatik eta jakin dezakegunagatik, ez da unibertsoaren sortzailerik ez gobernatzailerik existitzen; guri dagokigunean, materia eta energia sortezinak bezain suntsiezinak dira; guretzat pentsamendua energia forma bat da, garunaren funtzio bat. Dakigun guztiak ondorio batetara eramaten gaitu; mundu materiala lege aldagaitzez, eta abarrez, eta abarrez, gobernatuak dagoela. Beraz, zientzia gizona den neurrian, zerbait *dakien* neurrian, agnostikoa materialista da; bere zientziaren mugeetatik kanpo, menderatzen ez dituen eremuetan, bere ezjakintasuna grezierara itzultzen du eta agnostizismoa deitzen dio.

Dena den, ziurta daitekeena da, ni agnostikoa izango banitza, ezingo niokeela liburuxka honetan zirriborrotzen den historiaren ikuspegiari “agnostizismo historiko” izena eman. Sentimendu erlijiosoa duen jendeak barre egingo lidake, agnosti-

koek, haserreturik, iseka egin nahi al nien galdetuko lidakete. Horrenbestez, espero dut “errespetagarritasun” britainiarra, alemaniarrez filisteismo deritzona, ez dela gehiegi haserreturiko ingelesez, beste hainbeste hizkuntzatan bezala, “materialismo historiko” izena erabiltzeagatik historia unibertsalaren ildoen ikusmolde hau izendatzeko, izan ere, ikusmolde horrek gertaera historiko garrantzitsu guztien indar eragilea gizartearen garapen ekonomikoan ikusten baitu, ekoizpen eta truke moduen eraldaketetan, horren ondorioz ematen den gizartearen klase ezberdinetako zatiketan eta klase hauen elkarren arteko borrokan.

Kontuan hartuko zait, agian, gogoeta hau, batez ere materialismo historikoa errespetagarritasun britainiarrarentzat erabilgarria ere izan daitekeela frogatzen badut. Jada aipatu dut, orain dela berrogei edo berrogeita hamar bat urte, Ingalaterran bizitzen jartzen zen atzerritar kulturaduna, ezatseginenez harriturik geratzen zela erdi mailako klase ingelesaren saildukeria eta jainkojalekeriarekin, honi nahitaez horrela iritzi behar baitzion. Orain, frogatuko dut garai hartako erdi mailako klase ingeles errespetagarria ez zela, hala eta guztiz ere, atzerritar adimentsuak uste zuen bezain inozoa. Bere joesa erlijiosok beren azalpena zuten.

Europa Erdi Arotik atera zenean, goraka zihuan hirietako erdi mailako klasea zen bere elementu iraultzailea. Aitortu zitzaion maila, Erdi Aroan erregimen feudalarren barnean eskuratua, jada estuegia zen zeukan zabalpen indarrarentzat. Erdi mailako klase honen, *burgesiaren*, garapen askea ez zen jadanik bateragarria sistema feudalarrekin; honek ezinbestean erori egin behar zuen.

Baina feudalismoaren erdigune internazional handia Eliza katoliko erromatarra zen. Hark batzen zuen Mendebaldeko Europa feudalizatua, zituen barne-gerra guztiez gain, batasun politiko handi batean, kontrajarria nola greziar mundu zismatikoa errentzat, hala mundu mahometarrarentzat ere. Instituzio feudalak sagaratze jainkotiarraren aureolaz inguratu zituen. Hark ere, bere hierarkia eredu feudalean oinarriturik altxa zuen, eta, azken batean, bera zen jauntxo feudal guztietan handiena, gutxienez, mundu katolikoko lur jabetza guztiaren herena baitzeukan. Feudalismo sekularraren aurka herri ba-

koitzean eta eremu ezberdinetan borrokatu ahal izan baino lehenago, elkarte nagusi sakratu hau suntsitu beharra zegoen.

Urratsez urrats, burgesiaren gorakadarekin, zientziaren birsortze handia ari zen ematen. Berriz ere ari ziren kultibatzen astronomia, mekanika, fisika, anatomia eta fisiologia. Burgesiak, bere ekoizpen industrialaren garapenerako, gorputz fisikoaren propietateak eta naturako indarren funtzionamendua ikertuko zituen zientzia bat behar zuen. Baina ordura arte zientzia ez zen Elizaren zerbitzari apala besterik izan, ez zitzaion uzten fedea ezarritako mugak pasatzen; hitz batean, zientzia ez beste edozer gauza zen. Orain, zientzia elizaren aurka matxinatzen zen; burgesiak zientzia behar zuen eta berarekin batera jauzi zen matxinadara.

Hemen, gorakadan zihoan burgesiak ezarritako erlijioarekin ezinbestean talka egin behar zuen puntuetako bi baino ez ditut ukitu; baina hori nahikoa izango da honakoa frogatzeko: lehenik, Eliza katolikoaren boterearen aurkako borrokan zuzenean interesatuen zegoena hain zuzen ere burgesia zela eta, bigarrenik, garai hartan feudalismoaren aurkako borroka oro janzkera erlijioso batekin jantzi behar zela eta lehenik eta behin Elizaren aurka zuzendu behar zela. Baina unibertsitateek eta hirietako negozio gizonak jaurti zuten gerra oihuak, ezinbestean oihartzun indartsua aurkitu behar zuen, hain zuzen ere horrela aurkitu zuen moduan, landako masen artean, nekazarien artean, alde guztietan beren jauntxo feudal elizkoien eta sekularren aurka borroka gogor batean buru belarri baitziharduten, borroka horretan beren existentzia garbitzen zutelarik.

Europako burgesiak feudalismoaren aurka burutu zuen kanpaina handia, hiru bataila handi erabakigarrietan amaitu zen.

Lehenengoa Erreforma protestante alemaniarra deritzoguna izan zen. Elizaren aurkako Luteroren matxinada oihuari bi altxamendu politikok erantzun zioten; lehena, noblezia baxuarena, Franz von Sickingen buruzagi zuena, 1523an, eta ondoren nekazal gerra handia, 1525ean. Biak zapalduak izan ziren, bereziki, borrokan interes gehien zuen alderdiaren, hirietako burgesiaren, erabakitzeko kemen faltagatik; hemen ezin ditugu erabakitasun falta horren kausak aztertu. Une hartatik aurrera, borrokak okerrera egin zuen, tokian tokiko printzeen eta enperadorearen botere zentralaren arteko liskarretan ero-

riz, ondorio gisa Alemania Europako nazio politikoki aktiboen kontzertutik berrehun urtez ezabatuz. Egia da Erreforma luterarrak erlijio berri batetara eraman zuela; hain zuzen ere monarkia absolutuak behar zuten horretara. Luteranismoa apenas bihurtu ziren bezain laster, Alemania ipar-ekialdeko nekazariak gizon libre izatetik glebaren jopu izatera degradaturik ikusi zuten euren burua.

Baina, Luterok porrot egin zuen tokian, Kalbinok arrakasta izan zuen. Dogma kalbinista garaiko burges adoretsuenekin bat egokitzen zen. Adierazpide erlijioso bat zen bere predestinazioaren doktrinaren arabera, mundu komertzialean, lehiaren munduan, arrakastak eta porrotak ez daude banakoaren jarreraren edo gaitasunen baitan, baizik eta beragandik independenteak diren baldintzetan. “Gailentzen dena, ez da gizakiaren nahimena edo ekintza, baizik eta miseriakordia”, indar ekonomiko gorenen baina ezezagunenen miseriakordia. Eta hau inoiz baino egia biribilagoa zen iraultza ekonomikoen garai batean, non erdigune eta bide komertzial zahar guztiak beste berri batzuek ordezkatzeko zituzten, non munduari Amerika eta India irekitzen zitzaizkion eta, non balantzaka zebiltzan eta hondoa jotzen zuten fedezko artikuluko ekonomiko sakratuek: errearen eta zilarraren balioek. Gainera, Eliza kalbinistaren erregimena erabat demokratikoa eta errepublikarra zen: nola jarrai zezaketen mundu honetako erreinuek erregeen, gotzainen eta jauntxo feudalen menpekoak izaten, Jainkoaren erreinua errepublikanizatu egin zenean? Luteranismo alemaniarra printze txikien eskuetan tresna otzan bat bihurtu bazen, kalbinismoak errepublika bat sortu zuen Holandan eta alderdi errepublikar indartsuak Ingalaterran eta, batez ere, Eskozian.

Kalbinismoan, bere borrokako teoria burgesiaren bigarren matxinadarekin geratu zen amaiturik. Matxinada hau Ingalaterran eman zen. Hirietako burgesiak jarri zuen abian, baina landako barrutietako erdi mailako nekazariak izan ziren (*yeomanry*) garaipena aurrera atera zutenak. Gauza bitxia da: burgesiaren hiru iraultza handietan nekazariak dira borrokarako tropak hornitzen dituztenak, eta bera da baita ere, garaipena eskuratu ondoren, hain zuzen ere garaipen horren ondorio ekonomikoenatik, nahitaez lur jota ateratzen den klasea. Cromwell eta ehun

urte beranduago, Ingalaterrako *yeomanry*a ia desagertua zegoen. Dena den, *Yeomanry* horren eta hirietako elementu *plebeioen* esku-hartzerik gabe, burgesiak ezin izango zuen inoiz borroka hura amaierako garaipenera bideratu, ezta Carlos I.a urkamendira eraman ere. Burgesiak, ongi helduta zeuden garaipen fruituak poltsikoratu zitzaizkien, horiek bakarrik baziren ere, beharrezkoa izan zen iraultza bere helmugatik askoz haratago eramatea: hain zuzen ere 1793an Frantzia eta 1848an Alemanian gertatuko zen bezala. Badirudi hori, egia esan, gizarte burgesaren garapena burutzen duen legeetako bat dela.

Gehiegizko jarduera iraultzaile horren ondoren, erreakzio saihestezina etorri zen jarraian, era berean, askogatik gainditu zuelarik bere helburua. Hainbat zalantzen ondoren, lortu zuen azkenik grabitate-zentro berria finkatzea,aldi berean, abiapuntu berria bihurtu zelarik. Historia ingelesaren aro handia, filistearrek “matxinada handia” izendatzen dutena, eta horren jarraian etorri ziren borrokak, 1689ko pasarte erlatiboki hutsalean iritsi ziren beren errematera, historialari liberalek “iraultza ospagarriaren”¹⁵ izenarekin adierazten dutena.

Abiapuntu berria trantsizio bat izan zen, goraka zihotan burgesiaren eta lurjabe handi zaharren artean. Horiek, nahiz eta garai hartan gaur egun bezala aristokrazia izenez ezagutzen ziren, jada denbora luzez zeuden Luis Felipe askoz ere beranduago Frantzia izango zena bilakatzeko bidean: nazioko lehen burgesetan. Ingalaterraren zorte onerako, antzinako baroi feudalek elkar garbitu zuten bata bestea Bi Arrosen¹⁶ gerran.

15. Historiografia burges ingelesak “iraultza ospagarria” 1688ko estatu kolpeari deitzen dio. Horren bidez Ingalaterran Estuardo dinastia uzkaile zen eta monarkia konstituzionala ezarri zen (1689) Guillermo de Orange buru zuena eta aristokrazia lurjabearen eta burgesia handiaren konpromisoan oinarritzen zena.

16. Bi Arrosen gerra (1455-1485): tronua lortzeko borrokatzen zuten bi familia feudal ingelesaren arteko guda: York sendia, beraien armarrarian arrosa zuri bat irudikatzen zen, eta Lancaster familia, beraien armarrarian arrosa gorri bat zuten. Yorken inguruan Hegoaldeko jauntxo feudalen zati handi bat (ekonomikoki garatuagoak), zaldunak eta hiritarrak biltzen ziren; Lancaster sendia Iparraldeko konderrietako aristokrazia feudalak babesten zuten. Gudak familia feudal zaharren ia erabateko sarraskia eragin zuen eta Tudortarren dinastia berria tronura igo zenean bukatu zen, absolutismoa ezarri zuelarik Ingalaterran.

Hauen ondorengoak, nahiz eta gehienak familia zahar berberren leinukoak izan, alboko linea hain urrunduetatik zetozen, ezen elkarte erabat berria osatzen zutela; beraien ohiturek eta joerek askoz ere gehiago zuten burgesetik feudaletik baino; oso ongi ezagutzen zuten diruaren balioa eta segituan ekin zioten beren lurren errentak igotzeari, hauetatik ehundaka maizter txiki botaz eta ardi sailez ordezkatzuz. Enrique VII.ak burges lurjabeen masa berri bat eratu zuen Elizaren ondasunak oparitzuz eta xahutuz; eta emaitza berdinetara eraman zuten lur jabetza handien konfiskazioek ere, XVII. mende bukaera arte etenik gabe gertatu zirenak, gero norbanako erdi edo osoki arrotzei entregatzeko. Hori dela eta saiatu zen “aristokrazia” ingelesa, Enrique VII.az geroztik, ekoizpen industrialaren garapenaren aurka jartzetik urrun, horretatik probetxua ateratzen. Gainera, lur jabe handien zati bat prest agertu zen une oro, helburu ekonomikoengatik eta politikoengatik, burgesia industrialeko eta finantzarioko buruzagiekin kolaboratzeko. 1689ko transakzioa lortzea, beraz, ez zen zaila izan. Garaikur politikoak —karguak, ukondoak, soldata handiak— landako aristokraziari errespetatu zitzaizkion, erdi mailako klase finantzarioaren, industrialaren eta merkatariairen interes ekonomikoak ongi defendatzeko baldintzarekin. Eta interes ekonomiko hauek baziren jadanik garai haietan behar bezain besteko indartsuak; horiek ziren azken batean politika nazionalaren ibilbideak trazatzen zituztenak. Egon zitezkeen liskarrak xehetasunen inguruan, baina oligarkia aristokratak ongi zekien zenbateraino zegoen loturik bere oparotasun ekonomikoa burgesia industrialaren eta komertzialaren oparotasunarekin.

Momentu horretatik aurrera, burgesia Ingalaterrako klase menperatzaileen partaide bilakatu zen, xumea baina aintzartozat hartua. Haiekin guztiekin tartekatzen zuen herritarren masa langile zabala zapaldurik mantentzeko interesa. Merkataria edo fabrikatzaileak, bere menpekoaren aurrean, bere langileen edo morroi-neskameen aurrean, ugazabaren lekua hartzen zuen, edota, orain dela gutxi arte Ingalaterran esaten zen bezala, bere “nagusi naturalaren” lekua. Ahal zen lan kopuru handiena eta kalitate hoberenekoa zukatu behar zien; hori lortzeko, otzantasun komenigarri batean heziak izan behar zuten. Pertsonalki, gizon erlijiosoa zen; bere erlijioak eman

zior erregea eta jauntxoak borrokatu zitueneko bandera; segituan aurkitu zituen erlijio horrek eskaintzen zizkion baliabideak ere, bere menpeko naturalen izpirituak lantzeko eta horrela, Jainkoaren asmo asmaezinek ezarririko ugazaben aginduetara esaneko bihurtzeko. Hitz batean, burges ingelesak parte hartzen zuen orain “estamentu baxuak”, nazioko masa ekoizle handia, azpiratzeko eginkizunean, eta horretarako erabiltzen zen bitartekoetako bat erlijioaren eragina zen.

Baina honi burgesiaren joera erlijiosoak indartzera zetorren egoera berri bat gehitu zitzaion: materialismoaren agerpena Ingalaterran. Doktrina berri honek ez zituen erdi mailako klasearen sentimendu jainkozaleak mindu bakarrik egiten, gainera, mundu zabaleko jakintsuentzat eta gizon kulturaduentzat soilik zuzendurik zegoen filosofia bat bezala iragartzen zen; ez erlijioa bezala, ona zena masa handi ez ilustratuarentzat, burgesia barne. Hobbeseekin, doktrina honek erregetzaren pribilegioen eta ahalguztiaren defendatzaile moduan zapaldu zuen eszena eta monarkia absolutua, herria zen *puerrobustus sed mailitiosus*¹⁷ hura kate motzean lotzera gonbidatu zuen. Hobbesen ondorengoetan ere, Bolingbroken, Shaftesburyn, etab.en, materialismoaren forma deistiko berriak doktrina aristokratikoa, esoterikoa¹⁸ eta, horrenbestez, burgesiak gorrotatua izaten jarraitzen zuen, ez heresia erlijioso bat izate hutsagatik bakarrik, baita bere lotura antiburgesengatik ere. Horregatik, aristokraziaren materialismoaren eta deismoaren aurrean, Estuardotarren aurka borrokatzeko bandera eta gizonak jarri zituzten sekta protestanteak ziren, hain zuzen ere, erdi mailako klase aurrerakoiaren indarren kuota nagusia ematen zutenak eta oraindik gaur egun ere “alderdi liberal handiaren” bizkarrezurra osatzen dutenak.

Bien bitartean, materialismoa Ingalaterratik Frantziara pasa zen. Bertan bigarren eskola filosofiko materialista batekin egin zuen topo, cartesianismotik¹⁹ sortu zena, eta honekin

17. Mutiko mardula, baina maltzurra.

18. Ezkutukoa, hasiberriei bakarrik zuzendua.

19. Filosofia cartesianarra: Descartes (latinez Cartesius) XVII. mendeko filosofo frantsesaren jarraitzaileen doktrina; bere filosofiatik ondorio materialistak deduzitu zituzten.

baturik berri zuen. Frantzia ere, hasieran, doktrina eskusiboki aristokrata izaten jarraitzen zuen. Baina bere izaera iraultzaileak ez zuen denbora gehiegi eman agertzen. Materialista frantsesek ez zuten mugatzen beraien kritika erlijiora bakarrik, baizik eta zabaldu egiten zuten garaiko tradizio zientifiko guztietara eta instituzio politiko guztietara; beraien teoria unibertsalki aplikatzeko aukera frogatzeko, biderik motzena jarraitu zuten; hura jakituriaren objektu guztiei aplikatu zieten ausardia *Encyclopédie*an, “entziklopedistak” izena balio izan zien obra erraldoian. Horrela, materialismoa, forma batean edo bestean —materialismo aitortu bezala edo deismo bezala—, Frantziako gazteri kulturadun guztiaren kredo bilakatu zen; halako puntura arte, ezen Iraultza Handian zehar errealista ingelesak sortu zuten teoriak bandera teoriko bezala balio izan ziela errepublikarrei eta terrorista frantsesei, eta handik atera zela Giza Eskubideen²⁰ Deklarazioaren testua.

Frantziako Iraultza Handia burgesiaren hirugarren altxamendua izan zen, baina lehenengo estalki erlijiosoaz erabat erantzi zena, borroka eremu politiko irekian emanez. Eta lehenengo izan zen, halaber, guda borrokalarrietako baten, aristokraziaren, desagiteraino eta bestearen, burgesiaren, garaipen osoraino eraman zuena. Ingalaterran, instituzio aurreiraultzaileen eta iraultza ostekoen jarraitasun etengabeak eta lurjabe handien eta kapitalisten arteko transakzio itzartuak, beren adierazpidea hartzen zuten aurrekari judizialen jarraitasunean, hala nola, feudalismoko forma legalen mantentze errespetagarrian. Frantzia iraultzak iraganeko tradizio guztiekin hautsi zuen, feudalismoaren azken hondarrak garbitu zituen eta *Kode Zibilarekin*²¹ antzinako eskubide erromatarraren ego-

20. Gizakiaren eta Herritarraren Eskubideen Deklarazioa Asanblada Konstituziogileak onartua izan zen 1789an. Bertan erregimen burges berraren printzipio politikoak aldarrikatzen ziren. Deklarazioa 1791ko Konstituzio frantsesean sartu zen; jakobinoei oinarri gisa balio izan zien 1793ko Giza Eskubideen Deklarazioa idazterakoan, hori hitzaurretzat hartu zelarik 1793an Batzar Nazionalak onartu zuen Frantziako lehenengo Konstituzio errepublikarrean.

21. Hemendik aurrera, Engelsek ez du ulertzen Napoleonen Kode bezala 1804ean onartu zen eta izen honekin ezagutzen den Napoleonen Kode zibila bakarrik, baizik eta, hitzaren zentzu zabal batean, zuzenbide

kitzapen bikain bat sortu zuen erlazio kapitalista modernoetarako, Marxek “merkataritza-ekoizpen” deitzen zion fase ekonomikotik eratorritako erlazio juridikoen adierazpide ia perfektu hura; hain bikaina, ezen Frantziako Kode iraultzaile honek oraindik ere eredu bezala balio duela herrialde guztietan —Ingalaterraren salbuespenik gabe— jabetza-eskubideen erreformetarako. Baina, ezin dugu horregatik begi bistatik gauza bat galdu. Nahiz eta zuzenbide ingelesak gizarte kapitalistaren erlazio ekonomikoak hizkuntza feudal barbaro batean adierazten jarraitzen duen, zeinak adieraziriko objektuarekin ortografiak fonetika ingelesarekin gordetzen duen erlazio berbera gordetzen baituen —“*vous écrivez Londres et vous prononcez Constantinople*”²² zioen frantses batek—, zuzenbide ingeles hau da mendeetan zehar onik mantendu duen bakarra, eta Ipar Amerikara eta kolonietara eramán duena, askatasun pertsonal haren, autonomia lokal haren eta auzitegietatik kanpoko esku-hartze ororen aurkako babes haren zatirik hobere-na; hitz batean, kontinentean monarkia absolutupean galdu ziren eta orain arte inon berriz osorik berreskuratu ez diren antzinako askatasun germaniar haiek.

Baina itzul gaitezen gure burges britainiarrera. Frantziako iraultzak aukera ezin hobea eskaini zion, kontinenteko monarkien laguntzarekin, Frantziako itsas merkataritza hondoratzeko, kolonia frantsesak anexionatzeko eta Frantziak itsasoz kompetentzia egiteko zituen azken asmoak zapaltzeko. Hori izan zen bere aurka borrokatu izanaren arrazoietakoa bat. Bigarren arrazoia iraultza horren metodoek oso grazia gutxi egiten ziela zen. Ez jada bere terrorismo “higuingarriagatik” bakarrik, baita erregimen burgesa bere azken ondorioetaraino ezartzeko saiakeragatik ere. Zer egingo ote zuen burges britainiarrak munduan bere aristokraziarik gabe, jokamoldeak (eta

burgesaren sistema guztiaz ari da, zeina bost kodigoz adierazten baiten (zibila, zibil-prozesala, komertziala, penala eta penal-prozesala), Napoleon I.aren garaian onartua bera, 1804tik 1810erako urteetan. Aipaturiko kodeak Napoleonen Frantziak konkistaturiko Alemania Ekialdeko eta Hego-mendebaldeko eskualdeetan ezarriak izan ziren, eta Rineko probintzian indarrean jarraitu zuten baita hau 1815ean Prusiara anexionatu ondoren ere.

22. Londres idazten duzue eta Konstantinopla ahoskatzen.

hara zer nolako jokamoldeak!) ezartzen zizkiona eta berarentzat modak asmatzen zituena, armadarako ofizialak ematen zizkiona, etxean ordenaren babesle zena, eta itsas armadarako, agindupeko kolonia berrien eta kanpo merkatu berrien konkistatzailea? Egia da burgesiaren barnean ere bazela gutxiengo aurrerakoi bat, transakzioan bere interesak hain ongi atara ez zitzaizkion jendez osatua. Gutxiengo horrek, posizio xumeko erdi mailako klaseaz osatua, begiko zuen iraultza, baina indargabea zen parlamentuan.

Horrenbestez, materialismoa zenbat eta gehiago iraultza frantsesaren kredo bihurtu, orduan eta gehiago atxikitzen zen burges britainiar jainkozalea bere erlijioarengana. Akaso ez al zuen bada Parisko terrore garaiak frogatu zer gertatzen den herriak bere erlijioa galtzen duenean? Frantziako materialismoa inguruko herrietara zabaltzen eta beste antzeko korronte teorikoen errefortzuak jasotzen zihoan heinean, bereziki filosofia alemaniarrenak; kontinentean materialista eta librepenetsalaria izatea, egia esan, pertsona kulturaduna izateko ezinbesteko ezaugarri bat zen heinean, geroz eta irmoago berresten zituen erdi mailako klase ingelesak bere sinesmen erlijioso ezberdinak. Batetik bestera aldaketa handiak bazeuden ere, denak ziren ezberrik gabeko sinesmen erlijiosoak, kristauak.

Iraultzak Frantzian burgesiaren garaipen politikoa ziurtatzen zuen bitartean, Ingalaterran Wattek, Arkwrightek, Cartwrightek eta beste batzuk iraultza industrial bat hasi zuten, zeinak botere ekonomikoaren grabitate-zentroa erabat desplazatu baitzuen. Orain burgesia askoz ere lehenago aberasten zen aristokrazia lurjabea baino. Eta, burgesiaren beraren barnean, aristokrazia finantzaria, bankariak, etab., geroz eta gehiago ari ziren bigarren mailara pasatzen fabrikatzaileen aurrean. 1689ko transakzioa, pixkanaka burgesiaren alde sartzen joan zitzaizkion emendakinekin ere, jada ez zetorren bat interesaturiko bi aldeen elkarrenganako egoerarekin. Hauen izaera ere aldatu egin zen: 1830ko burgesia oso ezberdina zen aurreko mendekoarekiko. Botere politikoa, oraindik ere aristokraziak mantentzen zuena eta ekintzan burgesia industrial berriaren asmoen aurka jartzen zena, bateraezina bihurtu zen interes ekonomiko berriekin. Orduan aristokraziaren aurkako borrokaren beharra planteatu zen berriro; eta borroka hori bo-

tere ekonomiko berriaren garaipenarekin soilik amai zitekeen. 1830eko iraultza frantsesaren bulkadarekin, hauteskunde erreformaren legea²³, erresistentzia guztiez gain, lehenengo jarri zen. Horrek burgesiari posizio indartsua eta aintzat hartutakoa eman zion parlamentuan. Ondoren, zereal-legeen²⁴ indargabetzea etorri zen, behin betiko ezarri zuelarik burgesiaren gailentasuna, eta batez ere bere alderdi aktiboenarena, fabrikatzaileena, lurraren aristokraziaren gainetik. Hau izan zen burgesiaren garaipenik handiena, baina baita bere interes propio eta eskusiboan lortu zuen azkena ere. Ondorengo bere garaipen guztiak botere sozial berri batekin banatu behar izan zituen, hasiera batean bere aliatua zena, baina ondoren bere etsaia.

Industria-iraultzak fabrikatzaile kapitalista handien klase bat sortu zuen, baina baita beste klase askoz ugariago bat ere, fabriketako langileena. Klase hau etengabe ari zen kopuruz handitzen industria-iraultzak, bata bestearen atzetik, industriako adar guztiak hartzen ari zen neurrian. Eta bere kopuruarekin hazten zen bere indarra ere, jada 1824an agertu zuen bezala, parlamentua behartu zuenean koalizio askatasunaren aurkako legeak²⁵ gogoz kontra indargabetzera. Hauteskunde erreformaren aldeko agitazio kanpainan zehar, langileek erreformaren alderdiaren hegala erradikala osatzen zuten; eta 1832ko legeak sufragiotik baztertu zituenen, Herritarren

23. Ingalaterran lehenengo *hauteskunde-erreformako* legearen proiektua 1831ean eraman zen parlamentura eta 1832ko ekainean izan zen onartua. Erreformak burgesia industrialeko ordezkariak bakarrik ireki zizkien parlamentuko ateak. Proletalgoa eta burgesia txikia, erreformaren aldeko borrokan indar nagusia izanik, burgesia liberalak engainatuak izan ziren eta, lehen bezala, hauteskunde eskubiderik gabe geratu ziren.

24. Zereal-legeen indargabetzearen agiria 1846eko ekainean onartu zen. Zereal-legeak deritzenak, atzerritik garia inportatzea mugatzeko edo galarazteko asmotan onartuak, lurjabe handien (landlords) mesedetan atera ziren Ingalaterran. 1846eko agiriaren onarpena burgesia industrialaren garaipen bat izan zen, zereal legeen aurka merkataritzako askatasunaren kontsignapean borrokatzen zuelarik.

25. 1824an, parlamentu ingelesak, langile masen mugimenduak presionaturik, egintza bat promulgatu behar izan zuen langile batasunen debekatzera indargabetuz.

Kartan (People's Charter)²⁶ beren aldarrikapenak laburbildu zituzten eta, zereal-legeen aurka borrokatzen zuen alderdi burges handiaren aurka²⁷, alderdi independente batean antolatatu ziren, alderdi kartistan, gure garaiko lehen langile alderdia izan zena.

Jarraian, 1848ko otsaileko eta martxoko iraultza kontinentalak etorri ziren, non langileek oso paper garrantzitsu bat jokatatu zuten eta, Parisen behintzat, gizarte kapitalistaren ikuspuntutik inondik inora onargarriak ez ziren aldarrikapenak planteatu zituzten. Eta ondoren berehala erreakzio orokorra etorri zen. Lehenik, 1848ko apirilaren 10eko kartisten porrota²⁸; ondoren, urte hartako ekainean, Parisko langileen altxamenduaren zapalkuntza; beranduago, 1849ko Italiako, Hungariako eta Alemania Hegoaldeko deskalabruak; eta azkenik, Luis Bonaparteren garaipena Parisen, 1851ko abenduaren 2an²⁹. Horrekin, denbora batez behintzat, langileen aldarrika-

26. Herritarren Karta, kartisten eskakizunak zituena, 1838ko maiatzaren 8an argitaratu zen parlamentuan aurkezteko lege proiektu gisa: sei puntuz osatzen zen: hauteskunde-eskubide unibertsala (21 urteko adinetik aurrerako gizonezkoentzat), urteroko parlamenturako hauteskundeak, bozketa sekretua, hauteskunde barrutien berdintasuna, parlamenturako diputatuentzako jabetza baldintzaren indargabetzea eta ordainsaria diputatuentzako. Parlamentuari entregaturiko Kartisten hiru eskakizunak, Herritarren Karta onartzearen exigentzia barne, errefusatuak izan ziren 1839an, 1842an eta 1849an.

27. *Liga Antizerealista*: burgesia industrial ingelesaren erakundea, 1838an Manchesterreko Cobden eta Bright fabrikatzaileek sortua. Merkataritzako askatasun osoaren eskakizuna aurkeztean, Ligak zereal-legeen indargabetzea defendatzen zuen, langileen soldatak jaisteko eta aristokrazi lurjabearen posizio ekonomiko eta politikoak ahultzeko helburuarekin. Zereal-legeen indargabetzearen ondoren (1846) Ligak existitzeari utzi zion.

28. Kartistek 1848ko apirilaren 10erako iragarri zuten manifestazio masiboak, parlamentuari Herritarren Karta entregatzeko helburua zuelana, porrot egin zuen bertako erakundeen ezbaiak eta zalantzak direla eta. Manifestazioaren porrota erreakzioaren indarrek erabili zuten langileen kontrako ofentsiba eta kartisten aurkako errepresaliak indartzeko.

29. Luis Bonapartek 1851ako abenduaren 2an antolatatu zuen estatu kolpeaz ari da, zeinak Bigarren Inperioko erregimen bonapartistari hasiera eman baitzion.

penen mamutzarra aldentzea lortu zen, baina zer nolako prezioarekin! Horrenbestez, burges britainiarra lehenago jada ziur bazegoen herrian izpiritu erlijioso makurra mantentzeko beharraz, are arrazoi gehiagorekin sentitu behar zuen premia hori, esperientzia guzti horien ondoren! Horregatik, bere lagun kontinentalen barre-algara isekariei jaramon txikienik egin gabe, urtez urte milaka eta hamar milaka gastatzen jarraitzen zuen elementu baxuen ebanjelizazioan. Bere makinaria erlijiosoarekin gustura ez zegoenez, Jonathan³⁰ Anaiaren gana jo zuen, garai hartan negozio erlijiosoen antolatzaile handiena, eta Estatu Batuetatik errebibalismoa³¹ inportatu zuen, Moody eta Sankey, etab.; eta, azkenik, Salbazioko Ejertzi-toaren laguntza arriskutsua ere onartu zuen, kristautasun primitiboaren propaganda bitartekoak berreskuratuzera zetorrena, pobreengana hautatuak bailiran zuzentzen zena, bere modu erlijiosoan kapitalismoa borrokatuz eta horrela kristautasun primitiboaren klase arteko borrokaren elementua astinduz, egunen batean eragozpen bat izatera hel zitekeena gaur bere poltsikotik iragarki hauetarako dirua ematen duten jende aberatsentzat.

Badirudi garapen historikoaren lege bat dela, burgesiak Europako herrialde bakar batean ere botere politikorik eduki ezin izatea —denbora luzez behintzat—, Erdi Aroan aristokrazia feudalak egin ahal izan zuen modu eskusibo berean. Frantzia ere, feudalismoa hain errotik atera zen tokian, burgesiak, klase global bezala, denboraldi txikietan bakarrik gauzatzen du botere osoa. Luis Feliperen mandatuan (1830-1848), burgesiaren zati txiki batek bakarrik gobernatzen zuen, beste zati askoz handiago bat sufragiotik bazterturik geratzen baitzen, bozkatu ahal izateko eskatzen zen aberastasun zentsu handia zela eta. Bigarren Errepublika garaian (1848-1851), burgesia

30. *Jonathan Anaia*: iparramerikarrei ingelesek jarritako ezizena, Ingalaterraren kolonia iparramerikarren independentzia gudan (1775-1783).

31. *Errebibalismo*: XVIII. mendeko lehenengo erdian Ingalaterran sortu zen eta Ipar Amerikan zabaldu zen Eliza protestantearen korrontea; bere jarraitzaileek prediku erlijiosoen eta fededunen komunitate berrien antolakuntzaz baliatzen ziren erlijio kristauaren eragina finkatzeko eta zabaltzeko.

guztiak gobernatu zuen, baina hiru urtez bakarrik; bere ezgaitasunak bidea ireki zion Bigarren Inperioari. Soilik orain ikusten dugu, Hirugarren Errepublikan³², burgesia guztia batera hogeituro urteko espazioan lema hartzen, baina hor jada gainbehera sintoma atseginak agertzen ditu. Orain arte, urte luzeetan zehar mantenduriko burgesiaren agintea, Ipar Amerika bezalako herrialdeetan bakarrik izan da posible, feudalismoa inoiz ezagutu ez zutenetan eta gizartea hasieratik oinarri burges batetik eraiki denetan. Baina Frantzia eta Ipar Amerikan ere, jada golpe tinkoekin jotzen zuten atea burgesiaren ondorengoek: langileek.

Ingalaterran, burgesiak ez du inoiz boterean jardun hau zatitu gabe. 1832ko garaipenak ere aristokrazia utzi zuen ia eskusiboki kargu publiko altu guztietaz gozatzeko. Nik ez nuen azaltzen asmatzen, erdi mailako klase aberatsak nolatan onartzen zuten etsi-etsian menpekotasun hori, egun batean W. A. Forster fabrikatzaile handi liberalak, hitzaldi batean, Bradfordeko gazteei karrera egin nahi bazuten frantsesa ikasteko erregutu zien arte, horri dagokionean berak ministroa zenean jokatu zuen paper tristea kontatu zuelarik, bat-batean frantsesa, gutxienez, ingelesa bezain garrantzitsua zen gizarte batean sarturik ikusi baitzuen bere burua! Hain zuzen ere, garai hartako burges ingelesak, gehiago edo gutxiago, kultura gabeko aberats berri batzuk ziren, aristokraziari utzi behar zizkietenak, nahi ala ez, gobernuko postu altu haiek guztiak, horiek beste dohain batzuk eskatzen baitzituzten irlako mugapenez eta harropuzkeriaz gain, negozioetarako zuhurtziak areagotuak* .

32. Napoleon III.aren bigarren Inperioa 1852tik 1870 arte existitu zen Frantzia, eta hirugarren Errepublika 1870tik 1940 arte.

* Eta negozio kontuetan ere chauvinismo nazionalaren harropuzkeria aholkulari txarra da. Orain dela gutxi arte, fabrikatzaile ingeles arruntak iraingarritzat zeukan ingeles batentzat berea ez zen beste hizkuntza bat hitz egitea eta nolabait harrotu egiten zuen atzerritar “deabru gizagaixo” hauek Ingalaterran bizitzen jartzea, horrela bere produktuak atzerrian saltzeko lana arintzen baitzioten. Ez zen ohartu ere egiten, atzerritar hauek, alemaniarrek gehienak, modu horretan Ingalaterrako kanpo merkatuaren zati handi baten jabe egiten zirela —bai inportaziokoak bai esportaziokoak— eta ingeles atzerriarrekiko merkatu zuzena ia eskusiboki kolonietara mugatzen ari zela, Txinara, Estatu Batuetara eta Hego Ameriketara. Eta ez zen ohartzen

Gaur egun oraindik ere *middle-class-educationari*³³ buruzko prentsako eztabaida amaigabeek agertzen dute, erdi mailako klase ingelesak oraindik ez duela bere burua heziketa horerena jasotzeko bezain ontzat hartzen eta zerbait xumeagoa bilatzen duela. Horregatik, zereal-legeen indargabetzearen ondoren, oso naturalizat hartu zen garaipena lortu zutenek, Cobdendarrek, Brightarrek, Forstertarrek, etab.ek, gobernu ofizialean parte hartze orori uko egin izana, azkenik, hoguei urte beranduago, Erreformako lege berri batek³⁴ ministeritzako ateak ireki zizkien arte. Burgesia ingelesa gaur egun arte hain sakonki sarturik dago gutxiagotasun sozialeko sentimendu batetan, ezen bere kontura eta herriarenera, ofiziotzat ekitaldi solemne guztietan nazioa duintasunez ordezkatzeari duen alferren kasta apaingarri bat sostengatzen duela eta biziki ohoragarritzat hartzen da, azken finean burgesiak berak fabrikatu duen korporazio berezi eta pribilegiatu horretan sartzeko moduko duina den edozein burges aurkitzen denean.

Horrela beraz, erdi mailako klase industrialak eta komertzialak ez zuen lortu oraindik aristokrazia lurjabea botere politiko-

ere, alemaniar hauek atzerriko beste alemaniarrekin salerosten zutela, zeinak denborarekin kolonia komertzialen sare oso bat antolatzen ari baitziren mundu guztian zehar. Eta, orain dela berrogei bat urte, Alemania esportaziorako seriozki fabrikatzen hasi zenean, kolonia komertzial alemaniar horietan zerbitzu txundigarri bat eskaini zion tresna aurkitu zuen, hain denbora gutxian, zerealaren esportatzailea zen herrialde bat izatetik lehen mailako herrialde industrialean eraldatzeko eginkizunean. Azkenik, orain dela hamar bat urte, fabrikatzaile ingelesak kezkatzen hasi ziren eta beren enbaxadorei eta kontsulei galdezka hasi ziren, ea zergatik jada ezin zituzten beren bezero guztiak mantendu. Aho-batezko iritzia honakoa izan zen: Lehenik ez zaretelako zuen bezeroen hizkuntza ikasteaz arduratzen eta beraiek zeuona ikastea eskatzen duzelako, eta bigarrenik ez zaretelako zuen bezeroen beharrak, ohiturak eta gustuak asetzen ere saiatzen, baizik eta zeuonetara egokitzea nahi duzue, Ingalaterrakoetara. (*Engelsen oharra*).

33. Erdi mailako klasearen heziketa.

34. 1867an, Ingalaterran, masen langile mugimenduaren eraginpean, *bigarren erreforma parlamentario* bat eman zen aurrera. I. Internazionalaren Kontseilu Orokorrak aktiboki hartu zuen parte erreforma hori errebindikatzeko zuten mugimenduan. Horren ondorio gisa, Ingalaterran hautesleen kopurua bikoitza baino gehiago handitu zen eta langile kualifikatuen zati jakin batek bozka eskubidea lortu zuen.

tik guztiz botatzea, eszenatokian arerio berria aurkeztu zenean: langile klasea. Mugimendu kartistaren eta iraultza kontinentalen ondoren jazo zen erreakzioa, 1848tik 1866era eman zen industria ingelesaren aurrekaririk gabeko zabalkuntzarekin elkaturik (truke askeari bakarrik atxiki ohi zaion zabal-kundea, baina askoz neurri handiagoan burdinbideen, transatlantikoaren eta komunikazio bitartekoen zabalkuntza erraldoiagatik izan zena) langileak liberalen mendean jarri zituen berriro, zeinaren hegal erradikala osatzen baitzuten, iraganeko garaietan kartismoak bezala. Baina, pixkanaka, langileen eskakizunak sufragio unibertsalari dagokionean, eutsi ezinak bihurtzen joan ziren. “Whigs-ak”, liberalen buruzagiak, beldurrez dardarka zeuden, Disraelik bere gailentasuna erakusten zuen; momentu egokia aprobetxatzen jakin izan zuen “torientzat” herrietako hauteskunde-barrutietan *household suffrage*³⁵ hauteskunde-legedia sartuz eta, horri dagokionean, hauteskunde-barrutien banaketa berri bat txertatuz.

Horri, pixka bat beranduago *ballotak*³⁶ jarraitu zion. Ondoren, 1884ean, *household suffrage* eskualde guztietara zabaldu zen, baita konderrietara ere, eta hauteskunde-barrutien banaketa berri bat sartu zen, neurri batean parekatu egiten zituena. Erreforma hauek guztiak halako moduan handitu zuten hauteskundeetan langile klasearen indarra, ezen honek 150 eta 200 barrutien artean hautesleen gehiengoa ordezkatzeko baitzuen. Baina ez dago sistema parlamentarioa baino eskola hoberik tradizioaren errespetuari dagokionean! Erdi mailako klaseak debozioz eta begirunez begiratzen badio lord John Mannersek brometan “gure noblezia zaharra” deitzen dionari, langile masek garai haietan errespetuz eta akatamenduz begiratzen zien orduan “klase hoberena” deitzen zitzaionari, burgesiari. Egia esan, duela hamabost urteko langile britainiarra, halako langile eredugarria zen, ezen bere nagusiaren mailari zion errespetuzko begiruneak eta bere errebindikazioak planteatzeko orduan zuen lotsak eta umiltasunak, ezti-garri pixka bat jartzen ziela gure katedrako sozialista alema-

35. Household suffragek bozka eskubidea etxe independentean bizi zen ororentzat ezartzen zuen.

36. Bozketa sekretua.

niarrei³⁷ beren herrialdeko langileen joera komunista eta iraul-tzaile zuzengaitzek eragiten zizkien zaurietan.

Hala ere, burges ingelesek, negozio gizon onen moduan, irakasle alemaniarrek baino haratago ikusten zuten. Gogo txarrez bakarrik tartekatu zuten boterea langileekin. Kartismo aldian eduki zuten herria egiteko gai zena ikasteko aukera, *puer robustus sed malitiosus* hura. Harrezkero, onartu egin behar izan zuten eta lege nazional bihurturik ikusi Herritarren Kartaren zati handiena. Orain inoiz baino garrantzitsuagoa zen bitarteko moralen bidez herria arrastoan sarturik edukitzea; eta masengan eragina izan zezakeen lehenengo baliabide moralak eta garrantzitsuena erlijioa izaten jarraitzen zuen. Horregegatik eskoletako organismoetan postuen gehiengoa apaizei uztea eta, horregegatik, burgesiak bere buruari geroz eta zerga gehiago ezartzea mota guztietako errebibalismoak sostengatzeko, erritualismotik³⁸ Salbaziorako Ejertzitotaino.

Eta orduan iritsi zen filisteismo britainiar errespetagarriaren garaipena burges kontinentalaren pentsamendu askatasunaren eta materia erlijiosoetarako zuen axolagabetasunaren gainean. Frantziako eta Alemaniako langileak errebolatari bihurtu ziren. Erabat kutsaturik zeuden sozialismoarekin, eta gainera, arrazoi oso sendoengatik, ez ziren gehiegi arduratzen

37. *Katedrako sozialismoa*: XIX. mendeko 70-90 hamarkadetakoa ideologia burgesaren korronea. Horren ordezkariak, gehienbat unibertitate alemaniarretako irakasleak, beren katedretatik erreformismo burgesa predikatzen zuten, sozialismo bezala aurkezten saiatuz. Baieztatzen zuten (besteak beste A. Wagnerrek, H. Schmollerrek, L. Brentanok eta W. Sombartek) Estatua klaseen gainetik kokatzen zen instituzio bat zela, klase etsaiak adiskidetu zitzaizkela eta gradualki "sozialismoa" ezarri zezakeela, kapitalisten interesei eragin gabe. Beren programa gaixotasunen eta istripuen aurkako langileen aseguruaren antolaketaz eta fabriketako legislazioaren esparruan neurri jakin batzuen aplikazioa mugatzen zen. Katedrako sozialistek, ongi antolatutako sindikatuak egonik, ez zegoela borroka politikoaren ez langile klasearen alderdi politikoaren beharrik uste zuten. Katedrako sozialismoa errebisionismoaren iturri ideologikoetako bat izan zen.

38. *Erritualismoa*: XIX. mendeko 30. hamarkadan Eliza anglikarrean sortu zen korronea. Bertako jarraitzaileek errito katolikoen (hortik bere izena) eta dogma katoliko jakin batzuen berreskuratzea dei egiten zuten.

boterea hartzeko erabilitako bitartekoen legezketasunaz. Hemen, *puer robustus* egunero benetan geroz eta *malitiosus*ago bihurtzen ari zen. Eta burges frantsesari eta alemaniarrari ez zitzaien beste bitartekorik geratzen, taktikoki libreentsalari izateari uztea baino, gazte eder horiek bezala, nahitaez zorabioak hartzen dituztenean itsasontzian harrokeriaz eusten zuten zigarroa erortzen uzten dutela. Adarjotzaileak kanpotik jarriera jainkozalea hartzen joan ziren bata bestearen atzetik eta errespetuz hasi ziren hitz egiten Elizaz, bere dogmez eta erri-toez, azken horiek tartekatzerara ere iritsiz beste erremediorik ez zegoenean. Beren materialismoarekin egoera deseroso batetara iritsi ziren. *Die Religion muss dem Volk erhalten werden* (“Erljioa kontserbatu beharra dago herriarentzat!”); gizartea bere erabateko ondoratzetik salbatzeko azken bitartekoa eta barkarra zen. Haien zoritxarrerako, ez ziren horretaz ohartu erlijioa behin betiko eraisteko gizakiak egin dezakeen guztia egin arte. Irtsi zen beraz, burges britainiarrak beraien kontura barre egin zezakeen unea eta, aldi berean, oihukatu: “Ah, inuzenteak, hori esan niezaiokeen nik orain dela berrehun urte!”.

Hala ere, tamalez uste dut ez burges britainiarraren inozakeria erlijiosoak ezta *post festum*³⁹ egindako konbertsio kontinentalak ere, ez dutela dike bat jartzea lortuko goraka doan marea proletarioari. Tradizioa balazta indar handi bat da; historiaren *vis inertiae*⁴⁰ da. Baina indar pasibo hutsa da; horregatik ezinbestean erori egin behar du. Horrexegatik erlijioak ere ezin dio gizarte kapitalistaren harresi babesle luzeari balio. Gure ideia juridiko, filosofiko eta erlijiosoak, gizarte jakin batean agintean diren baldintza ekonomikoen gertuko edo urrunagoko kimuak baino ez badira, epe luzean ideia hauek ezingo dira mantendu baldintza horiek guztiz aldatu direnean. Bata edo bestea: edo naturaz gaindiko errebelazio batetan sinesten dugu, edo erortzen ari den gizarte bat eskoratzeko gai den dogma erlijiosorik ez dagoela onartu behar dugu.

Eta egia esan, Ingalaterran ere langileak berriro mugitzen hasi dira. Dударik gabe, langile ingelesa hainbat tradizioz loturik dago. Tradizio burgesak, hain zabaldurik dagoen bi alderdi

39. Festaren ondoren, hau da, atzeratuta.

40. Inertiaren indarra

baino gehiago, kontserbadorea eta liberala, existitu ezin duten ustea bezala, eta langile klaseak bere emantzipazioaren alde lan egiteko alderdi liberal handiaz baliatu behar duenarena bezala. Eta langile tradizioak, bere lehen ekintza independenteen saiakera garaietatik heredatuak, *trade unions* ugari eta errotuetan zeuden ikasteko araudi-denbora bat eduki ez duten langile guzti horien ezabatzea bezala; *union* hauetako bakoitzak, zentzu hertsian, bere eskirolak sortzen dituela esan nahi duenarik. Baina hala eta guztiz ere eta askoz gehiagoz gain, langile klase ingelesa aurrera doa, Brentano irakaslea bera, oinaze latzez, bere anaiei, katedrako sozialistei, azaltzera beharturik sentitu den moduan. Aurrera doa, Ingalaterran dena bezala, urrats astiro eta neurtuan, zalantzaka hemen, eta saiakeren bidez han, batzuetan antzuak; saltoka egiten du aurrera, sozialismoaren izenarekiko zuhurtzia gehiegizko mesfidantzarekin, baina pixkanaka esentzia asimilatuz. Aurrera doa, eta bere aurrerabidea zabalduz doa langile geruza batean zein bestean. Orain, Londresko East Endeko langile ez kualifikatuen lozorroa astindu da, eta gu guztiok ikusi dugu jada zein bultzada ederra eman dioten, aldi berean, indar berri hauek langile klaseari. Eta mugimenduaren erritmoa ez badago kontsonantzian batzuen eta besteen ezinegonarekin, ez dute ahaztu behar hain zuzen ere langile klasea dela izaera ingeles nazionalaren jokabide hoberenak bizirik mantentzen dituen eta Ingalaterran, pauso bat aurrera ematen denean, jada inoiz ez dela hori galtzen. Kartista zaharren seme alabek ez bazuten eman, azal dutako arrazoiengatik, beraietaz espero zitekeen guztia, bilobak bere aiton amonen duin izango direla ematen du.

Baina Europako langile klasearen garaipena ez dago soilik Ingalaterraren baitan. Garaipen hori gutxienez Ingalaterraren, Frantziaren eta Alemaniaren arteko kooperazioarekin bakarrik ziurta daiteke. Azken herrialde hauetan, langile mugimenduak abantaila puska handi bat ateratzen dio Ingalaterrakoari. Alemanian, jada garaipenetik distantzia neurgarri batera ere aurkitzen da. Hemen, duela hogeita bost urtetatik lorturiko aurrerapenak ez dute aurrekaririk. Eta burgesia alemaniarrek gaitasun politiko, diziplina, suhertasun, energia eta pertseberantzia gabezia tamalgarri baten frogak eman badiu, Alemaniako langile klaseak ezaugarri horiek neurri han-

dian dauzkala erakutsi du. Badira ia laurehun urte jada Alemania Europako erdi mailako klasearen lehen altxamendu handiaren abiapuntua izan zela; gauzak gaur egun dauden bezala, zentzugabea al da pentsatzea Alemania izango dela proletalgo europarraren lehen garaipenaren eszenatokia?

F. Engels
1892ko apirilaren 20a

SOZIALISMO UTOPIKOTIK SOZIALISMO ZIENTIFIKORA

I

Sozialismo modernoa, lehenik eta behin, bere edukia dela eta, batetik, gizarte modernoan jabeen eta gabetuen artean, kapitalisten eta soldatapeko langileen artean, dauden klaseko antagonismoek, eta bestetik, ekoizpenean agintzen duen anarkiak adimenean duten islaren fruitua da. Baina, bere forma teoriakoari dagokionean, sozialismoa XVIII. mendeko ilustratu frantses handiek aldarrikaturiko printzipioen jarraipen garatuago eta kontsekuenteago bezala agertuz hasten da. Teoria berri guztien moduan, sozialismoak, nahiz eta bere sustraiak gertaera ekonomiko materialetan eduki, jaiotzean, jada bazeuden ideiekin uztartu behar izan zuen.

Frantzian jazoko zen iraultzarako buruak ilustratu zituzten gizon handiek, jada jarrera irmoki iraultzailea hartu zuten. Ez zuten inongo motako kanpoko autoritaterik onartzen. Erljioa, naturaren ikuspegia, gizartea, estatu ordena: dena jartzten zuten kritikarik gupidagabeenera; existitzen zen guztiak bere existentziaren tituluak justifikatu behar zituen arrazoimenaren foruaren aurrean edo existitzen jarraitzeari uko egin. Denari aplikatzen zitzaion neurri bakar bezala arrazoimen pentsalaria. Hegelen arabera, “munduak buruaren gainean biratzen zuen”^{*} garaia zen hura, lehenik, giza buruak eta

* Hona hemen iraultza frantsesari buruzko Hegelen pasartea: “Ideia, Zuzenbidearen kontzeptua, *golpetik* gailendu zen, injustiziaren armazoi zaharrak ezin izan zuelarik inongo erresistentziarik jarri. Zuzenbidearen historiaren inguruan oinarritu da orain, beraz, Konstituzio bat, eta oinarri horren gainean funtsatu behar du aurrerantzean guztia. Eguzkiak izarrartea eta bere inguruan biraka dabiltzan planetak argitzen dituenetik, inork ez zuen ikusi gizona buruaren gainean altxatzen, hau da, ideiaaren gainean, horri egokiturik eraikiz errealtatea. Anaxagoras izan zen lehena esaten *nousak*, arrazoiak, gobernatzen zuela

honen espekulazioz ezarritako printzipioek giza ekintza guztien eta erlazio sozial guztien oinarri moduan obedituak izateko eskubidea aldarrikatzen zutelako, eta gero, zentzurik zabalenean ondorio hauetara egokitzen ez zen errealtatea izatez iraulirik geratzen zelako zimenduetatik amaiera arte. Gizartearen eta Estatuaren iraganeko forma guztiak, ideia tradizional guztiak, ganbaran zokoratuak izan ziren irrazional gisa; hor ere, mundua aurreiritzi hutsez gobernatua izaten utzi zen; iragan guztiak ez zuen errukia eta mespretxua besterik merezi. Soilik orain zuzendu zen goiz-argia arrazoimenaren erreirura; aurrerantzean, sineskeria, bidegabekeria, pribilegioa eta zapalkuntza alboratuak izango ziren betiereko egiagatik, betiereko justiziagatik, naturan oinarrituriko berdintasunagatik eta gizakiaren eskubide alienaezinengatik.

Gaur badakigu arrazoimenaren erreinu hura idealizaturiko burgesiaren erreinua besterik ez zela, betiereko justizia, justizia burgesean gorpuztu zela; berdintasuna, legearen aurrean dagoen berdintasun burgesera murriztu zela; gizakiaren funtsezko eskubideetako bat bezala jabetza burgesa aldarrikatu zela; eta arrazoimenaren Estatuak, Rousseauen “kontratu sozialak”, errealtatearen lurra zapaldu zuela eta hori baka-rik zapal zezakeela, errepublika demokratiko burges bihurturik. XVIII. mendeko pentsalari handiek, beren aurrekari guz-
tiek bezala, ezin zituzten euren garaiak trazatzen zizkien mu-
gak apurtu.

Baina noblezia feudalaren eta, gainontzeko gizarte guztia-
ren ordezkari moduan altxatzen zen burgesiaren arteko anta-
gonismoaren ondoan, zutik mantentzen zen esplotatzaileen eta
esplotatuen arteko antagonismo orokorra, aberats alferrentzien
eta lan egiten duten pobreen artekoa. Eta hain zuzen ere hori

mundua: baina soilik orain amaitu du gizonak ulertzen pentsamen-
duak gobernatu behar duela errealtate izpirituala. Horrela beraz,
*egunsenti zoragarri bat zen. Izaki pentsatzaile guztiek ospatu zuten
garai berri hori. Emozio sublime batek agintzen zuen garai hartan, iz-
pituaren gogo bizi batek mundua astintzen zuen, lehen aldiz mun-
dua jainkozkotasunarekin adiskidetzeari lortuko balitz bezala*”. Hegel.
Philosophie der Geschichte, 1840, S. 535. Ez al da iritsi ordua, Hegel
maisur zenduaren doktrina asaldari eta gizartearen kontrako aurkako
hauei sozialisten aurkako legea aplikatzeko? (Engelsen oharra)

zen burgesiaren ordezkariet baimentzen ziena klase jakin baten ordezkarietza ez ezik, minberaturik zegoen gizateri guztiaren ordezkarietza beraientzat hartzea. Jaio zen momentutik bertatik, burgesiak bere barrenetan zeraman bere antitesia, kapitalistek ezin baitute existitu soldatapeko langilerik gabe, eta erdi aroko gremioetako maisuak burges moderno bihurtzen ziren neurri berean, ofizialak eta gremioetakoak ez ziren jornalariak proletario bihurtzen ziren. Eta, termino orokorretan, burgesiak beretzat har bazezakeen, nobleziaren aurka zituen borroketan, bere interesez gain, garaiko langileen klase ezberdinekin ordezkatzeko eskubidea, sortzen zen mugimendu burges handi ororen alboan, mugimendu independenteak lehertzen ziren proletalgo modernoaren aurrekaria zen klase gutxi gorabehera garatu haren eskutik. Horietakoak izan ziren, Erreformaren eta Alemaniako nekazal gerren garaian anabaptisten⁴¹ eta Tomas Münzerren mugimendua; Ingalaterrako Iraultza Handian, “levellersak”⁴² eta Frantziako Iraultza Handian, Babeuf. Eta klase hasiberri baten altxamendu iraultzaile horiek, aldi berean, dagozkien adierazpide teorikoez lagundurik doaz: XVI. eta XVII. mendeetan gizarte erregimen utopiko baten deskribapenak agertzen dira⁴³; XVIII. mendean, jada zuzeneko komunista diren teoriak, Morellyrena eta Mablyrena bezala. Berdintasunaren aldarrikapena ez zen mugatzen eskubide politikoetara, baizik eta gizabanako bakoitzaren bizi baldintza sozialetara zabaltzen zen; jada kontua ez zen klaseko pribilegioak bakarrik abolitzea, klaseko ezberdintasunak deuseztatzea baizik. Komunismo aszetiko bat, espartar erara, bi

41. *Anabaptistak* (birbataiatuak). Sekta honetako kideak honela izena zuten, adin kontzientean bigarren bataiatze bat egitea errebindikatzen zutelako. Bere inspiratzailea T. Münzer (1521-1522) izan zen.

42. Engels “benetako levellersez” (berdintzaileez), o “diggersez” (zulatzaileez) ari da, XVII. mendeko Ingalaterrako iraultza burgesaren garaian muturreko ezkerren ordezkariak eta landako eta hiriko behartsuen interesen bozeramaileak. Lurraren gaineko jabetza pribatuaren desegitea errebindikatzen zuten, berdintasunezko komunismo primitiboaren ideiak zabaltzen zituzten eta praktikara eramaten saiatzen ziren lur komunalen luberritze kolektiboaren bidez.

43. Engels, batez ere, komunismo utopikoaren ordezkarien idazlanez ari da: Tomas Moreoren *Utopia*, eta Tomas Campanellaren *Eguzkiaren Hiria*.

zitzaren gozamen guztiak debekatzen zituena: halakoa izan zen doktrina berriaren lehen adierazpidearen forma. Geroago, hiru utopista handiak etorri ziren: Saint-Simon, zeinean oraindik tendentzia burgesak tinkotzen jarraitzen duen, neurri bateraino, lerro proletarioarekin batera; Fourier eta Owen, zeinak ekoizpen kapitalista gehien garatua zegoen herrialdean eta honek sorturiko antagonismoek erasanda, modu sistematikoa klase ezberdintasunak abolitzera bideraturiko hainbat neurri azaldu zituen, materialismo frantsesarekin zuzenean erlazionaturik zeudenak.

Hirurek tartekatzen duten ezaugarri komuna da proletalgoaren interesen ordezkari gisa ez jokaterena, bien bitartean hau historiaren beraren produktu moduan sortu zelarik. Ilustratu frantsesen antzera, ez dute jartzen helburu bezala lehenik klase jakin bat emantzipatzea, golpetik gizateri guztia baizik. Eta haien antzera, arrazoimenaren eta betiereko justiziaren erreinua ezarri nahi dute. Baina beren erreinuaren eta ilustratu frantsesenen artean amildegi handi bat dago. Mundu burgesa ere, haien printzipioen arabera ezarria, irrazionala eta bidegabea da eta beraz, zokoratua izatea merezi du balio ez duten trasteen artera, hain zuzen ere feudalismoaren eta bere aurretik egon ziren forma sozialen artera. Orain arte benetako arrazoiak eta benetako justiziak ez badute mundua gobernatu, besterik gabe, inork ez duelako horietan behar den bezala barrantzen jakin izan da. Gizon jeniala falta zen, orain gizateriaren aurrean azkenik aurkitua izan den egiarekin altzatzen dena. Gizon hori orain agertu izana eta ez lehenago, egia azkenik orain aurkitu izana eta ez lehenago, ez da, horien arabera, garapen historikoaren kateamenduak beharturiko ezinbesteko gertaera bat, baizik eta halabehear hutsak horrela nahi izan duelako gertatu da. Ager zitekeen bostehun urte lehenago, eta horrela gizateriari akatsez, borrokez eta sufrimenduz beteriko bostehun urte aurreztu.

Ikusi dugu XVIII. mendeko filosofo frantsesek, iraultzaren aitzindariak, nola arrazoimena apelatzen zuten existitzen den guztiaren epaile bakar gisa. Estatu arrazional bat ezarri nahi zuten, arrazoimenari egokituriko gizarte bat, eta betiereko arrazoimena kontraesaten zuen orok baztertua izan behar zuen gupidarik gabe. Eta ikusi dugu halaber, errealitatean, betiereko

arrazoi hori estatu xeheko gizonaren idealizaturiko sen ona besterik ez zela, hain zuzen ere, garai haietan burges bihurtzen ari zenarena. Horregatik Frantziako iraultza gizarte arrazional hori eta Estatu arrazional hori gauzaten hasi zenean, instituzio berriak, iraganekoekin alderatuz oso arrazionalak izanagatik ere, arrazoi absolututik nahikoa urrun geratzen zirela gertatu zen. Estatu arrazionalak porrot egin zuen erabat. Rousseuren kontratu soziala terrore aldian⁴⁴ gorpuztera zertorren, eta burgesiak, bere abilezia politikoan fedea galdurik, lehenik, Direktorioaren⁴⁵ ustelkerian babestera jo zuen eta, azkenik, despotismo napoleondarraren itzalpean. Aginduriko bertiereko bakea konkisten gerra amaigabe batean zapuztu zen. Ez zuen zori hobea eduki arrazoimenaren gizarteak. Pobrean eta aberatsen antagonismoa, ongizate orokorrean desegitetik urrun, areagotu egin zen gremioetako pribilegioak eta horren gainean zubi bat ezartzen zuten beste batzuk desagertzean, eta hori baretzen zuten elizaren benefizentziako establezimenduak ezabatzean. Traba feudaletatik “jabetza askatzea”, orain errealitate bihurtzen zena, burges txikiarentzat eta nekazari txikiarentzat jaun boteretsu horiei beren jabetza txikia saltzeko askatasuna bihurtu zen, kapital handiaren eta lur jabetza handiaren lehia izugarriak itorik zeudela; modu horretan, hori burges txikia eta nekazari txikia jabetza orotatik “askatzea” bihurtu zen. Industriaren gorakadak, oinarri kapitalisten gainean, masa langileen pobrezia eta miseria gizartearen bizimodu bihurtu zuen. Eskurako ordainketa, geroz eta maila altuagoan, Carlyleren hitzen arabera, gizartea elkartzen zuen kate begi bakarra bihurtuz joan zen. Estatistika kriminala urtez urte igo egiten zen. Bizio feudalak, ordura arte lizunki egun argitan agertzen zirenak, ez ziren desagertu, baina ezkutatu egin ziren pixka bat eszenatokiaren atzealdean; aldez, bizio burgesak jori jorian loratzen ziren, ordura arte zorupean ezkuta-

44. *Terrore aldia*: jakobinoen diktadura demokratiko iraultzailearen aldia, 1793ko ekainetik 1794ko uztailera arte.

45. *Direktoria* bost kidek osatzen zuten, horietako bat urtero hautatzen zelarik. Frantziako botere betearazlearen organo zuzendaria zen 1795etik 1799rako aldian. Terrorearen erregimena babesten zuen indar demokratikoen aurka eta burgesia handiaren interesak defendatzen zituen.

tuak. Merkataritza geroz eta gehiago ari zen iruzur bihurtzen. Aldarri iraultzaileko “anaitasuna”⁴⁶ lehiaren borrokako desleialtasunetan eta inbidian gorpuztu zen. Zapalkuntza bortitzak ustelkeriari utzi zion postua, eta ezpata, botere sozialeko palanka nagusi gisa, diruak ordezkaturia izan zen. Lehen gaueko eskubidea jauntxo feudaletik fabrikatzaile burgesera pasa zen. Prostituzioa ordura arte ikusi gabeko mailetan garatu zen. Ezkontzak jadanik zena izaten jarraitu zuen: prostituzioa estaltzen zen izara ofizialaren legeak aitorturiko forma, adulterio ugariez osatua gainera. Hitz batean, ilustratuen promesa liluragarriekin alderatuz, “arrazoimenaren garaipenarekin” ezarri ziren instituzio sozialak eta politikoak karikatura triste eta etsigarri batzuk zirela gertatu zen. Desengainua nabarmenduko zuten gizonak bakarrik falta ziren eta horiek XIX. mendearen lehen urteetan irten ziren. 1802an ikusi zuten argia Saint-Simonen *Karta genevarrek*; 1808an, Fourierrek bere lehen obra argitaratu zuen, nahiz eta bere teoriaren oinarriak jada 1799koak izan; 1800eko urtarilaren 1ean, Robert Owen New Lanark⁴⁷ enpresako zuzendaritzaren kargu egin zen.

Hala ere, garai hartan, ekoizpen modu kapitalista, eta berekin burgesiaren eta proletariaren arteko antagonismoa, oraindik oso gutxi garaturik zeuden. Industria handia, Ingalaterran jaio berritan zegoena, oraindik ezezaguna zen Frantzian. Eta soilik industria handiak garatzen ditu, alde batetik, ekoizpen modua iraultzea eta bere izaera kapitalista desagitea ezinbesteko beharrea bihurtzen duten gatazkak —gatazka hauek ez dira industria handiak sorturiko klaseen artean soilik lehertzen, baita ekoizpen indarren eta horiek sorturiko truke moduen artean ere— eta, bestetik, baita ekoizpen indar erraldoi horietan gatazka hauek gainditzeko baliabideak ere. 1800 aldera, ordena sozial berritik jaiotako gatazkak apenas garatzen hasiak bazeuden, askoz gutxiago garaturik zeuden, noski, bere konponbidea lotu behar zuten baliabideak. Parisko masa pobreak terrorearen erregimenean zehar momentu batez bote-

46. XVIII. mende amaierako Frantziako iraultza burgesaren aldarriaz ari da: “Askatasuna, Berdintasuna, Anaitasuna”.

47. *New-Lanark*: kotoizko irungaien fabrika, Lanark hiri eskoziarretik gertu zegoena. 1784ean sortu zen, biztanleri txiki batekin aldamenean.

rearen jabe egitea eta horrekin iraultza burgesa garaipenera eramatea lortu bazuten, burgesiaren aurka izan arren, botere hura garaiko baldintzetan mantentzea zein puntura arte zen ezinezkoa erakusteko bakarrik izan zen. Proletalgoa, gabeturiko masa hauen barnean apenas nabarmentzen hasia, erabat ezgaia zen oraindik, klase berri baten enbor gisa, ekintza politiko propio bat garatzeko, ez zuen zapaldiriko estamentu bat baino ordezkutzen, mota guztietako sufrimenduek itoa, bere kabuz moldatzeko erabat ezgaia. Laguntza, kasurik hoberenean, kanpotik etorri behar zitzaion, goitik.

Egoera historiko horrek sozialismoaren sortzaileen doktrinaren berri ere ematen du. Beren teoria hasiberriek ez dute ekoizpen kapitalistaren egoera hasiberria, klaseko baldintza berria, islatu besterik egiten. Burutik atera nahi zen arazo sozialen konponbidea, oraindik garatu gabe zeuden garaiko baldintza ekonomikoetan ezkutuan zegoena. Gizarteak gaitzak besterik ez zituen biltzen, arrazoimen pentsalariak erremediatu behar zituen gaitzak. Horregatik ordena sozialeko sistema berri eta perfektuago bat aurkitzea zen helburua, kanpotik gizartean ezartzeko, propagandaren bidez, eta posible bada, ereduarekin, jarraibide gisa balioko zuten esperimientuen bidez. Sistema sozial horiek utopiaren erreinuan mugitzera kondenaturik jaiotzen ziren; zenbat eta xehatuagoak eta zorrotzagoak izan, orduan eta gehiago erori behar zuten fantasia hutsetan.

Hori finkaturik, ez dugu zertan une bat gehiago geratu aspektu horretan, behin betiko iraganean txertaturik baitago. Utz diezaiegun trapu-saltzaile literarioei, gaur barregura eragiten dutela diruditen fantasia hauek irmoki nahas ditzaten, horrela “astakerien mukuru” horren hondoaren inguruan, beren arrazonamendu zentzudunaren gailentasuna nabarmendu dezaten. Guk berriz, miretsi egiten ditugu fantasiatzko estalki horren azpian alde guztietatik jaiotzen diren ideien germen bikainak eta ideia jenialak, eta aldiz filistiarrak ez dira gai horiek ikusteko.

Saint-Simon Frantziako Iraultza Handiaren semea zen, berak oraindik hogeita hamar urte ere ez zituela lehertu zena. Iraultza hirugarren estatuaren garaipena izan zen, hau da, bere ardurapean ekoizpena eta komertzioa zeukan nazioko masa aktibo zabalarena, ordura arte gizarteko estamentu as-

tidun eta pribilegiatu zirenen aurrean: noblezia eta kleroa. Baina segituan ikusi zen hirugarren estatuaren garaipena, bertako zati oso txiki baten garaipena besterik ez zela, botere politikoaren eskuratzea zela klase horretako sektore sozialki pribilegiaturiko sektorearen aldetik: burgesia jabetzaduna. Burgesia hori, gainera, azkar ari zen garatzen iraultzaren prozesuan, aristokraziari eta Elizari konfiskaturiko eta gero saldutako lurrekin espekulatzen, eta armadarentzako hornikuntzen bidez nazioari iruzur eginez. Iruzurgile hauen gobernua izan zen hain zuzen ere, Direktorioan zehar, Frantzia eta iraultza hondamendiaren ertzera eramán zituena, horrekin Napoleoni bere estatu kolperako aitzakia luzatuz. Horregatik, Saint-Simonen ideian, hirugarren estatuaren eta gizarteko estamentu pribilegiatuen arteko antagonismoak “langileen” eta “astidunen” arteko antagonismoaren forma hartu zuen. “Astidunak” ez ziren iraganeko pribilegiatuak bakarrik, baita, ekoizpenean eta komertzioan parte hartu gabe, beren errentetatik bizi ziren guztiak ere. “Langileen” kontzeptuan ez ziren soldatapeko langileak bakarrik sartzen, baita fabrikatzaileak, merkatariak eta bankariak ere. Astidunek, izpiritualki zuzentzeko eta politikoki gobernatzeko gaitasuna galdu zutela begi bistakoa zen eta iraultzak behin betiko itxi zuen hori. Eta, Saint-Simonentzat, terrorearen garaiko esperientziak frogatu zuen, aldi berean, alkandora gabeek ere ez zeukatela horretarako gaitasuna. Orduan zeinek zuzendu eta gobernatu behar zuen? Saint-Simonen arabera, zientziak eta industriak lotura erlijioso berri batekin baturik, “kristautasun berri” bat, ezinbestean mistikoa eta zorrozki hierarkikoa, ideia erlijiosoen batasuna berrezartzera deiturik egongo zena, izan ere, hau hautsirik baitzegoen Erreformaz geroztik. Baina zientzia jakintsu akademikoak ziren; eta industria, lehenik eta behin, burges aktiboak, fabrikatzaileak, merkatariak eta bankariak. Eta nahiz eta burges hauek funtzionario publiko moduko zer-baitetan eraldatu beharko zuten, gizarte guztiarentzako konfiantzazko gizonetan, beti mantenduko zuten langileen aurrean posizio autoritario eta ekonomikoki pribilegiatu bat. Bankariak izango ziren lehen maila batean kredituaren arautzearen bidez ekoizpen sozial guztia erregulatzeko zeregina izango zutenak. Ikusmolde hori modu bikain batean zetorren bat Frantzian industria handia, eta berarekin burgesiaren eta proletalgoaren

arteko antagonismoa, apenas ernatzen hasi zen garai batekin. Baina Saint-Simonek oso bereziki honako hau nabarmentzen du: bera arduratzen duena beti eta lehen mailan gizarteko “klase ugarienaren eta pobreenaren” zoria da (“*la classe la plus nombreuse et la plus pauvre*”).

Sain-Simonek jada bere *Karta genevarretan* ezartzen du “gizon guztiek lan egin behar duten” tesia. Lan berean, jada adierazten da terrorearen agintea gabeturiko masen gobernuaren ideia.

“Ikus ezazue —oihukatzen die— Frantzian gertatu zena, zeuon kamaradak boterera igo zirenean, beraiek eragin zuten gosetea”. Baina Frantziako iraultza klase arteko borroka bat bezala ulertzea, eta ez soilik nobleziaren eta burgesiaren artekoa, baizik eta gainera nobleziaren, burgesiaren eta gabetuen artekoa, 1802. urterako, aurkikuntza benetan bikaina zen. 1806ean, Saint-Simonek politika ekoizpenaren zientzia dela aldarrikatzen du eta jada, ekonomiak politika erabat xurgatuko duela aurreikusten du. Eta hemen agertu besterik ez bada egiten ere, germen moduan, egoera ekonomikoa instituzio politikoen oinarria denaren ideia, jada argi eta garbi aldarrikatzen du gizakien gaineko gobernu politikoa gauzen administrazio batean eta ekoizpenaren prozesuen norabidean eraldatu beharra dagoela; hori “Estatuaren abolizioaren” ideia baino ez da, azken aldiain hainbeste hauts arrotzen duena. Eta, bere garaikideen gainetik nagusitasun maila berean altxatuz, 1814ean, Parisen tropa batuak sartu eta berehala adierazten du, eta berriaz baieztatzen du 1815ean, Ehun Eguneko⁴⁸ gerran zehar, Frantziaren eta Ingalaterraren arteko aliantza dela eta, bigarrenik, herrialde hauena Alemaniarekin, berme bakarra Europan garapen oparorako eta bakerako. 1815eko frantsesei Waterlooko⁴⁹ garaileekin aliantza bat predikatzeke, perspektiba historiko adina adore behar zen.

48. *Ehun Egunak*: Napoleon I.aren Inperioaren berrezarpeneko aldi motza, Elba irlako erbestetik Parisera itzuli zen momentutik, 1815eko martxoaren 20a, bere bigarren abdikaziora arte iraun zuena, urte bereko ekainaren 22a.

49. 1815eko ekainaren 18an, Napoleon I.aren armada Wellingtonek zuzendutako tropa anglo-holandarrek eta Blücherren armada prusiarrek garaitua izan zen *Waterlooko* batailan (Belgika).

Saint-Simonen, jada germen moduan, ondorengo sozialisten ia ideia ez hertsiki ekonomiko guztiak jasotzea baimentzen dion kontzeptuen zabaltasun bikain bat dena, Fourierren, dauden baldintza sozialen kritika zorrotza da, benetan frantseza, baina ez horregatik sakontasun gutxiagokoa. Fourierrek hitza hartzen die burgesiari, bere iraganeko profeta argiztatuei eta iraultzaren ondorengo lausengari interesatuei. Gupidarik gabe jartzen du larru gorritan mundu burgesaren miseria material eta morala, eta hau ilustratu zaharren promesa txundigarriekin alderatzen du, arrazoimenak bakarrik gobernatuko zuen gizarteaz, gizaki guztiak zoriontsu egingo zituen zibilizazioaz zuten irudiarekin, non gizakien perfektionatzeko gaitarsuna mugagabea izango baitzen. Mozorroa kentzen die garai-ko ideologo burgesen esaldi distiratsuei, hotsandiko esaldi horiei nola, alde guztietatik, errealitaterik miserableenak erantzuten dien frogatzen du eta fraseologiazko nahaspila zaratatsu horren gainean bere satira garratza iraultzen du.

Fourier ez da kritiko bat bakarrik; bere izpiritu beti alaiak, garai guztietako satiriko handienetariko bat bihurtzen du. Olatu iraultzailearen beheraldiarekin piztu zen espekulazio kriminala eta urte horietako merkataritza frantsesaren izpiritu zikoitza, maisutasunezko trazu atsegin batekin marraturik agertzen dira bere idazlanetan. Baina oraindik maisutasun handiagokoa da sexuen arteko erlazioen forma burgesaren eta gizarte burgesean emakumeak duen posizioaren kritikan. Lehenengoa da aldarrikatzen, gizarte batean emakumeak duen emantzipazio maila, emantzipazio orokorraren neurria dela.

Hala ere, Fourier gizartearen historia ulertzeko duen moduan nabarmentzen da gehien. Fourierrek aurreko historia guztia lau faseetan edo garapen etapetan zatitzen du: basatarsuna, patriarkatua, basakeria eta zibilizazioa, azken fase hau bat datorrelarik gaur egun gizarte burges deitzen dugunarekin, hau da, XVI. mendetik ezarririko erregimen sozialarekin, eta azaltzen du “ordena zibilizatuak modu konplexu, ambiguo, herratu eta hipokrita batean jasotzen dituela basakeriak sinpletasun handienaren erdian praktikatzen zituen bizio haiek guztiak”. Berarentzat, zibilizazioa “gurpil zoro” batean mugitzen da, kontraesanen ziklo batean, etengabe erreproduzitzen ari dena gainditzen asmatu gabe, beti nahi duenaren edo aitzakia

moduan lortu nahi duela dioenaren hain zuzen ere aurkakoa lortuz. Eta horrela aurkitzen dugu, esate baterako, “zibilizazioan pobrezia ugaritasunetik bertatik jaiotzen dela”. Ikusten denez, Fourierrek bere garaikide Hegelen maisutasun berarekin maneiatzen du dialektika. Gizakiaren perfektionatzeko gaitasun mugagabeaz hitz egiten ahoa betetzen dutenen aurrean, nabarmentzen du, dialektika berarekin, fase historiko orok bere goranzko alderdia duela, baina baita bere beheeranzko malda ere, eta ikuspegi hau gizateri guztiaren etorkizunaren gainean proiektatzen du. Eta Kantek naturaren zientzian etorkizuneko Lurra-
ren amaieraren ideia sartzen duen bezala, Fourierrek bere historiaren azterketan gizateriaren etorkizuneko azkena sartzen du.

Iraultzaren urakanak Frantziako lurzorua garbitzen zuen bitartean, Ingalaterran prozesu iraultzaile bat garatzen ari zen, lasaiagoa, baina ez horregatik indar gutxiagokoa. Lurrunak eta makina-erremintak manufaktura industria modernoan bihurtu zuten, horiekin gizarte burgesaren oinarri guztiak irauliz. Manufakturaren aldiko garapen erritmo lokartua ekoizpenaren garapen oldarkorraren aldiari bihurtu zen. Abiadura geroz eta bizkorragoarekin, gizartearen zatiketa ematen ari zen kapitalista handien eta proletario gabetuen artean, eta horien erdian, iraganeko erdi mailako klase egonkorraren ordean, artisaunen eta merkatari txikien masa ezegonkor batek, herritarren zati gorabeheratsuenak, existentzia zalantzati bat zeraman.

ekoizpen modu berria, bere goranzko aldetik igotzen has-
ten bakarrik ari zen; baldintza haietan, ekoizpen modu norma-
la, erregularra, zen oraindik posible bakarra. Eta, hala ere,
garai hartan jada hainbat sarraski sozial larri sortu zituen:
beren lurzorutik erauziriko biztanleriaren pilaketa hiri han-
dietako auzorik zikinenetan; lanaldiaren neurritz kanpoko lu-
zapena, batez ere emakumeetan eta haurretan beldurtzeko
moduko neurriak hartzen zituelarik; langile klasearen desmo-
ralizazio masiboa, bat batean bizi baldintza erabat berrietara
jaurtia; landatik hirira, nekazaritza-
tik industriara, egoera egonkor batetatik etengabe aldakorra eta zalantzakorra den beste egoera batetara.

Baldintza horietan, hogeita bederatzi urteko fabrikatzaile bat altxatzen da erreformatzaile moduan, bere xalotasun ia infantilak sublimea urratzen zuen gizon bat eta, aldi berean,

gutxi bezalako zuzendari petoa zena. Robert Owenek XVIII. mendeko ilustratu materialisten ikasgaiak asimilatu zituen; horien arabera gizakiaren izaera alde batetik, bere jaiotzetiko eraketaren produktua da, eta bestetik, bere bizitzan zehar, eta batez ere bere garapen aldian zehar, gizakia inguratzen duten zirkunstantzien fruitua da. Bere klaseko gizonen gehiengoak iraultza industrialean kaosa eta nahasmena besterik ez zuen ikusten, aukera on bat ibai nahasian arrantzatzeko eta azkar aberasteko. Owenek, bertan, bere tesi gogokoena praktikan jaritzeko eremu egokia ikusi zuen, kaosean ordena sartuz. Jada Manchesterren, bostehun langiletik gorako fabrika bat zuzentzen ari zela, saiatu zen, ez arrakastarik gabe, bere teoria praktikoki aplikatzen. 1800etik 1829ra arte zentzu horretan bideratu zuen, nahiz eta iniziatiba askatasun askoz handiagoarekin eta Europa mailako fama balio izan zion arrakastarekin, New Lanarkeko kotoi irundegi fabrika handia Eskozian, bertako bazkide eta gerente izanik. Pixkanaka 2.500 arima arte igotzen joan zen biztanleri bat, hasieran elementu heterogeneoen artean erreklutatua, horietako gehiengo oso desmoralizatua, bere eskuetan eredu zko kolonia bat bihurtu zen, non ez zen ezagutzen mozkorkeriarik, poliziarik, bake-epailerik, prozesurik, behartsuentzako babes-etxerik, ezta benefizentzia publikoa ere. Horretarako, nahikoa izan zuen bere langileei bizi baldintza gizatiarragoak ematearekin, beren ondorengoen hezkuntzari arreta berezia eskainiz. Owen eskolaurreen sortzailea izan zen, New Lanarken funtzionatu zutelarik lehen aldiz. Haurrak bi urteetatik bidaltzen ziren eskolara, eta hain gus-tura sentitzen ziren bertan, ezen zaila egiten zela beren etxetara bueltan eramatea. Bere lehiakideen fabriketan langileek egunero hamahiru eta hamalau ordura arte lan egiten zuten bitartean, New Lanarken lanaldia hamar ordu eta erdikoa zen. Kotoiaren krisi batek fabrika lau hilabetez ixtera behartu zuenean, New Lanarkeko langileak, lanik gabe geratu ziren arren, beren soldatak osorik kobratzen jarraitu zuten. Eta horrekin guztiarekin, enpresak bikoiztu egin zuen bere balioa eta nagusiei irabazi handiak errenditu zizkieten azken egunera arte.

Hala ere, Owen ez zegoen pozik lortutakoarekin. Bere langileei erdietsi zien existentzia oso urrun zegoen, bere begietan, gizaki batentzako existentzia duina izatetik. “Pertsona haiek

nire esklaboak ziren”, esaten zuen. Kokatu zituen baldintza erlatiboki mesedegarriak, oraindik oso urrun zeuden, izaera eta adimena bere aspektu guztietan arrazionalki garatzea baimentzeko, eta are gutxiago beren energiak libreki askatzen uzteko. “Eta, hala ere, 2.500 arimetako biztanleri haren zati produktiboak gizarteari ematen zion aberastasun errearen baturak, apenas mende erdi bat lehenago 600.000 langilek batera egindako lana eskatuko zuen. Eta nik galdetzen nion neurre buruari: Nora doa 2.500 pertsona hauek kontsumituriko aberastasunaren eta 600.000 pertsonen kontsumitu beharko zutenaren arteko ezberdintasuna?” Erantzuna argia zen: ezberdintasun hori enpresako jabeen instalazioko kapitalaren gaineko interesaren ehuneko bosta ordaintzen erabiltzen zen, horrek irabazien 300.000 libra esterlina baino gehiago hartzen zituelarik. Eta New Lanarken kasua, Ingalaterrako fabrika guztiena zen, are neurri handiagoetan. “Makinak sorturiko aberastasun iturri berri hori gabe, ezinezkoa izango zen Napoleon eraisteko gerrak aurrera eramatea eta gizarte aristokratikoen printzipioak zutik mantentzea. Eta, hala ere, botere berri hori langile klasearen obra zen”*. Bereak izan beharko lukete, horrenbestez, horren fruituak ere. Ekoizpen indar berriak eta erraldioak, ordura arte gutxi batzuk aberasteko eta masen esklabotzarako bakarrik balio izan zutenak, Owenen arabera, berreraikuntza sozial baterako oinarriak ematen zituzten eta jabetza kolektibo bezala bakarrik lan egitera deiturik zeuden, ongizate kolektiboarentzat.

Horrela izan zen, bide praktikoko huts honetatik, nolabait esatearren, negozio gizon baten kalkuluen fruitu gisa, komunismo owendarra sortu zen modua, momentu orotan izaera praktikoko hori mantendu zuena. Horrela, 1823an, Owenek kolonia komunisten sistema bat proposatzen du Irlandan nagusi zen miseria borrokatzeko eta, bere proposamena babesteko, establizimendu gastuen aurrekontu osatu bat, urteroko gastuak eta

* “The Revolution in Mind and Practice” (“iraultza gogamenean eta praktikan”), memorial bat “Europako errepublikar gorri, komunista eta sozialista” guztiei zuzendua . 1848ko Behin behineko Gobernuari bidali zitzaion, hala nola, baita Victoria erreginari eta bere aholkulari arduradunei ere (Engelsen oharra).

diru sarrera frogagarriak aurkezten ditu. Eta horrela, etorki-zuneko gizarteko bere behin betiko planetan ere, detaile teknikoak materia halako moduan menderatuz kalkulatorik daude, diseinuak ere sartuz, aurretiko eta goitiko bistetako marrazkiekin, ezen behin gizartearen erreforma metodo owendarra onartuta, eragozpen gutxi jarri ahalko zituela, baita tekniko adituak ere, bere antolakuntzaren xehetasunen aurka.

Komunismorantz aurrera egitea momentu erabakigarria da Owenen bizitzan. Filantropo bezala bakarrik jardutera mugatu zen bitartean, aberastasunak, txaloak, ohorea eta fama besterik ez zituen jaso. Europako gizonik ospetsuena zen. Bere klase eta posizio sozialeko gizonak ez ezik, gobernari eta printzeek ere entzuten eta onartzen zuten. Baina, bere teoria komunistak publiko egin zituenean buelta eman zuen orriak. Hiru oztopo handi ziren nagusiki, bere arabera, erreforma sozialaren bidean altxatzen zirenak: jabetza pribatua, erlijioa eta indarrean den ezkontza forma. Eta jakin bazekien horiek erasoz arriskatzen zuena: gizarte ofizial guztitik erbesteratzea eta bere posizio soziala galtzea. Baina ardura horrek ez zuen geratu instituzio horien aurkako bere eraso gupidagabeetan, eta aurreikusten zuena gertatu zen. Gizarte ofizialetik erbesteraturik, prentsak erabat bazterturik, Ameriketako esperimentu komunistetako porrotengatik lur jota, bere dirutza guztia sakrifikatu baitzuen, langile klasera zuzendu zen, bere barnean jardun zuelarik oraindik hogeita hamar urtez. Mugimendu sozial guztiak, Ingalaterran langile klasearen interesen erregraturiko benetako aurrerakuntza guztiak, Owenen izenarekin elkaturik doaz. Horrela, 1819an, ahalegin handiko bost urteren ondoren, lortu zuen fabriketan emakumeen eta haurren lana mugatzen zuen lehen legea bozkatua izatea. Bera izan zen, Ingalaterra guztiko *trade unionsak* erakunde sindikal bakar batean fusionatu ziren lehen kongresuko burua⁵⁰. Eta bera izan zen baita ere, gizartea modu osoki komunistan an-

50. 1833ko urrian, Londresen, Owen buru zuela, sozietate kooperatiboen eta sindikatuen Kongresua ospatu zen, non formalki, "Britainia Handiko eta Irlandako ekoizpenen Batasun Handi Nazional Finkatua" sortu zen. Gizarte burgesaren eta Estatuaren aldetik erresistentzia handi batekin topo egitean, batasuna erori egin zen 1834eko abuztuan.

tolatu ahal izateko trantsizio neurri bezala, alde batetik, ekoizpen eta kontsumo kooperatibak sortu zituena —gutxienez merkataria eta fabrikatzailea ezinbestekoak ez direla frogatzeko balio izan dutelarik— eta bestalde, langile azokak sortu zituena, lanaren produktuak lan bonoen bidez elkar trukatzeko establezimenduak zirenak, bonoen unitatea errendituriko lan ordua izanik; establezimendu hauek nahitaez porrot egin behar zuten, baina elkartrukeko Banku proudhondarrak⁵¹ aurreratu zituzten; horietatik ezberdintzen zuten gauza bakarra helburua ez zela gaitz sozial guztientzako panazea unibertsa-la izatea zen, baizik eta sinpleki gizartearen eraldaketa askoz erradikalago baterantz emandako lehen pausoa zirela.

Utopisten kontzeptuak denbora askoan zehar gailendu dira XIX. mendeko ideia sozialistetan, eta hein batean oraindik ere nagusitzen jarraitzen dute. Orain dela denbora oso gutxira arte, sozialista frantses eta ingeles guztiek gurtzen zituzten, eta beraiei dagokie baita komunismo alemaniar hasiberria ere, Weitling barne. Sozialismoa, beraientzat guztientzat, egia absolutuaren, arrazoimenaren eta justiziaren adierazpidea da, eta nahikoa da hura aurkitzea bere bertute hutsak mundua konkistatu dezan. Eta, egia absolutua ez dagoenez espazio eta denbora baldintzei loturik, ezta gizateriaren garapen historikoari ere, zoriak bakarrik erabaki dezake noiz eta non agertu behar den aurkikuntza hori. Horri gehitu behar zaio, egia absolutua, arrazoimena eta justizia aldatu egiten direla eskola bakoitzaren sortzaileekin: eta, egia absolutuaren, arrazoimenaren eta justiziaren izaera espezifikoa baldintzatua dagoenez, aldi berean, horietako bakoitzean, adimen subjektiboagatik, bizi baldintzengatik, egoera kulturalagatik eta gogamenaren diziplinagatik, ondorioz egia absolutuen arteko gatazka honetan ez dago batzuek besteak leuntzen joatea beste konponbiderik. Eta, horrela, saihestezina zen sozialismo eklettiko eta hala-moduzko bat sortzea, hain zuzen ere, oraindik Frantziako

51. Proudhonek trukeko banku bat antolatzeko saiakera egin zuen 1848-1849ko iraultzan zehar. Bere "*Banque du peuple*" (Herriaren Bankua) Parisen fundatua izan zen 1849ko urtarrilaren 31ean eta bi hilabete inguru existitu zen, porrot egin zuelarik funtzionatzen hasi aurretik. Apiril hasieran bankua itxi egin zen.

eta Ingalaterrako langile sozialisten gehiengoaren buruetan agintzen jarraitzen duena bezalako; nahaspila izugarri pirkardatua eta nabardurez betea, huste kritikoez, doktrina ekonomikoez eta sekten sortzaile ezberdinen etorkizuneko irudi sozial eztabaidaezinez osatua; nahaspila hori konposatzen are errazagoa egiten zen, osagai indibidualak beren ertz perfiatuak eztabaidaren uharkan galtzen joan ziren heinean, ibai baten korronteak higaturiko harri-koskorak bailiran. Sozialismoa zientzian bihurtzeko, ezinbestekoa zen, lehenik eta behin, errealitatearen lurrean ezartzea.

II

Bien bitartean, XVIII. mendeko filosofia frantsesarekin batera, eta haren atzetik, filosofia alemaniarra sortu zen, Hegelekin gailurrera iritsi zena. Filosofia horren meritu nagusia, dialektika pentsamenduaren forma goren gisa berrezarri izana da. Antzinako filosofo greziarrak dialektiko petoak ziren guztiak, espontaneoak, eta haien guztien buru unibertsalena, Aristoteles, jada iritsi zen pentsatze dialektikoaren forma funtsezkoenak aztertzeraz. Aldiz, filosofia berriak dialektikaren mantentzaile bikain bat edo beste eduki arren (esate baterako, Descartes eta Spinoza), geroz eta gehiago erortzen joan zen, batez ere ingelesek eraginda, pentsatzeko modu metafisikoa deritzon horretan, XVIII. mendeko frantsesen artean ere ia erabat gailendu zelarik, behintzat euren idazlan bereziki filosofikoetan. Arlo hertsiki filosofikotik kanpo, haiek ere dialektikaren maisulanak sortu zituzten; lekuko gisa nahikoa dugu aipatzea Dideroten *Rameauren iloba*, eta Rouseauren *Gizakien arteko desberdintasunaren jatorriari eta oinarriei buruzko mintzaldia*. Hemen, motzean, bi metodo diskurtsiboen ezaugarri funtsezkoenak laburtuko ditugu.

Naturaren inguruan, historiaren inguruan, edo gure jardura intelektualaren beraren inguruan pentsatzen jartzen bagara, lehenik eta behin kateamenduen eta elkarren arteko influentzien trama infinitu batekin egiten dugu topo, non ezerk ez duen irauten lehen zenean, ezta nola zenean eta non zegoenean ere, baizik eta dena mugitu eta aldatu egiten da, jaino eta hil. Orogen gainetik, beraz, osotasunaren irudia ikusten dugu, non xehetasun guztiak oraindik gutxi gora behera bigarren mailara pasatzen diren; mugimenduan, trantsizioetan, kateamenduetan gehiago ohartzen gara mugitzen, aldatzen eta kateatzen *den horretan* baino. Munduaren ikuspegi hori, primitiboa, inozentea, baina funtsean zuzena, antzinako filosofo grekoek zuten hura da, eta lehen aldiz Heraklitorekin agertzen da modu argi batean adierazia: dena da eta ez da, dena *isurian dago*, dena eraldaketazko prozesu jarrai bati loturik dago, etengabeko jaiotze eta iraungitzeari. Baina ikus-

molde hori, nahiz eta fenomenoek eskaintzen diguten koadro orokorraren izaera zehaztasunez islatu, ez da nahikoa koadro oso hori osatzen duten elementu isolatuak azaltzeko; horiek ezagutu gabe, irudi orokorrak ere ez du zentzu argi bat hartuko. Xehetasun horietan barneratzeko beraien lotura historikotik edo naturaletik erauzi behar ditugu eta bananduta aztertu, bakoitza bere hartan, bere izaeran, kausa eta ondorio berezietan, etab. Hori da zientzia naturalen eta historiaren zeregin nagusia eta greziar klasikoek azterketa adar hauek, arrazoi oso justifikatuengatik, erabat bigarren maila batean kokatzen zituzten, zeren lehenik eta behin beharrezko material zientifikoak pilatzeari ekin behar baitzioten. Material naturalen eta historikoen kopuru jakin bat biltzen ez den bitartean, ezin daiteke gauzatu azterketa kritikoa, konparaketa eta, horrenbestez, zatiketa klaseetan, ordenetan eta espezieetan. Horregatik, zientzia natural zehatzen hastapenak ez ziren garatu aldi alexandriariko greziarretara iritsi arte, eta beranduago, Erdi Aroan, arabiarren eskutik; benetako zientzia naturala XV. mende erdialdean bakarrik hasten da, eta, harrezkero, erritmo etengabe bizkorrago batean garatu baino ez da egin. Naturaren azterketa bere atal ezberdinetan, prozesu eta objektu natural ezberdinen sailkapena kategoriaz zehatzetan, gorputz organikoaren barne azterketa beren egitura anatomiko ezberdinen arabera, beste hainbeste funtsezko baldintza izan ziren azken lauhun urtetan naturaren ezagutza zientifikoan burutu diren aurrerapen erraldoiak eman zitezen. Baina azterketa metodo horrek, aldi berean, naturako gauzak eta prozesuak isolatuki begiratzeko ohitura utzi digu, osotasun handiaren kaiteamendutik erauzita; horrenbestez, ez beraien dinamikan, estatikoki begiraturaz baizik; ez substantzialki aldakor moduan, trinkotasun finko gisa baizik; ez beraien bizitzan, heriotzan baizik. Horregatik behaketa metodo horrek, Baconekin eta Lockerekin zientzia naturaletatik filosofiara pasatzean, azken mendeetan bereizgarria izan den hertsikeria espezifikoa eragin zuen: pentsamolde metafisikoa.

Metafisikoarentzat, gauzak eta hauen pentsamenduko irudiak, kontzeptuak, ikerketa objektu isolatuak dira, zurrinak, bata bestearen atzetik behatuak, bakoitza bere baitan, emandakoa eta iraunkorra den zerbait bezala. Loturarik gabeko

hainbat antitesietan pentsatzen du; bere diskurtsoa da: bai, bai; ez, ez; hortik haratago dagoena, gaizkiarena da. Berarentzat, gauza bat existitzen da edo ez da existitzen; objektu batek ezin du izan aldi berean badena eta beste ezberdin bat. Positiboa eta negatiboa absolutuki elkartezinak dira. Kausak eta ondorioak beraz, euren begietan, antitesi zurrun baten forma hartzen dute. Lehen begiradan, metodo diskurtsibo hau izugarri zentzuduna iruditzen zaigu, sen ona deritzonarena baita. Baina sen onak berak, pertsonaia oso errespetagarria bere etxeko lau pareren barnean, gorabehera benetan zoragarriak bizitzen ditu ikerketaren zelai zabaletan barneratzen den bezain laster; eta pentsamolde metafisikoa, oso justifikatua izan arren eta baita beharrezkoa ere pentsamenduko gune askotan, dagokion objektuaren arabera zabalera gutxiago edo gehiago duten guneak, beti estropezu egiten du, lehenago edo beranduago, hesi batekin, hura zeharkatzean aldebakarreko metodo bihurtzen delarik, mugatua, abstraktua, eta ezin ebatzizko kontraesantetan galtzen dena, zeren, objektu konkretuek xurgaturik, ez baitu horien arteko kateamendua ikustea lortzen; horien existentziaz arduraturik, ez da pentsatzen jartzen beren genesian ez beren iraungitzean; horien gelditasunean kontzentraturik, ez da beren dinamikaz ohartzten; zuhaitzekin obsesionaturik, ez du basoa ikustea lortzen. Eguneroko errealtatean badakigu eta arrazoi osoz esan dezakegu, esate baterako, animalia bat existitzen den edo ez; baina, gauza arreta gehiagoz aztertuz, batzuetan arazoa dezente konplikatzen dela ohartzen gara, juristek oso ondo dakiten moduan, hainbestetan eta hain alferrik hautsi izan baitute burua, amaren sabelean dagoen haur baten heriotza hilketatzat hartu beharko zen auziari muga arrazional bat aurkitzeko; ez da hain erraza heriotzaren momentua finkoki zehaztea ere, aldiro fisiologiak erakutsi izan baitu heriotza ez dela bat bateko fenomeno, berehalakoa, prozesu luzea baizik. Modu berean, izaki organiko oro, uneoro, berbera da eta beste bat da; uneoro ari da kanpotik hartutako materialak bereganatzen eta beste batzuk bere barnetik ezabatzen; uneoro, bere organismoan zelula batzuk hiltzen dira eta besteak jaiotzen; eta, aldi gutxi gora behera luze batean, hura osaturik dagoen materia erabat berriztatzen da, eta materia atomo berriak zaharren tokia betetzera etortzen dira, hori dela eta,

izaki organiko oro, aldi berean, badena eta beste ezberdin bat delarik. Halaber, gauzak arretaz begiraturaz gero, antitesi baten poloak, positiboa eta negatiboa, bata bestearekiko antitetikoak diren bezain banaezinak direla ohartzen gara eta beren antagonismo guztiaz gain, elkarren artean barneratzen direla; eta kausak eta ondorioak, horrela kasu konkretuko beren aplikazioan bakarrik balio duten adierazpideak direla ikusten dugu, baina, kasu konkretua unibertsoaren osotasunezko irudiaren kateamenduan aztertuz, ekintzen eta erreakzioen trama unibertsal baten ideian elkartzen eta desegiten dira, non kausak eta ondorioak etengabe lekualdatzen diren eta orain edo hemen ondorio dena, gero edo han kausa izaera hartzen duen eta alderantziz.

Fenomeno eta metodo diskurtsibo horietako bat bera ere ez da kabitzen espekulazio metafisikoen koadroan. Aldiz, dialektikarentzat, gauzak eta beren irudi kontzeptualak substantzialki elkarren arteko loturetan, beren kateamenduan, beren dinamikan, beren sorrera eta iraungitze prozesuan behatzen dituzenez, azaldurikoak bezalako prozesuak jarduteko duen zinezko moduaren beste hainbeste berrespen baino ez dira. Natura dialektikaren froga da, eta zientzia natural modernoek frogarretarako datuen ondare izugarri oparoak eta igarotzen den egun bakoitzeko aberastuagoak ematen dizkigute, horrekin frogatuaz natura, azken finean, ibilgu dialektikoetatik mugitzen dela eta ez errail metafisikoetatik; ez dela mugitzen etengabe errepikatzen den ziklo baten betiereko monotonian, baizik eta benetako historia bat igarotzen duela. Hemen lehenik eta behin Darwin aipatu behar dugu, existitzen den natura organiko oro, landareak eta animaliak, eta horien artean, logikoa den bezala, gizakia, milioika urte irauten duen garapen prozesu baten emaitza direla frogatzearekin, golperik latzena eman baition naturaren ikusmolde metafisikoari. Baina, gaur arte, dialektikoki pentsatzen jakin izan duten naturalistak behatzerkin konta daitezke, eta aurkituriko emaitzen eta metodo diskurtsibo tradizionalaren arteko gatazka horrek biluzirik jartzen du egun zientzia natural teorikoetan gailentzen den nahasmen mugagabea, maisuen eta ikasleen, autoreen eta irakurlearen desesperazioa sortzen duena.

Dialektikaren bideari jarraituz bakarrik, bilakaeraren eta heriotzaren, aurrerapausoen eta atzerantzko pausoen aldaketan,

ekintza kontaezinak eta erlazio orokorrak bistatik galdu gabe bakarrik, iristen gara unibertsoaren ikuspegi zehatz batetara, bere garapenaren eta gizateriaren garapenaren, hala nola, garapen horrek gizakien buruetan proiektaturiko irudiaren ikuspegi zehatzera. Eta zentzu horretatik hasi zen, hain zuen ere, lehen momentutik, filosofia alemaniar modernoan lan egiten. Kantek bere filosofo karrera, Newtonen eguzki sistema eta —lehen bulkada famatua jaso ondoren— honen betiereko iraupea prozesu historiko batean deseginez hasi zuen, errotazioan zegoen masa nebuloso batetatik abiatutako eguzkiaren eta planeta guztien jaiotzarekin. Hemendik jada, deduzitu zuen jatorri horrek, ezinbestean, eguzki sistemaren etorkizuneko heriotza ere inplikatzeko zuela. Mende erdi bat geroago, Laplacek teoria hori matematikoki frogatu zuen, eta, beste mende erdi baten baitan, espektroskopioa espazioan kondentsazio gradu ezberdinetan dauden gasezko masa igneo horien existentzia frogatzera iritsi da.

Filosofia alemaniar modernoak bere gailurra Hegelen sisteman aurkitu zuen, lehen aldiz —eta honako hau da bere meritua— naturaren, historiaren eta izpirituaren mundu guztia prozesu bat bezala ulertzen duela, hau da, etengabeko mugimenduan, aldaketan, eraldaketan eta garapenean, eta gainera mugimendu eta garapen prozesu horren buru den lotura estua nabarmentzen saiatzen dela. Ikuspuntu horretatik begiraturik, gizateriaren historia ez zen agertzen jada biolentzia absurdoen kaos lehor baten moduan, denak berdin kondena zitezkeenak jada gaur egun heldurik dagoen arrazoi filosofikoaren foruaren aurrean, eta onak zirenak lehenbailehen ahaztuak izateko, baizik eta gizateriaren beraren garapen prozesu bezala agertzen zen; orain pentsamenduak hori bere etapa gradualetan eta desbideratze guztietan zehar jarraitu behar zuen, eta lehen begirada batean halaberhar itsuaren obra zela uste zitezkeen guztia gidatzen duten barne legeen existentzia frogatu behar zuen.

Ez du axola Hegelen sistemak planteatzen zuen arazoa ez ebatzi izanak. Bere meritua, garai bat markatu zuena, hori planteatzean oinarritu zen. Zeren inolako gizakik bakarrik ezin ebatz dezakeen arazoa baita hau. Eta Hegel, Saint-Simonekin batera, bere garaiko bururik unibertsalena izan arren, bere

ortzemuga mugaturik zegoen, lehenik eta behin, bere ezagutzen muga saihestezinegatik, eta, bigarrenik, bere garaiko ezagutzengatik eta ikusmoldeengatik, mugatuak baita zabaleran eta sakontasunean ere. Horri hirugarren baldintza bat gehitu behar zaio, Hegel idealista zen; hau da, berarentzat bere buruko ideiak ez ziren errealitateko objektuen eta fenomenoen irudiak, gutxi gora behera abstraktuak, baizik eta horiek eta beren garapena, alderantziz, "Ideiaren" proiektzio gauzatuak iruditzen zitzaizkion, jada existitzen zirenak, ez dakigu nola, mundua existitu baino lehen. Horrela, dena buruz behera geratzen zen, eta unibertsoaren benetako kateamendua erabat aldrebestua bihurtzen zen. Eta nahiz eta Hegelek bururaturiko konexio konkretuetako ez gutxi izan zehatzak eta baita jenialak ere, saihestezina zen, aipatu ditugun arrazoiengatik, bere xehetasunetako askok edukitzea izaera moldatua, artifiziosua, erai-kia; hitz batean, faltsua. Hegelen sistema abortu erraldoi bat izan zen, baina bere generoko azkena. Hain zuzen ere, barneko kontraesan sendaezin baten oinazea jasaten jarraitzen zuen; zeren, alde batetik ikuspegi historikoaren suposaketa esentzial bezala, gizateriaren historia, berezko izaeragatik, egia absolutua deitzen dien horren bilaketan ondorio intelektuala aurkitu ezin dezakeen garapen prozesu bat denaren ikuspegia erauzten zuen bitartean; bestetik, hala ere, hori egia absolutu horren batuketa eta sintesi gisa agertzen zaigu. Naturaren eta historiaren ezagutzaren sistema unibertsal eta finkoki eratu bat, bateraezina da pentsamendu dialektikoaren oinarritzko legeekin; horrek ez du baztertzen, baizik eta baztertzetik urrun inplikatu egiten du, kanpoko munduaren ezagutza sistematikoa bere osotasunean belaunaldiz belaunaldi izugarri aurreratu daitekeela.

Idealismo alemaniarra jausten zen erabateko alderantzketaren kontzientzia, ezinbestean materialismora joan zen; baina, ohar dadila ongi, ez XVIII. mendeko materialismo metafisiko huts eta eskusiboki mekaniko hartara. Aurreko historia guztiaren mespretxu sinplearen aurka, inozenteki iraultzailea zena, materialismo modernoak historian gizateriaren garapen prozesua ikusten du, honen lege dinamikoak aurkitzea delarik bere eginkizuna. XVIII. mendeko pentsalari frantziarretan, Hegelen antzera, gailentzen zen naturaren ideiaren, eta hau

osotasun egonkor eta aldagaitz bezala ulertzearen aurka, ziklo motzen barruan mugitzen zena, betiereko zeruko gorputzekin Newtonek irudikatzen zituen moduan, eta izaki organikoen espezie aldagaitzekin Linneok erakutsi zuen bezala, materialismo modernoak zientzia naturalen aurrerapen berriak laburtzen eta barnebiltzen ditu; horien arabera naturak ere badauka bere historia denboran zehar, eta munduak, hala nola baldintza egokietan bertan bizi diren espezie organikoak, jaio eta hil egiten dira, eta zikloek, onargarriak diren neurrian, dimentsio izugarri handiagoak hartzen dituzte. Kasu batean zein bestean, materialismo modernoak substantzialki dialektikoa da eta ez du jada beste zientzien gainetik aurkitzen den filosofia baten beharrik. Zientzia bakoitzak gauzen eta hauetaz dugun ezagutzaren koadro unibertsalean zein toki hartzen duen kontuak eman behar dituen momentutik aurrera, ez dago jada tarterik bereziki kateamendu unibertsalak ikertzera bideraturik dagoen zientzia batentzat. Aurreko filosofiatik existentzia propioarekin zutik geratzen den bakarra, pentsatzearen eta horren legeen teoria da: logika formala eta dialektika. Beste guztia naturaren eta historiaren zientzia positiboan desegiten da.

Hala ere, naturaren ikusmoldean emandako iraultza honek, ikerkuntzak zientziari bere material positiboak ematen zizkion neurrian bakarrik nagusitzea lortu zuen bitartean, denbora asko iragan zen jada historia ikusteko moduan biraketa erabakigarria eman zuten gertaera historiko jakin batzuk agertu zirela. 1831ean, Lyonen lehen langile altxamendua lehertzen da, eta 1838tik 1842ra puntu gorenera iristen da lehen maila nazionalako langile mugimendua: kartista ingelesena. Proletalgoaren eta burgesiaren arteko klase arteko borroka lehen maila hartzera pasa zen Europako herrialde aurreratuen historian, horietan, alde batetik industria handia, eta bestetik burgesiak eskuratu berri zuen aginte politikoa garatzearekin batera. Gertaerak geroz eta gezurtapen tinkoagoa ematera zetozen kapitalaren eta lanaren arteko interesak berdinak zirela zioten doktrina ekonomiko burgesei eta lehia askearen fruitu izango ziren armonia unibertsalaren eta nazioen ongizate orokorraren teoriei. Ez zegoen gertaera hauek ohar-kabea pasatzeko modurik, eta ezinezkoa zen ere sozialismo

frantsesa eta ingelesa kontuan ez hartzea, nahiz eta beren adierazpide teorikoa perfektua ez izan. Baina historiaren ikusmolde idealista zaharrak, oraindik baztertua izan ez zenak, ez zuen ezagutzen interes materialetan oinarrituriko klase arteko borroka, ezta inolako motako interes materialik ere; harentzat, ekoizpena, erlazio ekonomiko guztiak bezala, modu gehigarri batean existitzen zen, “historia kulturalaren” barnean bigarren mailako elementu bezala.

Gertaera berriek aurreko historia guztia ikerketa berrien menpean jartzera behartu zuten. Orduan ikusi zen, egoera primitiboa salbu, aurreko historia *guztia* klase arteko borroken historia zela, eta elkarren artean borrokatzen zuten klase sozial hauek garai guztietan ekoizpen eta truke erlazioen fruitu zirela, hau da, garaiko erlazio *ekonomikoen* fruitu: historiako garai bakoitzean gizarteko egitura ekonomikoak osatzen du, horrenbestez, benetako oinarria eta bere propietateek azaltzen dute, azken batean, garai historiko bakoitzeko gainegitura guztia, instituzio juridikoez eta politikoez osatzen dutena, hala nola ideologia erlijiosoak, filosofiak, etab.ek. Hegelek historiaren ikusmoldea metafisikatik askatu zuen, dialektikoa bilakatu zuen, baina bere historiaren interpretazioa funtsean idealista zen. Orain, idealismoa kaleratuta geratzen zen bere azken gotorlekutik, historiaren ikusmoldeetik, historiaren ikuspegi materialista batek ordezkaturik, eta horrekin bidea ireki zen gizakia-
ren kontzientzia bere existentziarekin azaltzeko, eta ez hori bere kontzientziarekin, ordura arte tradizionala zen bezala.

Horrela, sozialismoa ez zen agertzen jada halako edo bestelako adimen jenial baten aurkikuntza kasual gisa, historikoki eraturiko bi klaseren, proletalgoaren eta burgesiaren, arteko borrokaren nahitaezko emaitza gisa baizik. Bere eginkizuna jada ez zen gizarte sistema ahalik eta perfektuena eratzea, nahitaez klase horiek eta euren arteko gatazkak sortu behar zituen prozesu historiko ekonomikoa aztertzea baizik, gatazkaren konponbiderako bitartekoak horrela sortu den egoera ekonomikoan aurkituz. Baina sozialismo tradizionala bateragaitza zen historiaren ikusmolde materialista berri honekin, materialismo frantsesaren naturaren ikuspegia dialektikarekin eta zientzia natural berriekin bat etor ezin zitekeen bezala, ez gehiago ez gutxiago. Egia esan, aurreko sozialismoak ekoiz-

pen modu kapitalista eta bere ondorioak kritikatzten zituen, baina ez zuen asmatzen hori azaltzen, eta ezin zuen, beraz, hori ideologikoki suntsitu ere; ez zitzaion, leunki eta xaloki, txar bezala gaitzestea besterik geratzen. Zenbat eta bortitza-go erregutzen zuen langile klasearen esplotazioaren aurka, ekoizpen modu honetatik bereiztezina, orduan eta gutxiago zegoen esplotazio hau zertan oinarritzen zen eta nola jaiotzen zen modu argi batean azaltzeko balditzetan. Baina egin behar zena, alde batetik, ekoizpen modu kapitalista hori bere lotura historikotan azaltzea zen eta garai historiko jakin batetarako beharrezko bezala, horrekin bere erorketaren beharrezkotasuna ere frogatuz, eta, bestetik, bere barne izaera biluztu behar zen, oraindik ezkutuan zegoena. Hori agerian geratu zen *gainbalioaren* aurkikuntzarekin. Aurkikuntza horrek agertu zuen ekoizpen kapitalistaren erregimenak eta hortik ondorioztatzen den langilearen esplotazioak funtsezko forma gisa ordaindu gabeko lanaren jabetzea zuela; kapitalistak, langilearen lan indarra bere balio guztiarekin, merkantzia bezala merkatuan ordezkatzten duen balio guztiarekin, erosten duenean ere beti ateratzen duela ordaintzen diona baino balio gehiago eta gainbalio hori, azken batean, klase jabetzadunen eskuetan pilaturiko geroz eta kapital masa handiagoaren balio kopurua dela. Ekoizpen kapitalistaren prozesua eta kapital ekoizpenarena azaldurik zeuden.

Bi aurkikuntza hauek, historiaren ikuspegi materialista eta gainbalioaren bitartez ekoizpen kapitalistaren sekretua ezagutzera eramatea, Marxi zor dizkiogu. Horiei eskerrak, sozialismoa zientzia bihurtzen da, bere xehetasun eta kateamendu guztietan garatzea bakarrik geratzen zaigularik.

III

Historiaren ikusmolde materialista ordena sozial ororen oinarria ekoizpena, eta horren ondoren bere produktuen trukea denaren tesitik abiatzen da; historiatic desfilatzen duten gizarte guztietan, produktuen banaketa, eta horrekin batera, gizakien zatitze soziala klaseetan edo estamentuetan, gizarteak ekoizten duenagatik eta nola ekoizten duenagatik eta bere produktua aldatzeko moduagatik determinaturik dago. Horren araberak, aldaketa sozial guztien eta iraultza politiko guztien azken kausak ez dira gizakien buruetan bilatu behar ezta eurek betiereko egiaren edo betiereko justiziaren inguruan eratzen dituzten ideietan ere, ekoizpen eta truke moduan emandako eraldaketetan baizik; ez dira bilatu behar filosofian, dagokien garaiko ekonomian baizik. Gizakietan, indarrean dauden instituzio sozialak irrazionalak eta bidegabeak diren kontzientzia jaiotzen denean, arrazoimena zentzugabekeria bihurtu dela eta bedeinkapena izurrite, hori ekoizpen metodoetan eta truke moduetan isilpean, aurreko baldintza ekonomikoek mugaturiko ordena sozialarekin jada bat ez datozen eraldaketak eman diren seinale bat besterik ez da. Horrenbestez gertatzen da, jada egon behar dutela ekoizpen erlazio berrietan —gutxi gora behera garaturik— aurkitu diren gaitzekin amaitzeko beharrezko bitartekoak. Eta neurri horiek ez dira inoren burutik *atera* behar, baizik eta burua da ekoizpenaren gertaera materialean *aurkitu* behar dituenak, errealitateak bere horretan eskaintzen dituen bezala.

Zein da, aspektu honetan, sozialismo modernoaren jarrera?

Indarrean den ordena soziala —gaur egun ia mundu guztiak aitortzen duena— garai modernoetako klase menderatzailearen lana da. Burgesiaren berezko ekoizpen modua, Marxez geroztik ekoizpen modu kapitalista deritzona, bateraezina zen tokian tokiko eta estamentuetako pribilegioekin, ordena feudaleko pertsonarteko loturekin zen bezala. Burgesiak ordena feudala birrindu zuen eta bere hondakinen gainean gizarte burgesarren erregimena altxa zuen, lehia askearen, bizitoki askatasunaren, merkantzien jabe arteko eskubide berdintasunaren

inperioa eta beste hainbat mirari burges. Orain jada libreki garatu zitekeen ekoizpen modu kapitalista. Lurruna eta makinaren ekoizpen berria etortzean eta iraganeko manufaktura industria handian bihurtzean, burgesiaren agintepean sortu eta mugimenduan jarri ziren indar produktibo hauek harrigarritzko abiaduran eta ordura arte ezezagunak ziren neurrietan garatu ziren. Baina, bere garaian, haren eraginpean garatzen jarraitzen zuten manufakturak eta artisautzak gremioetako oztopo feudalekin tope egin zuten modu berean, gaur industria handia, garapen maila altuago batetara iritsi denean, ez da jada kabitzen ekoizpen modu kapitalistak uzkurturik daukan marko estuaren barnean. Ekoizpen indar berriek jada gainezka egiten dute esplotatuak diren modu burgesetik, eta ekoizpen indarren eta ekoizteko moduaren arteko gatazka hau ez da, hain zuzen ere, gizakien buruetan planteaturiko gatazka bat, gizakiaren jatorrizko bekatuaren eta justizia jainkotiarren arteko gatazka moduko zerbait bezala, baizik eta errealtatean existitzen da, objektiboki, gugandik kanpo, eragin duten gizakien borondatetik edo jardueratik independenteki. Sozialismo modernoa, gatazka horrek gogamenean duen isla baino ez da, horren proiektzio ideala buruetan, horren ondorioak zuzenean jasaten dituen klastetik hasiz: langile klasea.

Zertan datza gatazka hori?

Ekoizpen kapitalista iritsi baino lehenago, hau da, Erdi Aroan, ekoizpen txikia zen orokorrean nagusitzen zena eta langileak bere ekoizpen baliabideen jabetza pribatua edukitzean oinarritzen zen: landan, nekazari txikien ardurapean zegoen nekazaritza, askeak nahiz jopuak izan; hirietan, artisauen eskuetan zegoen industria. Lan baliabideak —lurra, laborantza aspektuak, tailerra, lan tresnak— lan baliabide indibidualak ziren, norbanakoaren erabilerara soilik bideratuak eta, beraz, ezinbestean, zekenak, ñimiñoak eta mugatuak. Baina horrek egiten zuen, orokorrean, ekoizlearenak berarenak izatea. Ekoizpen kapitalistaren eta bere eramailea den burgesiaren paper historikoa, hain zuzen ere, ekoizpen baliabide zeken eta sakanatu horiek kontzentratzean eta garatzean oinarritu zen, egun diren ekoizpen palanka boteretsuetan bihurtuz. Prozesu hau, XV. mendetik garatzen darama burgesiak eta historikoki hiru etapetatik pasatzen da, kooperazio sinplea, manufaktura

eta industria handia; Marxek prozesu hori zehaztasun osoz azaltzen du *Kapitalaren* laugarren atalean. Baina burgesiak, aipaturiko idazlanean frogatzen den moduan, ezin zituen ekoizpen baliabide horiek ekoizpen indar boteretsuetan bihurtu baliabide indibidualak baliabide *sozial* bihurtu gabe, *giza talde* batekin bakarrik manea daitezkeenak. Gorua, eskuzko ehungailua eta errementariaren mailua ordezkatuak izan ziren iruteko makinagatik, ehungailu mekanikoagatik eta lurrunez mugituriko mailuagatik; tailer indibidualak fabrikari utzi zion postua, zeinak ehunka eta milaka langileren kooperazioa ezartzen dituen. Eta, ekoizpen baliabideekin, ekoizpena bera ere eraldatu egin zen, ekintza indibidualen kate bat izateari utziz, ekintza sozialen kate bat bihurtzeko, eta produktu indibidualak, produktu sozial bihurtzeko. Orain fabrikatik ateratzen ziren haria, oihalak eta metalezko artikuluak, langile kopuru handi baten lan kolektiboaren emaitza ziren, zeinaren eskueztatik ondoz ondo pasa behar zuten beren eraketarako. Jada inork ezin zuen esan: hau *nik* egin dut, produktu hau *nirea* da.

Baina ekoizpenak funtsezko forma gisa lanaren banaketa sozial hori hartzen duen tokian, pixkanaka sortu dena, bulkada hutsez, inolako planetara lotu gabe, ekoizpenak produktuei *merkantziaren* forma ematen die, horien trukeak eta salerosketak, ekoizle indibidual ezberdinei beren behar ezberdinak asetzea baimentzen dielarik. Eta hori zen Erdi Aroan gertatzen zena. Nekazariak, esate baterako, artisauari lurreko produktuak saltzen zizkion, trukean haren tailerrean landuriko artikuluak erosiz. Ekoizle indibidualen gizarte horretan, merkantzien ekoizleen horretan, barneratzera etorriko zen geroago ekoizpen modu berria. Gizarte guztiaren barnean nagusitzen zen, *ez planik ez sistemarik gabeko* lanaren banaketa espontaneo haren erdian, ekoizpen modu berriak lanaren banaketa *planifikatua* ezarri zuen fabrika bakoitzaren barnean: ekoizpen *indibidualaren* alloan, ekoizpen *soziala* sortu zen. Bien produktuak merkatu berean saltzen ziren, eta beraz, prezio berdintsuetan. Baina antolakuntza planifikatuak ahalmen gehiago zuen lanaren banaketa espontaneoak baino; lana sozialki antolatuta zeukaten fabrikek produktuak merkeago egiten zituzten ekoizle indibidual txikiek baino. Ekoizpen indibiduala amore ematen joan zen pixkanaka arlo guztietan, eta ekoizpen

sozialak ekoizpen modu zahar guztia irauli zuen. Hala ere, izaera iraultzaile hori oharkabean geratzen zen; hain oharkabean ezen, alderantziz, merkantzien ekoizpena handitzeko eta bultzatzeko helburu bakar eta eksklusiboarekin ezartzen zela. Zuzenean loturik jaio zen jada funtzionatzen ari ziren merkantzien ekoizpen eta truke bitarteko jakin batzuetara: kapital komertziala, industria artisaua eta soldatapeko lana. Eta merkantzien ekoizpen modu berri gisa sortu zenez, zeuden ekoizpenaren jabetze moduetara egokitu zen.

Merkantzien ekoizpenean, Erdi Aroan garatu izan zen bezala, ezin zen sortu lanaren produktuak norena izan behar zutenaren arazoa. Ekoizle indibidualak, normalean, bere jabetzako lehen gaiekin sortzen zituen, horiek ere ez gutxitan berak ekoiztiak, bere lanabesekin, eta bere edo familiaren eskulana-rekin eginak. Ez zuen, beraz, horien jabe egin beharrik, berak ekoizte hutsagatik jada bereak baitziren. Horrenbestez, produktuen jabetza *lan pertsonalean* oinarritzen zen. Eta besteen laguntza erabiltzen zen kasu haietan ere, hori, normalean, zerbait gehigarria izaten zen eta sarritan, soldataz gain, beste ordainsari bat jasotzen zuen: gremioetako ikasleek eta ofizialek ez zuten lan egiten soldatagatik eta janariagatik, gehienbat ikasteko eta egunen batean maisu izatera iristeko baizik. Baina berehala, ekoizpen baliabideen kontzentrazioa ematen da tailer handietan eta manufakturetan, ekoizpen baliabide benetan sozialetan eraldatzen dira. Hala ere, ekoizpen baliabide horiek eta beren produktu sozialak, lehen zirena izaten jarraituko balute bezala hartzen ziren: ekoizpen baliabide eta produktu indibidual bezala. Eta orain arte lan baliabideen jabea produktuen jabe egiten bazen, orokorrean, bereak zirelako produktuak eta besteen laguntza salbuespena izaten zelako, orain lan baliabideen jabeak produktuaren jabe egiten jarraitzen zuen, nahiz eta hori ez zen *bere* produktu bat, *besteen lanaren* fruitu eksklusiboa baizik. Modu horretan, produktuak, orain sozialki sortuak, ez ziren pasatzen ekoizpen baliabideak benetan martxan jarri zituztenen eta horien benetakoko sortzailerentzira zirenen jabetza izatera, *kapitalistarenera* baizik. Ekoizpen baliabideak eta ekoizpena faktore esentzialki sozialetan bilakatu ziren. Hala ere, menpean zeuden jabetzeko moduak ekoizpen pribatu indibiduala suposatzen zuen, hau da, bakoitza

bere produktuaren jabe zen, eta horrela izanik, merkatura horrekin joaten zen. Ekoizpen modua jabetzeko modu horri lotuta agertzen da, nahiz eta funtsatzen den suposaketa desegin egiten duen^{*}. Ekoizpen modu berriari bere izaera kapitalista ematen dion kontraesan horretan *ezkututzen da, germen moduan, egungo garaietako gatazka osoa*. Eta zenbat eta gehiago ezartzen eta gailentzen den ekoizpen modu berria ekoizpenaren arlo guztietan eta herrialde ekonomikoki garrantzitsuetan, ekoizpen indibiduala ordezkatzuz, hondar hutsalak salbu, *orduan eta handiago da ekoizpen sozialaren eta jabetze kapitalistaren artean agertzen den bateraezintasunaren ebidentzia*.

Lehenengo kapitalistek jada topo egina zuten, aipatu den moduan, soldatapeko lan moduarekin. Baina salbuespen gisa, bigarren mailako lan gisa, osagarria, trantsizio puntu gisa. Noizbehinka jornal bat irabaztera irteten zen nekazariak, bi golde zeuzkan bere lurretan, muturreko egoera batean horietatik bizi zitekeelarik. Gremioetako ordenantzak, gaurko ofizialak bihar maisu bihurtzeaz arduratzen ziren. Baina, ekoizpen baliabideek izaera sozial bat hartu zuten eta kapitalisten eskuetan kontzentratu ziren bezain laster, gauzak aldatu egin ziren. Ekoizle indibidual txikiaren ekoizpen baliabideak eta produktuak geroz eta gehiago joan ziren balioa galtzen, ekoizle txiki honi kapitalistak ordaindutako soldata irabaztea beste erremediorik geratu ez zitzaion arte. Soldatapeko lana, lehenago salbuespena eta lan osagarria zena, ekoizpen guztia-
ren lege eta oinarritzko forma bihurtu zen, eta lehen okupazio gehigarria zena orain langilearen okupazio eksklusiboa bihurtu zen. Aldi baterako soldatapeko langilea bizi guztirako soldata-

* Ez dugu azaldu beharrik, jabetzeko *forma* aldatu gabe mantentzen de-
nean ere, jabetzearen *izaerak* iraultza bat jasaten duela deskribatu
dugun prozesuagatik, ez ekoizpenak baino maila baxuagoan. Norbera-
ren produktu baten jabetzea eta besteen produktu baten jabetzea, begi
bistan denez, jabetzeko bi modu oso ezberdin dira. Eta bide batez
ohartzen dugu, soldatapeko lana, jada barnean ekoizpen modu kapita-
lista orean germenaren daramana, oso aintzinakoa dela; mende osoetan
zehar existitu zen, kasu isolatuetan eta dispersatuetan, esklabotzare-
kin batera. Hala ere, germen hori ekoizpen modu kapitalista eratu ze-
nean bakarrik garatu ahal izan zen, premisa historiko egokiak eman
zirenean. (Engelsen oharra.)

peko bihurtu zen. Gainera, bizi guztirako soldatapeko hauen jendetza modu erraldoi batean handitzen da, aldi berean ordena feudalaren eraisteagatik, jauntxo feudalen osteak desegiteagatik, nekazariak beren etxaldeetatik kanporatzeagatik, etab. Gauzatu da, alde batetik, kapitalisten eskuetan kontzentratu-riko ekoizpen baliabideen eta, bestetik, beren lan indarra besterik ez zuten ekoizleen arteko erabateko banaketa. *Ekoizpen sozialaren eta jabetze kapitalistaren arteko kontraesana proletalgoaren eta burgesiaren arteko antagonismo gisa agertzen da.*

Ikusi dugu ekoizpen kapitalista merkantzien ekoizleen, ekoizle indibidualen, gizarte batean sartu zela, bere lotura soziala produktuen trukea izanik. Baina merkantzien ekoizpenean oinarrizten den gizarte orok aurkezten du, bertan ekoizleek euren erlazio sozialen gaineko agintea galtzen dutenaren berezitasuna. Bakoitzak bere kontura ekoizten du, erabili ditzakeen ekoizpen baliabideekin, eta bere truke pribatuaren beharretarako. Inork ez daki bere kontsumo-gaien mota bereko zein kopuru irteten den merkatura, ezta zenbat behar dituen honek ere; inork ez daki bere produktu indibidualak benetako eskari bati erantzuten dion, ez gastuak ordaindu ahalko dituen, ezta ere, orokorrean, saldu ahalko duen ere. Anarkiak agintzen du ekoizpen sozialean. Baina merkantzien ekoizpenak, ekoizpen forma orok bezala, bere lege bereziak ditu, zehatzak eta beragandik banaezinak direnak; eta lege hauek aurrera ateraten dira anarkiaz gain, anarkian bertan eta bere bitartez. Bizirauten duen lotura sozialeko forma bakar horretan gorpuzten dira: trukean, eta ekoizle indibidualei lehiaren aginte-legeen forman ezartzen zaizkie. Hasiera batean, beraz, ekoizle hauek ez die jaramonik egiten, eta beharrezkoa da esperientzia luze bat horiek pixkanaka agertzen joateko. Ezarri egiten dira, beraz, ekoizlerik gabe eta baita horien aurka ere, ekoizpen forma horren buru diren lege naturalitsu gisa. Produktuak agintzen du ekoizlearen gainetik.

Erdi Aroko gizartean, eta batez ere bere lehen mendeetan, ekoizpena gehienbat norbanakoarentzako kontsumora bideraturik zegoen, ekoizlearen eta bere familiaren beharrak asetzera bakarrik. Eta joputzako erlazio pertsonalak irauten zuen tokian, landan gertatzen zen moduan, jauntxo feudalarren beharrak asetzeko ere jarduten zen. Ez zen ematen, beraz, inolako

trukerik, eta produktuek ez zuten hartzen, horrenbestez, merkantzien izaera. Nekazariaren familiak ia behar zituen objektu guztiak ekoizten zituen: nekazaritza-lanabesak, arropak eta elikagaiak. Produktuen soberakin bat sortzea lortu zuenean bakarrik hasi zen merkantziak ekoizten, bere beharrak ase eta jauntxo feudalarik ordaindu behar zitzaizkion zergak estali ondoren; soberakin hori, truke sozialera, merkatura, salmentara atera zena, merkantzia bihurtu zen. Hirietako artisauek, bide batez, lehenengo momentutik ekoizti behar izan zuten merkaturako. Baina beraiek ere, euren kabuz lortzen zituzten beren kontsumorako behar zituzten produktu gehienak; beren baratzak zituzten eta beren zelaixikiak, beren ganadua larreratzen zuten baso komunaletan, gainera zurez eta sutarako egurrez hornitzen zituztenak; beren emazteak lihoa eta artilea iruten zuten, etab. Trukerako ekoizpena, merkantzien ekoizpena, bere hastapenetan zegoen. Horregatik zen trukea mugatua, merkaturak murrizta, eta ekoizpen modua egonkorra. Kanpora begira tokian tokiko eksklusibismoak agintzen zuten, barnean, tokian tokiko elkargoak: markak landan, gremioak hirietan.

Baina merkantzien ekoizpena zabaltzean eta, batez ere, ekoizpen modu kapitalista agertzean, merkantzien ekoizpenaren legeak, orain arte bizi zantzuak apenas eman zituztenak, modu ireki eta indartsu batean hasten dira jardunean. Elkarre zaharrak indarra galtzen hasten dira, tokian tokiko muga zaharrak erori egiten dira, ekoizleak geroz eta gehiago merkantzien ekoizle independente eta isolatu bihurtzen dira. Ekoizpen sozialaren anarkia argitara irteten da eta geroz eta gehiago areagotzen da. Baina ekoizpen modu kapitalistak ekoizpen sozialean anarkia bultzatzeko duen tresna nagusia, hain zuzen ere, anarkiaren alderantzizkoa da: izaera sozialean duen ekoizpenaren geroz eta antolakuntza handiagoa ekoizpen establezimendu bakoitzaren barnean. Bitarteko horrekin, amaiera ematen dio egonkortasun baketsu zaharrari. Adar industrial bat ezartzen den tokian, ez du onartzen bere alboan metodo zahar bat bera ere. Industria artisauaren jabe egiten den lekuan, hori suntsitu eta ezereztu egiten du. Lanaren esparrua guda zelaia bihurtzen da. Aurkikuntza geografiko handiek eta jarraitzen dieten kolonizazio xedeek, merkatuak biderkatzen

dituzte eta artisauaren tailerra manufakturan bihurtzeko prozesua bizkortzen dute. Eta borroka ez da lehertzen soilik tokian tokiko ekoizle isolatuen artean; lekuko gatazkak bolumen nazional bat hartuz joaten dira, eta XVII. eta XVIII. mendeko gerra komertzialak sortzen dira. Industria handiak eta merkatu mundialaren ezarpenak, azkenik, borrokari izaera unibertsala ematen dien arte, aldi berean aurrekaririk gabeko biolentzia atxikitzen diotelarik. Kapitalista indibidualen artean bezala, industrian eta herrialde osoetan ere, existitzeko borroka ekoizpenaren baldintzak edukitzeak erabakitzen du —naturalak nahiz artifizialki sortuak izan—. Galtzen duena gupidarik gabe azpiratzen da. Existentzia indibidualaren borroka darwinista da, biderkaturiko suminarekin, naturatik gizartera lekualdatua. Piztiaren bizi baldintza naturalak bihurtzen dira giza garapenaren puntu gorena. Ekoizpen sozialaren eta jabetze kapitalistaren arteko kontraesana, orain, *fabrika bakoitzaren barneko ekoizpenaren antolakuntzaren eta gizarte guztiaren oinarriko ekoizpenaren anarkiaren arteko antagonismo gisa agerrarazten da.*

Ekoizpen modu kapitalista bere jatorriengatik atxikirik daukan kontraesan horren bi agerpen modu horien artean mugitzen da, erregurik gabe Fourierrek jada agerian jarri zuen “gurpil zoro” hori marraztuz. Baina Fourierrek, bere garaian, oraindik ezin zuen ikusi gurpil hori gradualki txikitzen doala, mugimendua hobe esanda espiralean garatzen dela eta ezinbestean bere amaierara iritsi behar duela, planeten mugimenduak bezala, erdigunearekin talka eginez. Ekoizpenaren anarkia sozialaren indar bultzatzailea da gizakien gehiengo zabalak, geroz eta nabarmenago, proletario bihurtzen dituenak, eta masa proletario horiek izango dira, aldi berean, azkenik ekoizpenaren anarkiari amaiera emango diotenak. Ekoizpenaren anarkia sozialaren indar bultzatzailea da industria handiko makinaren perfektionatzeko gaitasun infinitua arau inperatibo batetan bihurtzen duena, zeinak kapitalista industrial oro behartzen duen etengabe bere makinaria hobetzera heriotza zigorpean. Baina makina hobetzeak lan masa bat alferreko egitea dakar. Eta makinaria sartzeak eta hori kuantitatiboki zabaltzeak, berarekin milioika esku-langile, langile mekanikoen kopuru murriztago bategatik ordezkatzeari ekarri zuen bezala,

horren perfektionatzeak makinetatik geroz eta langile gehi-
go ezabatzea eragiten du; eta, azken finean, horrek kapitala-
ren batz besteko okupazioaren beharra gain-eskaintzen duen
langile erabilgarrien masa bat sortzea dakar, benetako erre-
serbako langileen ejertzito bat, nik jada 1845ean⁵² deitu izan
nuen bezala, industriak dena emanda lan egiten duen garaie-
tarako erabilgarria egongo den langileen ejertzito bat eta gero,
aldi horien ondoren nahitaez etortzen diren krisietan, kale go-
rrira botatzen dena; hori momentu oro langile klaseari hanketa-
tik loturik dagoen kate bat da bere existentziaren aldeko eta
kapitalaren aurkako borrokan, eta soldatak kapitalismoaren
beharrei dagokien maila baxuan mantentzeko erregulatzaille
bat da. Horrela beraz, makinaria, Marxekin batera esatearren,
langile klasearen aurkako kapitalaren armarik boteretsuena
bihurtu da, etengabe langileari eskuetatik bizi baliabideak
kentzen dizkion lan baliabide bat, horrela langilearen produk-
tua bera esklabotzen duen tresna bihurtzen delarik. Modu hor-
rretan, lan baliabideetako ekonomiak, lehen momentutik, be-
rarekin lan indarren xahutzerik ankerrena eta lanaren berez-
ko funtzio normalen baldintzen aurkako gabetzea dakar. Eta
makinaria, lanaldia mozteko sortu ahal izan den baliabiderik
boteretsuena izanik, langilearen eta bere familiaren bitzitza
osoa, kapitala balioztatzeko erabiltzeko dagoen lanaldi handi
batean bihurtzeko bitarteko hutsezin bat bihurtzen da; horre-
la, batzuen gehiegizko lana besteen lan gabeziaren baldintza
erabakigarria dela gertatzen da, eta industria handiak, neu-
rrigabeko karrera batean mundu guztira kontsumitzaile ber-
rien konkistara irteten denak, bere etxean masen kontsumoa
gosearen minimora murrizten du eta horrekin bere barne mer-
katua hondatzen du. “Biztanleriaren edo erreserbako ejertzito
industrialaren gehiegizko erlatiboa etengabe kapitalaren meta-
ketaren bolumenarekin eta energiarekin orekan mantentzen
duen legeak, Hefestok Prometeo arrokarara iltzatu zuena baino
falka indartsuagoekin lotzen du langilea kapitalera. Horrek
kapitalaren metaketari miseriaren metaketa berdin bat ego-
kitzea sortzen du. Polo bateko aberastasunaren metaketak
aurkako poloa, bere produktua kapital gisa ekoizten duen

52. *Langile klasearen egoera Ingalaterran*. Friedrich Engels.

klasearen poloan, miseriaren, lan oinazeen, esklabutzaren, ignorantziaren, basakeriaren eta degradazio moralaren metaketa berdin bat determinatzen du”. (Marx, *Kapitala*, I. lib., XXIII. kap.). Eta ekoizpen modu kapitalistatik produktuen bestelako banaketa bat espero izatea, bateria baten bi elektrodoak urarekin konektaturik dauden bitartean, ura ez deskonposatzea eta polo positiboan oxigenoa eta negatiboan hidrogenoa ez askatzea espero izatea bezalakoa da.

Ikusi dugu makinaria modernoaren hobekuntza gaitasuna, bere muga gorenera eramana, kapitalista industrialak, baikoitzak bere kabuz, etengabe beren makinaria hobetzera eta horien ekoizpen indarra beti indartsuago egitera behartzen dituen arau inperatibo bat bihurtzen dela, gizarte barnean dagoen ekoizpenaren anarkiari esker. Hori bezain inperatiboa da, bere ekoizpenaren orbita dilatatzeko aukera eraginkor hutsa berarentzat bihurtzen den araua. Industria handiaren hedakuntza indar ikaragarria, bere ondoan gasena haur jolas bat dena, gaur geure begien aurrean hedakuntzarako *behar* kualitatibo eta kuantitatibo bat bezala agertzen zaigu, zeinak bere bidean aurkitzen dituen oztopo guztiak gainditzen dituen. Oztopo hauek dira industria handiko produktuek behar dituzten kontsumoa, irteera eta merkatuak aurka jartzen dizkienak. Baina merkatuen hedakuntza gaitasun hedagarriak eta trinkoak, bere aldetik, lege oso ezberdinei eta modu askoz ahulagoan jarduten dutenei erantzuten diete. Merkatuen hedakuntzak ezin du ekoizpenaren erritmo berean garatu. Talka ezinbestekoa egiten da, eta ezin dionez inolako konponbiderik eman ekoizpen modu kapitalista lehertzen ez duen bitartean, talka hori periodikoa egiten da. Ekoizpen kapitalistak “gurpil zoro” berri bat sortzen du.

Hain zuzen ere, 1825. urtetik, lehenengo krisi orokorra lehertzen den urtea, ez dira hamar urte jarraian igarotzen mundu industrial eta komertzial guztia, herri zibilizatu guztietako eta bere segizioaren herrialde gutxi gora behera barbaroetako ekoizpena eta trukea kiziotatik atera gabe. Merkataritza gelditu egiten da, merkatuak merkantziez gainaseturik daude, produktuak leporaino beteriko biltegietan geratzen dira, irtererarik aurkitu gabe; eskudirua ikusezina bihurtzen da; kreditua desagertu egiten da; lantegiak gelditu egiten dira; langile

masek bizi baliabideen eskasia dute hain zuzen ere horiek gehiegi ekoiztu dituztelako, bankuen hondoratzeak eta likidazioak bata bestearen atzetik gertatzen dira. Geldialdiak urte osoak irauten ditu, ekoizpen indarrak eta produktuak masan xahutzen eta suntsitzen dira, azkenik, pilaturiko merkantzien masak, gutxi gora behera prezioa jaitsita, irteera aurkitzen duten arte, eta ekoizpena eta trukea pixkanaka berpiztuz joaten dira. Apurka-apurka, martxa bizkortu egiten da, ibilera pausoa trosta bihurtzen da, trosta industrialala lauhazka eta, azkenik, karrera zoro, industriaren, komertzioaren, kredituaren eta espekulazioaren *steep-chase*⁵³ bat, azkenik, saltorik arriskutsuenen ondoren, krak baten hobian amaitzeko. Eta horrela behin eta berriz. Bost aldiz errepikatu izan da gutxienez historia berdina 1825. urtetik, eta momentu hauetan (1877) seigarren aldiz ari gara hori bizitzen. Eta krisi hauen izaera hain da gardena eta nabarmena, ezen Fourierrek denak hartzen zituela lehenengoa deskribatzen zuenean, *crise pléthorique* zela, gehiegizko oparotasunetik jaiotako krisi bat zela esanez.

Krisietan, eztanda bortitzetan lehertzen da ekoizpen sozialaren eta jabetze kapitalistaren arteko kontraesana. Merkantzien zirkulazioa, momentuz, geldirik geratzen da. Zirkulaziorako bitartekoa, dirua, traba bihurtzen da zirkulazioarentzat; merkantzien ekoizpenaren eta zirkulazioaren lege guztiak aldeantzezkoak bihurtzen dira. Gatazka ekonomikoak bere puntu gorena eskuratzen du: *ekoizpen modua trukeko moduaren aurka matxinatzen da*.

Lantegien barneko ekoizpenaren antolakuntza soziala, gizarteko ekoizpenaren anarkiarekin —berarekin existitzen dena eta bere gainetik dagoena— bateragaitza den arteko puntura iritsi arte garatu izana, kapitalistei beraiei nabarmenki agertzen zaie, krisietan zehar, kapitalista handi eta, batez ere, txiki askoren lur jotzearen kontura ematen den kapitalen kontzentrazio bortitzagatik. Ekoizpen modu kapitalistaren mekanismo guztiak kale egiten du, berak sortu dituen ekoizpen indarrek itotzen dutelako. Jada ez du asmatzen ekoizpen baliabideen masa hau kapital bihurtzen, geldirik

53. Oztopoen karrera.

mantentzen dira, eta horregatik egon behar du hain zuzen ere erreserbako ejertzito industrialak ere geldirik. Ekoizpen baliabideak, bizi baliabideak, langile erabilgarriak: ekoizpeneko eta aberastasun orokorreko elementu guztiak gehiegizko neurrian existitzen dira. Baina “gehiiegizko oparotasuna miseriazko eta penazko iturri bihurtzen da” (Fourier), hura baita, hain zuzen ere, ekoizpen eta bizi baliabideak kapitalean bihurtzea oztopatzen duena, gizarte kapitalistan, ezin baitira ekoizpen baliabideak mugimenduan jarri alde aurretik ez badira bilakatzen kapitalean, giza lan indarraren esplotaziorako bitartekoan. Ekoizpen eta bizi baliabideen nahitaezko kapital ezaugarri hau mamu bat bezala altxatzen da horien eta langile klasearen artean. Ezaugarri hori da ekoizpenaren palanka materiala eta palanka pertsonala elkar engranatzeara eragozten duena; ekoizpen baliabideei funtzionatzen uzten ez diena, ezta langileei lan egiten eta bizitzen ere. Alde batetik, ekoizpen modu kapitalistak, beraz, ekoizpen indarrak gidatzen jarraitzeko duen ezgaitasuna agertzen du. Beste aldetik, ekoizpen indar horiek geroz eta intentsitate handiagoz bultzatzen dute kontraesana ezabatu dadin, kapital baldintzatik askatuak izan daitezene, *izatez aitortu dadin beraien ekoizpen indar sozialen izaera*.

Geroz eta ahulagoak diren ekoizpen indarren matxinada beren kapitaltasunaren aurka, beraien izaera soziala aitortua izateko behar geroz eta indartsuagoa, hori da kapitalista bera behartzen duena geroz eta modu irekiagoan hauek ekoizpen indar sozial bezala tratatzera, erlazio kapitalisten barrenean hori egitea posible den neurrian. Bai presio industrial altuko aldiek, kredituaren zabaltze neurrigabearekin, bai krakak berak, enpresa kapitalista handien erorketarekin, sozietate anonimoen kategoria ezberdinetan aurkitzen ditugun ekoizpen baliabide masa handien sozializazio modu hori bultzatzen dute. Ekoizpen eta komunikazio baliabide horietako batzuk izatez jada hain erraldoiak dira, ezen baztertu egiten dutela, trenbideetan gertatzen den bezala, esplotazio kapitalistako beste forma oro. Garapen fase jakin batetara iristean, jada ez da nahikoa forma hori ere; adar industrial bateko ekoizle nazional handiak elkartu egiten dira trust bat osatzeko, ekoizpena erregulatuz bideraturiko taldeak; ekoiztu behar den kopuru osoa

determinatzen dute, hori euren artean banatzen dute eta horrela, aldez aurretik ezarritako salneurria inposatzen dute. Baina trustak negozioetan lehen bolada txarra etortzen denean hondoratzen direnez, horrekin sozializazio are kontzentratuago baterantz bultzatzen dute; adar industrial guztia elkarre anonimo handi bakar batean bihurtzen da, eta barne lehiak elkarte bakar horren barne monopolioari uzten dio tokia; horrela gertatu zen jada 1890ean, Ingalaterrako alkaliaren ekoizpenarekin, gaur egun, herrialdeko berrogeita zortzi fabrika handiak fusionatu ondoren, sozietate bakar batek esplotatzen duelarik, zuzendaritza bakarrarekin eta 120 milioi markotako kapitalarekin.

Trustetan, lehia askea monopolio bihurtzen da eta gizarte kapitalistaren planik gabeko ekoizpenak kapitulatu egiten du iristear dagoen gizarte sozialistaren ekoizpen planifikatuaren eta antolatuaren aurrean. Argi dago, momentuz, kapitalisten probetxurako eta onurarako. Baina hemen esplotazioa hain agerikoa gertatzen da, ezen nahitaez erori behar duen. Ez luke onartuko inongo herrik trustek gidaturiko ekoizpen bat, herri-tarren hain esplotazio lotsagabea kupoi mozle batzuen koadri-la txiki baten mende.

Modu batean edo bestean, trustekin edo trustik gabe, gizarte kapitalistaren ordezkari ofizialak, Estatuak, ekoizpenaren agintearen kargu egiten amaitu behar du*. Enpresa jakin

* Eta kargu egiten behar duela diot, zeren nazionalizazioak soilik aurrerapen ekonomiko bat adieraziko baitu, gizarteak ekoizpen indar guztien eskuratzearen noranzkoan aurrerapauso bat, nahiz eta neurri hori egungo Estatuak burutzen duen, ekoizpen edo garraio baliabideak jada *benetan* gainezka egiten dutenean sozietate anonimo baten zuzendaritzaren ibilguetatik, horrenbestez, nazionalizazioaren neurria jada *ekonomikoki* ezinbestekoa egiten denean. Baina orain dela gutxi, Bismarckek nazionalizazioaren bidea hasi zuenetik, sozialismo faltsu moduko zerbait sortu da, otzana eta zuria, nazionalizazio ekintza *orotan*, baita Bismarckek agindutakoetan ere, neurri sozialista bat ikusten duena. Tabakoaren industriaren nazionalizazioa sozialismoa izango balitzake, sozialismoaren sortzaileen artean Napoleon eta Metternich sartu beharko lirateke. Belgikako Estatuak, arrazoi politiko eta finantzario zeharo zabarrengatik, herrialdeko burdinbide nagusiak bere kontura eraikitzea erabaki zuenean, edo Bismarckek, inolako behar ekonomikok horretara bultzatu gabe, Prusiako trenbideen sare

batzuk Estatuaren jabetza bihurtzearen beharra, garraio eta komunikazio enpresa handietan hasten da agertzen, posta, telegrafoa eta trenbideak bezalakoetan.

Krisi kapitalistek, ekoizpen indar modernoak kontrolatze-ko burgesiak duen ezintasuna agertzen duten modu berean, ekoizpen eta garraio enpresa handiak sozietate anonimoetan, trustean eta Estatuako jabetzan bihurtzeak erakusten du egiteko hauek burutzeko jada burgesia ez dela ezinbestekoa. Gaur egun, kapitalistaren eginkizun sozialak, denak, soldatapeko enplegatuen kontura eramaten dira, eta bere jarduera sozial guztia bere errentak kobratzera, bere kupoiak moztera eta Burtsan jokatzera murrizten da, non mota guztietako kapitalistek bata besteari beren kapitalak kentzen dizkioten. Eta lehen ekoizpen modu kapitalistak langileak baztertzen bazituen, orain kapitalistak ere baztertzen ditu, langileak bezala, soberako biztanleen artera zokoratuz; nahiz eta oraingoz ez den erreserbako ejertzito industrialia.

Baina ekoizpen indarrek ez dute beraien kapital izaera galitzen sozietate anonimoen eta trusten edo Estatuaren jabetza bihurtzen direnean. Sozietate anonimoei eta trusteei dagokienean, argi eta garbi agerian dago. Bere aldetik, Estatu moderno ere, gizarte burgesak sorturiko erakunde bat baino ez da, ekoizpen modu kapitalistaren kanpoko baldintza orokorrak atentatuen aurrean defendatzeko, izan horiek langileenak nahiz kapitalista indibidualenak. Estatu moderno, bere forma edozein izanik ere, makina esentzialki kapitalista da, kapitalisten Estatua da, kapitalista kolektibo ideala. Eta zenbat eta

garrantzitsuenak nazionalizatu zituenean, sinpleki gerra kasuan hobe maneiatzeko eta aprobetxatzeko, trenbideetako langileak gobernuari men egingo zioten hauteskunde ganadu bihurtzeko eta, batez ere, diru sarreraren iturri berri bat edukitzeko Parlamentuaren ikuskatzea saihestuz; neurri horiek guztiak ez zeukaten, ez zuzenean ezta zeharka ere, ez kontzienteki ezta inkontzienteki ere, sozialistatik ezer. Bestela, instituzio sozialisten artean sartu beharko genituzke Itsas Merkataritzako Errege Konpainia, Portzelanen Errege Manufaktura, eta baita armadako konpainiako jostunak ere, prostituzio-etxeen nazionalizazioa ahaztu gabe, proposamen oso serioa, hogeita hamargarren urte inguruan, Friedrich Wilhelm III.aren agintean egina, gizon oso argia bera. (Engelsen Oharra).

indar produktibo gehiago bereganatu jabetzan, orduan eta gehiago bihurtuko da kapitalista kolektiboan eta orduan eta herritar gehiago esplotatuko ditu. Langileak soldatapeko langile izaten jarraitzen dute, proletarioak. Erlazio kapitalista, neurri hauekin abolitzetik urrun, areagotu egiten da, muturrera iristen da, gailurrera. Baina, gailurrera iristean, amildu egiten da. Estatua ekoizpen indarren jabe egitea ez da gatazkaren konponbidea, baina jada barnean hartzen du bitarteko formala, konponbidera iristeko bitartekoa.

Konponbide hori ekoizpen indar modernoan izaera soziala modu eraginkor batean aitortzean eta horrenbestez, ekoizpen, jabetze eta truke modua ekoizpen baliabideen izaera sozialarekin armonian ezartzean bakarrik egon daiteke. Horretarako, bide bat bakarra dago: gizarteak, modu irekian eta itzulingururik gabe, ekoizpen indar horien jabetza hartzea, jada ez baitute onartzen berea ez den beste zuzendaritzarik. Horrela eginez, ekoizpen baliabideen eta produktuen izaera soziala ekoizleek jarriko dute kontzientzia osoz indarrean eta, asaldartzean eta hondamenen kausa konstante izatetik, ekoizpenaren palankarik boteretsuenak izatera bihurtuko dira, izan ere, gaur egun ekoizleen beraien aurka itzultzen baitira, behin eta berriz ekoizpen eta truke moduaren ibilguak hautsiz, eta lege naturalen bulkada itsua bezain suntsitzailea den indar eta eragin-kortasun batekin bakarrik gailendu daitezkeelarik.

Gizarteko indar aktiboek jardun egiten dute guk ez ezagutu arren eta beraiekin kontaktzen dugu, hain zuzen ere naturala indarrekin bezala: moduitsu, bortitz, suntsitzaile batean. Baina, behin ezagututakoan, beren ekintza, joera eta eraginak ulertzen jakin bezain laster, geure eskuetan dago geroz eta osokiago gure borondatearen mendean ezartzea eta haien bitartez nahi diren xedeak lortzea. Hori gertatzen da, oso nabarmen, ekoizpen indar moderno erraldoiekin. Burugogorki beren izaera naturala eta aiurria ulertzeari uko egiten diogun bitartean—eta ulermen horren aurka jartzen dira ekoizpen modu kapitalista eta bere defendatzaileak—, indar horiek gure gogoz kontra jardungo dute, gure aurka, eta menderatu egingo gaituzte, ongi azpimarratu dugun bezala. Aldiz, beren izaera naturalean barneratzen garen bezain laster, indar horiek, elkar-turiko ekoizleen eskuetan ezarrita, tirano demonio izatetik,

esaneke zerbitzari izatera bihurtuko dira. Ekaitzetako tximisten elektrizitatearen botere suntsitzailearen eta telegrafoari eta arku voltaikoari lotuta dagoen elektrizitatearen arteko ezberdintasun bera da; sutearen eta gizakiaren zerbitzura ezarririko suaren arteko ezberdintasuna. Gizarte modernoko ekoizpen indarrak, azkenik ezagutua izan den beren izaera naturalarekin bat datorren erregimenaren mende ezartzen diren egunean, ekoizpenaren anarkia sozialak postua utziko dio ekoizpenaren arautze kolektibo eta antolatuari, zeina gizartearen eta gizabanako bakoitzaren beharrekin bat etorriko den. Eta jabetzeko erregimen kapitalista, non produktuak esklabo hartzen duen lehenik bere sortzailea eta gero bere jabe egiten dena, ordezkaturia izango da ekoizpen modu berrien izaerak eskatzen duen produktuaren jabetzeko erregimenagatik: alde batetik, jabetze zuzenean soziala, ekoizpena mantentzeko eta zabaltzeko bitarteko gisa; bestetik, jabetze zuzenean indibiduala, bizi eta gozamen bitarteko gisa.

Ekoizpen modu kapitalistak, herrialde bakoitzeko gizabanakoen gehiengo zabala geroz eta gehiago proletario bihurtzean, indar bat sortzen du, zeinak ez badu hil nahi, beharturik dagoen iraultza hori burutzera. Eta, geroz eta gehiago behartzean ekoizpen baliabide sozializatu handiak Estatuaren jabetza bihurtzera, bere kabuz seinalatzen du iraultza hori gauzatzeko behar den bidea. *Proletalgoak bere eskuetan hartzen du Estatuko boterea eta ekoizpen baliabideak Estatuaren jabetza bihurtzetik hasten da.* Baina ekintza horrekin bere burua suntsitzen du proletalgo bezala, eta klaseko ezberdintasun eta antagonismo oro suntsitzen dira, eta horrekin berarekin, Estatua bere gisan. Gizarteak, orain arte klase arteko antagonismoetan mugitu denez, Estatua behar izan du, hau da, dagoen klase esplotatzailearen erakunde bat ekoizpeneko kanpo baldintzak mantentzeko eta, beraz, bereziki, indarraren bidez klase esplotatua (esklabotza, joputza edo mirabetza eta soldatapeko lana) dagoen ekoizpen moduak zehazturiko zapalkuntza baldintzetan mantentzeko. Estatua gizarte guztiaren ordezkari ofiziala zen, horren sintesia gorputz sozial ikusgarri batean; baina soilik bere garaian gizarte guztia ordezkatzeko zuen klasearen Estatu gisa: antzinaroan hiritar esklabisten Estatuaren; Erdi Aroan noblezia feudalarena; gure garaian burge-

siarena da. Estatua azkenik benetan gizarte guztiaren ordezkari bihurtzen denean, bere kaxa utziko dio beharrezkoa izateari. Jada ez denean existituko mendean mantendu beharreko inolako klase sozialik; klase menderakuntzarekin batera, ekoizpenaren egungo anarkiak sorturiko existentzia indibidualaren aldeko borrokarekin batera, horren ondorio diren talkek eta gehiegikeriak desagertzen direnean, ez da egongo zer erreprimitu eta ez da beharko, horrenbestez, Estatua den errepresio indar berezi hori. Estatua eraginkorki gizarte guztiaren ordezkari bezala agertzen den lehen ekintza —gizartearen izenean ekoizpen baliabideen jabetza eskuratzea— aldi berean Estatu bezala egiten duen azken ekintza independentea da. Erlazio sozialetan Estatuaren esku-hartzea alferrikakoa bihurtuko da eremu guztietan bata bestearen atzetik eta lokartu egingo da bere kabuz. Pertsonen gaineko gobernu gauzen administrazioagatik eta ekoizpen prozesuen gidarizagatik ordezkaturia da. Estatua ez da “abolitua” izango; iraungi egingo da. Hemendik abiatuz epaitu behar da “herri Estatu libre” esaldiaren balioa, agitazio kontsigna gisa duen behin behineko justifikazioari eta bere oinarri zientifiko faltari dago-kionean. Hemendik abiatuz ere hartu behar da kontutan anarkista deritzenen aldarrikapena, Estatua goizetik gauera abolitu behar denarena.

Ekoizpen modu kapitalista historiaren palestran agertu zenetik, gizabanakoak eta sektak egon dira, gutxi gora behera nahiko lauso, etorkizuneko ideal bezala gizarteak ekoizpen baliabide guztiak jabetzea proiektatu izan dutenak. Baina, hori gauzagarria izan zedin, behar historiko bat bihurtu zedin, ezinbestekoa zen aurrez bere gauzapenerako benetako baldintzak ematea. Aurrerapen hau, aurrerapen sozial guztiak bezala, bideragarria izan dadin, ez da nahikoa arrazoimenak klaseen existentzia justiziaren, berdintasunaren, etab.en aginduekin bateragaitza dela ulertzea; ez da nahikoa klase horiek abolitzeko nahimen hutsa, baizik eta beharrezkoak dira baldintza ekonomiko jakin batzuk. Gizartearen zatiketa klase esplotatzaile batean eta klase esplotatu batean, bata klase menderatzailea eta bestea zapaldua, ekoizpenaren lehenagoko hastapenetako garapenaren beharrezko ondorioa zen. Gizarte-ko lan globalak denen behar oinarritzkoenak asetzeko hertsiki

ezinbestekoa dena bakarrik estaltzeko errenditzen duen bitartean; horrenbestez, lanak gizarteko kide guztien gehiengo zabalaren denbora guztia edo ia denbora guztia hartzen duenean, hori, nahitaez, klaseetan zatitzen da. Lanaren zama ematera ez beste ezertara bakarrik mugaturiko gehiengo zabalaren ondoan, zuzenean produktiboa den lanetik askaturiko klase bat sortzen da eta bere ardurapean geratzen dira gizarteko auzi orokorrak: lanen zuzendaritza, negozio publikoak, justizia, zientziak, arteak, etab. Horrenbestez, lanaren banaketaren legea da gizartearen klase arteko zatiketaren oinarri gisa balio duena. Nahiz eta horrek ez duen eragozten gizartearen klase arteko zatiketa hori biolentziaren eta gabetzearen, maltzurkeriaren eta engainuaren bitartez aurrera eramatea; eta ez du esan nahi ere klase menderatzaileak, behin tronuratutakoan, uko egiten dionik bere boterea klase langilearen kontura finkatzeari, zuzendaritzaren paper soziala masen esplotazio are handiagoan bihurtuz.

Horrela beraz, ikusten dugu gizartearen klase arteko zatiketak bere izateko arrazoi historikoa duela, baina denbora muga jakin batzuen barnean eta baldintza sozial jakin batzuetan bakarrik. Ekoizpenaren garapen urriagatik zegoen baldintzatua, eta ekoizpen baliabide modernoak osoki garatzen direnean izango da ezabatua. Hain zuzen ere, klase sozialen abolizioak halako garapen maila historikoa beharrezko du, ezen anakronismo bat izango dela, jada ez klase menderatzaile konkretu honen edo haren existentzia, baizik eta edozein klase menderatzailearena eta, beraz, klase arteko ezberdintasunen existentzia. Horrenbestez, ekoizpenaren garapenean maila gorena beharrezkoa da, non gizarteko klase sozial jakin batek ekoizpen baliabideen eta produktuen jabetza hartzea eta, beraz, botere politikoa, kulturaren monopolioarena eta zuzendaritza izpiritualarena, beharrezkoa ez izateaz gain, gainera ekonomikoki, politikoki eta intelektualki aurrerapenaren aurrean altxaturiko hesi bat izango den. Horrela beraz; puntu horretara iritsi gara. Gaur egun, burgesiaren porrot politikoa eta intelektuala jada ez da apenas sekretua ezta berarentzat ere, eta bere porrot ekonomikoa periodikoki hamar urtero errepikatzen den fenomeno bat da. Krisi horietako bakoitzean, gizartea asfixiatu egiten da, bere ekoizpen baliabideen eta pro-

duktuen masak itorik, ezin baititu horiek aprobetxatu, eta ezintasunez, aurre egin behar dio bertako ekoizleek, hain zuzen ere kontsumitzaile faltagatik, zer kontsumitu ez edukitzearen kontraesan absurdoari. Ekoizpen baliabideen indar hedakorrak, ekoizpen modu kapitalistara eusten duten loturak apurtzen ditu. Ekoizpen baliabideen askapen hori da ekoizpen indarren garapen etengabea eta geroz eta azkarragoa, eta horrekin ekoizpenaren hazkuntza praktikoki mugagabea baimendu dezakeen bakarra. Baina ez da hori bakarrik. Ekoizpen baliabideen jabetze sozialak ez ditu gaur egun ekoizpenari ezartzen zaizkion traba artifizialak bakarrik garbitzen, ekoizpen baliabideen eta produktuen xahutzearekin eta suntsiketarekin ere amaitzen du, hori egungo ekoizpenaren ondorio saihestezinetako bat baita, bere puntu gorena krisietan eskuratzen duelarik. Gainera, klase menderatzaileen eta bere ordezkari politikoen lukuaren xahutze inozoarekin amaitzean, ekoizpen baliabideen eta produktuen masa oso bat jartzen du zirkulazioan kolektibotasunarentzat. Lehen aldiz orain ematen da, eta modu eraginkor batean ematen da, gizarteko kide guztiei, ekoizpen sozialaren sistema baten bidez, beren behar materialak osoki eta egunero lasaitasun handiagoz asetzeaz gain, beren gaitasun fisiko eta izpiritualen garapen eta lanketa aske eta erabatekoa bermatzea*.

Gizartea ekoizpen baliabideen jabe egitean, merkantzien ekoizpena amaitzen da, eta berarekin batera produktuak ekoizlearen gainean duen agintea. Ekoizpen sozialaren barne-

* Datu gutxi batzuek, irakurleari gutxi gorabeherako ideia bat emango diote ekoizpen baliabide modernoek, zapalkuntza kapitalista barnean egon arren, garatzen duten indar zabaltzaile izugarriaz. Giffenen kalkuluen arabera, Britainia Handiko eta Irlandako aberastasun globala, zenbaki borobiletan, honako kopurura igotzen zen:

1814.....	2.200	milioi	libera	esterlina
1865.....	6.100	“	“	“
1875.....	8.500	“	“	“

Krisian zehar ekoizpen baliabideen eta produktuen xahutzeak esan nahi duenaren ideia bat ematearren, esango dut industria alemaniarren bigarren kongresuan, 1878ko otsailaren 21ean Berlinen ospatu zena, azken krakak *industria siderurgiko alemaniarrean* 455 milioi markoetan kalkulatu zela. (Engelsen oharra.)

an nagusi den anarkiak postua uzten dio antolakuntza harmo- niko, proportzional eta kontziente bati. Existentzia indibidua- laren borroka amaitzen da eta berarekin, zentzu batean, giza- kia animalien erreinutik guztiz irteten da eta existentziako baldintza animalien aurrean bere buruaren jabe egiten da, bizi baldintza benetan gizatiarren baitan jartzeko. Gizakia in- guratzen duten bizi baldintzak eta orain arte bera menderat- zen zutenak, une horretatik aurrera, bere menpean eta kon- trolpean kokatzen dira, eta gizakia, bere erlazio sozialen jaun eta jabe bihurtzean, lehen aldiz naturaren jaun kontzientean eta eraginkorrean bihurtzen da. Bere jarduera sozialaren lege- ak, orain arte gizakiaren aurrean lege natural bezala altxatzen zirenak, euren inperiora jazartzen zuten botere arrotzen mo- duan, orain erabateko kausa ezagutzarekin aplikatzen ditu eta, beraz, bere boterearen mendean ezartzen ditu. Gizakiaren existentzia soziala bera, orain arte naturak eta historiak eza- rririko zerbaiten moduan jarkitzen zitzaiona, hemendik aurre- ra bere obra askea da. Botere objektiboak eta arrotzak, orain arte historian agintzen ari zirenak, gizakiaren beraren kon- trolpean ezartzen dira. Orduz geroztik bakarrik hasten da, egiten duenaren kontzientzia osoz trazatzen bere historia. Eta orduz geroztik bakarrik hasten dira, berak martxan jarritako kausa sozialak, nagusiki eta geroz eta neurri handiagoan nahi diren ondorioak ekoizten. Gizateriaren jauzia da, beharraren erreinutik askatasunaren erreinura.

* * *

Labur dezagun motzean, amaitzeko, gure garapenaren ibil- bidea:

I.- *Erdi Aroko gizartea*: Ekoizpen txiki indibiduala. Norba- nakoari egokituriko ekoizpen baliabideak, eta beraz, primiti- boak, baldarrak, zekenak eta eraginkortasun txikikoak. Pro- duktuen soberakin bat geratzen den kasuetan bakarrik, kontsu- mo hura ase ondoren, eskaintzen da salmentan eta ateratzen da trukera produktua. Horrenbestez, merkantzien ekoizpena oraindik bere hastapenetan dago, baina jada, germen moduan, *ekoizpen sozialaren anarkia darama*.

II.- *Iraultza kapitalista*: Industriaren eraldaketa, kooperazio sinplearen eta manufakturaren bidez hasten dena. Ordura arte sakabanaturik zeuden ekoizpen baliabideen kontzentrazioa tailer handietan, horrela norbanakoaren ekoizpen baliabide zirenak ekoizpen baliabide sozial bihurtzen direlarik. Metamorfoosi horrek ez dio eragiten, orokorrean, trukeko formari. Zutik geratzen dira jabetzeko forma zaharrak. *Kapitalista* agertzen da: ekoizpen baliabideen jabe gisa, bera ere produktuen jabe egiten da eta merkantzia bihurtzen ditu. Ekoizpena ekintza sozial batean eraldatzen da; trukeak eta, berarekin, jabetzeak ekintza indibidualak izaten jarraitzen dute: *produktu soziala kapitalista indibidualak bereganatzen du*. Hori da funtsezko kontraesana eta hortik eratoritzen dira egungo gizartea mugitzen duten kontraesan guztiak, industria handiak argi eta garbi agerian jartzen dituelarik.

A. Ekoizlea ekoizpen baliabideetatik banatzen da. Langilea biziarteko soldatapeko izatera kondenaturik geratzen da. *Burgesia eta proletargoaren arteko antitesia*.

B. Merkantzien ekoizpenaren buru diren legeen nabarmenitze hazkorra eta efikazia nabaria. Lehia neurrigabea. *Fabrikari bakoitzaren barneko antolakuntzaren eta ekoizpen osoan dagoen anarkia sozialaren arteko kontraesana*.

C. Alde batetik, makinariaren perfektzionatzea, lehiak inperatibo bihurtzen duena fabrikatzaile bakoitzarentzat eta geroz eta langile gehiagoren bazterketa eragiten duena: *erreserbako ejertzito industrial*a. Beste aldetik, ekoizpenaren zabalkunde mugagabea, hori ere lehiak fabrikatzaile guztiei inposatzen dielarik hertsapen arau moduan. Bi aldeetatik, ekoizpen indarren garapen paregabea, gehiegizko eskaintza eskariaren gaitetik, gain-produkzioa, merkatuak lepo betetzea, krisia hamar urtez behin, gurpil zoroa: gehiegizko abundantzia, *hemen ekoizpen baliabideena eta produktuena, eta han lanik eta bizi baliabiderik gabeko langileena*. Baina ekoizpenaren eta ongizate sozialaren bi palanka horiek ezin dira konbinatu, ekoizpenaren forma kapitalistak galarazi egiten baitie ekoizpen indarrei jardutea eta produktuei zirkulatzea ez bada aurrez kapital bihurtuz, hain zuzen ere, hori delarik beren oparotasuna galarazten diena. Kontraesana areagotu egiten da zentzugabekeria bihurtu arte: *ekoizpen modua trukeko formaren aur-*

ka matxinatzen da. Burgesia ezgai agertzen da bere ekoizpen indar sozialak zuzentzen jarraitzeko.

D. Ekoizpen indarren izaera sozialaren aitortzen partziala, kapitalistei beraiei erauziak izatean. Ekoizpen eta garraio organismo handien jabetzea, lehenik *sozietate anonimoek*, gero *trustek*, eta beranduago *Estatuak*. Burgesia beharrezkoa ez den klase bezala agertzen da; bere funtzio sozial guztiak sol-datapeko enplegatuek burutzen dituzte.

III.- *Iraultza proletarioa*: Kontraesanen ebazpena: proletarioak botere politikoa hartzen du, eta, horren bidez, ekoizpen baliabide sozialak jabetza publiko bihurtzen ditu, burgesiari eskuetatik alde egiten dietelarik. Ekintza horrekin, ekoizpen baliabideak ordura arte zuten kapital baldintzatik askatzen ditu eta beren izaera sozialari askatasun guztia ematen die ezartzeko. Hemendik aurrera jada posible da alde aurretik trazaturiko plan baten arabera ekoizpen sozial bat. Ekoizpenaren garapenak anakronismo bihurtzen du klase sozial ezberdinen biziraupena. Ekoizpen sozialaren anarkia desagertzen den neurrian Estatuaren autoritate politikoa ere ahuldu egiten da. Gizakiak, azkenik beren existentzia sozialaren jabe izanik, naturaren jabe bihurtzen dira, euren buruen jabe, gizaki aske.

Mundua askatuko duen ekintza horren gauzatzea, proletario modernoaren eginkizun historikoa da. Eta sozialismo zientifikoak, mugimendu proletarioaren adierazpide teorikoak, ekintza horren baldintza historikoak eta, horrekin batera, izaera naturala bera aztertzeko zeregina du, horrela iraultza hori egitera deituriko klaseari, gaur egun zapalduarik dagoen klaseari, bere ekintzaren baldintzen eta izaeraren kontzientzia zabalduz.

F. Engelsek idatzia 1880ko urtarrietik urte bereko martxora arte. La Revue socialiste aldizkarian argitaratua, 3., 4., 5. zenbakietan, 1880ko martxoaren 20, apirilak 20 eta maiatzak 5 eta aparteko foileto bezala frantsesez: F. Engels. Socialisme utopiqueet socialisme scientifique, Paris, 1880.

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista

- 1 • Manifestu komunistari hitzaurrea
 - 2 • Ezkerkeria, komunismoaren haurtzaroko eritasunari hitzaurrea
 - 3 • Etengabeko Iraultzari hitzaurrea
 - 4 • Che Guevararen ondarea eta Latinoamerikako iraultza
 - 5 • Estatua eta Iraultzari hitzaurrea
 - 6 • Zer da sozialismoa?
 - 7 • Marxismoa eta artea
- MANIFESTU KOMUNISTA (K. Marx / F. Engels)
 - ERREFORMA EDO IRAULTZA (R. Luxemburgo)
 - ESTATUA ETA IRAULTZA (V. I. Lenin)
 - TRANTSIZIO PROGRAMA (L. Trotsky)
 - ANARKISMOA ETA KOMUNISMOA (E. Preobrazhenski)
 - SOZIALISMO UTOPIKOTIK SOZIALISMO ZIENTIFIKORA (F. Engels)
 - MARXISMOA ETA LANGILE KLASEA
 - MARXISMOA ETA ASKAPEN NAZIONALA

Liburuxka hauek EUSKAL HERRIA SOZIALISTA aldizkariak argitaratu ditu Federiko Engels Fundazioaren laguntzarekin.

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA aldizkaria edo liburuxkak jasotzeko, gurekin kolaboratzeko, marxismoari buruzko hitzaldiak antolatzeko edo ideia hauekin interesatua bazaude:

JARRI HARREMANETAN:
euskalherriasozialista@hotmail.com
TEL.: 685 720 939
www.euskalherriasozialista.net

FEDERIKO ENGELS FUNDAZIOA

MARXISMOAREN KLASIKOAK bilduma

C. Marx / F. Engels

- Contribución al problema de la vivienda
- Crítica del programa de Gotha / Crítica del programa de Erfurt
- Del socialismo utópico al socialismo científico
- El 18 Brumario de Luis Bonaparte
- El Manifiesto Comunista (*castellano, català, galego*)
- El origen de la familia, la propiedad privada y el Estado
- Introducción a 'Dialéctica de la naturaleza' (y otros)
- La guerra civil en Francia
- Ludwig Feuerbach y el fin de la filosofía clásica alemana
- Salario, precio y ganancia / Trabajo asalariado y capital

V. I. Lenin

- El imperialismo, fase superior del capitalismo
- La enfermedad infantil del 'izquierdismo' en el comunismo
- La revolución proletaria y el renegado Kautsky
- Las tesis de abril

L. Trotsky

- 1905 / Resultados y perspectivas
- ¿Adónde va Francia?
- Acerca de los sindicatos
- La lucha contra el fascismo
- El programa de transición
- Historia de la Revolución Rusa (2 vols.)
- Escritos sobre la revolución española (1930-39)
- La revolución permanente
- La revolución traicionada
- Mi vida
- Problemas de la vida cotidiana
- Qué es el marxismo / Su moral y la nuestra
- Terrorismo y comunismo

R. Luxemburgo

- Una escuela de estrategia revolucionaria
- Huelga de masas, partido y sindicato
- La crisis de la socialdemocracia
- La revolución alemana de 1918-19
- Reforma o revolución

E. Preobrazhenski

J. Plejanov

- Anarquismo y comunismo
- Contra el anarquismo
- La concepción materialista de la historia
- El papel del individuo en la historia / 'Cant' contra Kant
- Carlos Marx y la Internacional
- Sobre el materialismo histórico

KRITIKA MARXISTA bilduma

- Razón y revolución. Filosofía marxista y ciencia moderna
- Rusia, de la revolución a la contrarrevolución
- Lenin y Trotsky, qué defendieron realmente
- Bolchevismo, el camino a la revolución
- La revolución bolivariana. Un análisis marxista
- Euskal Herria y el socialismo. Marxismo y cuestión nacional
- Apuntes revolucionarios.
 - Cuba, Venezuela y el socialismo internacional
 - En defensa de la Revolución de Octubre
 - Reformismo o revolución. Marxismo y socialismo del siglo XXI
 - La batalla de Inveval
 - Pirómanos apagando un fuego
 - Revolución socialista y guerra civil

A. Woods / T. Grant
Ted Grant
T. Grant / A. Woods
Alan Woods
Alan Woods
Eloy Val / Alan Woods

Celia Hart

A. Woods
Pablo CORMENZANA
Juan Ignacio Ramos
Juan Ignacio Ramos

LANGILE MEMORIA bilduma

- Rebelión obrera en Tejas y Ladrillos
- 3 de marzo. Una lucha inacabada
- Carrier. Lecciones de una lucha
- Historia del movimiento obrero en Guadalajara

José Martín
Arturo Val del Olmo
Felipe Palacios
Enrique Alejandre

